



Araotz: kirol-  
eskaladan  
erreferente

Pili Arin kirolari  
bergararrari  
elkarrizketa



## UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



### HAUTESLEKUAK PRESTATZEN

Udal eta foru hauteskundeak dira domekan. 49.595 debagoiendar daude deituta botoa ematera eta eskualdeko bederatzi herrietan 113 zinegotzi aukeratu dituzte. Gipuzkoako batzarkideak ere hautatuko dituzte herritarrek / 2

Bergarako udal langileak, udal pilotalekuko hauteslekuak atontzen, eguaztenean. Debagoiengan 21 hautesleku izango dira. XABIER URZELAI



Pentsiodunak Bergaran, astelehenean, Gasteizerako bidea hastear. LARRAITZ ZEBERIO

### "Pentsio duina" aldarrikatzeko, Debagoienetik Gasteizera oinez / 6

### Sei bertsolari Señora sariketaren finalean Oñatin; Mainer Arregi oñatiarra tartean / 50

#### SINADURAK

	MIKEL LEZAMIZ / 8		AITOR UGALDE / 44
	KARMELE PEREZ / 11		ANDER ETXEBERRIA / 56

SKODA ENYAQ IV

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70



Debagoiendar bat botoa ematen  
2019ko udal hauteskundeetan.

GOIENA

# Hemen dira hauteskundeak

Debagoiengan 21 hautesleku jarriko dituzte botoa ematera deituta dauden 49.595 debagoiendarrek udal eta foru hauteskundeetako botoa eman dezaten, 09:00etatik 20:00etara; GOIENAK hauteskunde egunaren jarraipena egingo du

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA Maiatzaren 28an erabakiko da hurrengo lau urteetan zeinen eskuetan geratuko diren udalak eta foru aldundiak. 2019ko udal hauteskundeetan ez bezala, Debagoieneko herri guztietan osatu dira udal zerrendak domekarako –Leintz Gatzagan ez zen zerrendarik aurkeztu duela lau urte–. Denera, 49.595 debagoiendar daude deituta botoa ematera, 2019an baino 572 gutxiago: Arrasaten 16.948, Bergaran 11.311, Oñatin 8.794, Aretxabaletan 5.541, Eskoriatzan 3.231, Antzuolan, 1.599, Aramaion 1.153, Elgetan 853 eta Leintz Gatzagan 165.

Hortaz, hautetsontzietan bi boto eman ahal izango dira: bata, zuria, udaleko botoa; eta bestea, laranja, Batzar Nagusietakoa. Boto horiek 21 hauteslekutan eman beharko dituzte debagoiendarrek, bakoitzak dagokionean.

Arrasaten sei hautesleku jarriko dituzte, Bergaran bost, Oñatin lau eta Aretxabaletan, Eskoriatzan, Elgetan, Aramaion, Antzuolan eta Leintz Gatzagan bana. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko zortzietara egongo dira hauteslekuak zabalik.

## Ordezkaritzak udaletan

Udal hauteskunderi dagokienez, 113 zinegotzi aukeratuko dituzte ibarrean domekan; herri bakoitzak duen biztanleriaren arabera da zinegotzi kopurua ere. Hori horrela izanda, Arrasaten 21 zinegotzi aukeratuko

## 34 ZERRENDA AURKEZTU DIRA BAILARAN; HAMAR DIRA EMAKUMEZKO ALKATEGAIK

dituzte; Bergaran, hamazazpi; Oñatin, hamazazpi; Aretxabaletan hamahiru; Eskoriatzan, hamaika; Antzuolan, hamaika; Aramaion, bederatzi; Elgetan, bederatzi; eta Leintz Gatzagan, bost. Hala, ekainaren 17an eraturiko dira udalak.

Alabaina, bost alderdi nagusiek aurkeztu dituzte hautagaitzak Debagoiengan; denera, 34 zerrenda. Hauek dira aurkeztu diren alderdiak herriz herri: Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan, EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin koalizioa eta PP; Oñatin eta Aramaion, EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta PP; Eskoriatzan, EAJ, EH Bildu, Elkarrekin koalizioa eta PSE-EE; Elgetan eta Antzuolan, EH Bildu, EAJ eta PSE-EE; eta Leintz Gatzagan, L.G. Hautesleen Taldea. Zerrenda horietatik hamar dira emakumezko alkategaiak eta 24, gizonezkoak.

Gaur egun, alkatezeari dagokiez, EH Bildu da nagusi bailaran, alkatezak bost herritan baititu –Bergaran, Oñatin, Antzuolan, Aramaion eta Elgetan–. EAJ, aldiz, Arrasaten –PSE-EEekin Udal Gobernuan–, Aretxabaletan eta Eskoriatzan dago alkatez. Gatzagan, berriz, L.G. Hautesleen taldea dago Udalean. Azken agintaldian alkate izan diren etatik lauk errepikatuko dute: Arrasateko Maria Ubarretxena, Bergarako Gorka Artola, Oñatiko Izaro Elorza eta Eskoriatzako Joserra Zubizarreta aurkeztu dira beste urte batez euren alderdietako zerrendaburu. Alkatezta duten alderdiek gainerako herrietan zerrendaburu berriak dituzte.

Alkategaiaren erakargarritasunak, herriarekiko duen gertutasunak edo bestelako faktoreek eragina izan dezakete herritarren botoa emateko orduan. Elena Laka abokatuak dio "erakargarritasun" hori ikusten dela eguneroko jardunean, azken lau urteetan egindako lanean edota hautagai edo zerrendaburu berriek duten profileen. Hala ere, egiten diren debateak ere garrantzitsuak izan daitezkeela dio: "Batzuetan, alderdi politikoek siglek pisu

## BATZAR NAGUSIETAN, DEBA-UROLA BARRUTIAN, HAMALAU DEBAGOIENDAR

handiagoa izango dute, baina, siglaren barruan ere, hautagaiak zure gustukoa izan behar du".

## Debagoieneko batzarkideak

Udal hauteskunderi gain, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusietarako eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak ere egingo dira. Gipuzkoako Batzar Nagusietan lau barruti ezberdintzen dira eta 51 batzarkide aukeratuko dira, guttira: Donostialdean, hamazazpi; Deba-Urolan, hamalau –Debagoiena hor sartzen da–; Bidasoa-Oiartzunen, hamaika; eta Orian, bederatzi. Gipuzkoan zazpi zerrenda aurkeztu dira –EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin koalizioa, PP, STOP eta Aulki Zuriak–, eta Deba-Urola barrutian alderdi guztiek dute hautagaitza, Aulki Zuriak-ek izan ezik.

Bestalde, Deba-Urola barrutian aurkeztu diren zerrenden artean hamalau debagoiendar daude: EH Bildutik, sei –Aitor Irure aretxabaletarra, Iker Intza bergararra, Nerea Zubia oñatiarra, Amaia Etxabe arrasatearra, Jaxone Giraldo arrasatearra, eta Ainhoa Lete bergararra–; EAJtik, hiru –Aintzane Oiarbide bergararra, Ander Garay arrasatearra eta Maite Agirre bergararra–; PSE-EEtik, bat –Aritz Murua arrasatearra–; eta Elkarrekin Gipuzkoatik, lau –Juan Luis Merino eskoriatzarra, Eva Abuin arrasatearra, Mario Romero arrasatearra eta Blanca Merchan eskoriatzarra–.



## Atzera begira

2011ko udal hauteskundeetan EH Bildu nagusitu zen Gipuzkoan eta Debagoieneko udal guztietan, Elgetan izan ezik; azken horretan Aralar izan baitzen lehenengo indarra. 2015ko udal hauteskundeetan, ordea, aldaketa gertatu zen Gipuzkoan, eta Debagoieneko lau herritan alderdi jeltzalea heldu zen alkatetzara; hain zuzen ere, Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Eskualdeko gainerako herrietan EH Bilduk jarraitu zuen nagusi izaten.

Urte bereko abenduan egin ziren Espainiako Diputatuen Kongresurako hauteskundeak, eta nabarmentzeko herriak dira Arrasate eta Bergara, udalean EAJ izanik, Ahal Duguk eta EH Bilduk jaso zituzten-eta boto gehien, hurrenez hurren. Gai-nontzakoetan, alkatetzarekin bat zitorren alderdiak jaso zituen boto gehien; Gatzagan, EH Bilduk. Espainiako hauteskunde haiek errepikatu egin behar izan ziren 2016ko ekainaren 26an. Arrasaten 2015eko alderdi bera izan zen bozkatuena, baina Bergaran EAJ nagusitu zen, hamaika botoko aldeagatik. Eskoriatzan ere joera aldaketa gertatu zen; 2016an Elkarrekin Ahal Dugu atera zen garaile, EAJren aurretik, hamaiki botoko aldearekin -2015ekoetan hirugarren alderdi bozkatuena izan zen-.

2016ko Eusko Legebiltzarre-rako hauteskundeetan, Debagoieneko herrietan zentratuz, herri bakoitzean alkatetzan zeuden alderdien aldeko botoak nagusitu ziren, Bergaran izan ezik; han EH Bilduk jaso zituen boto gehien, eta, ondoren, 2019ko udal hauteskundeetan ere aldaketa izan zen eta EH Bilduk berreskuratu zuen alkatetza.

2020an pandemia betean egin-dako Eusko Legebiltzarre-rako hauteskundeetan beste aldaketa bat gertatu zen. 2015etik nagusi izan zen EAJk galdu egin zuen, EH Bilduren mesedetan, Arrasaten eta Aretxabaletan. Hortaz, ibarrean EAJ Eskoriatzan izan zen soilik garaile. Aipatzekoa da 2015etik gaur arte egin diren hauteskundeetan eskualdean, orokorrean, EH Bildu izan dela alderdirik bozkatuena.

## Pandemiak bustitako lau urte

Era berean, gogoan izan behar da azken agintaldia pandemiak jotakoa izan dela, baina horrek

ez luke "eragin berezia" izan beharko hauteskundeetan, Lakaren ustez; behintzat, ez zaio hala iruditzen: "Pandemiak, azkene-rako, denean eta denongan izan du eragina. Baina esango nuke pandemiaren kudeaketan gehien esku hartu duen erakundeak ez dela udala. Gorago daudenek eragin handiagoa izan dute".

## Domekan, zer?

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak maiatzean egin eta aurkeztutako inkestako datuen arabera, 2019ko Batzar Nagusietako hauteskun-deekin alderatuta, Gipuzkoan EAJren boto kopurua mantendu egingo litzateke eta boto gehien lortuko litzuke. EH Bilduren boto kopurua, baina, hazi egingo litzateke, PSE-EEren eta Elkarrekin koalizioaren kaltetan. PPren boto kopurua ere igo egingo litzateke. Horren aurrean, Elena Laka abokatuak hauteskunde kanpainan jarri du azpimarra. Haren iritziz, alderdiek oraindik ez dute garbi ikusten emaitza horiek gauzatuko diren edo ez: "Beharbada, hala izango da, baina nik uste dut botoz boto ari direla borrokatzen oposizio-ari botoa kendu nahian eta botoa erabaki gabe duten horiek euren aldera ekarri nahian".

Duela hiru urteko hauteskun-deetan Arrasaten eta Aretxabaletan izandako aldaketaren harira, Lakak adierazi du jendeak "oso garbi" duela hauteskunde bakoitzean nori ematen dion botoa: "Uste dut jendeak oso ondo neurtzen duela botoa hauteskunde bakoitzean, eta, bereziki, neurtze horrek pisu berezia dauka udaletakoetan. Badirudi aldaketa etor daitekeela, baina nik ez nuke eskua sutan jarriko horren alde".

## Kanpainaren balorazioa

Maiatzaren 12an hasi zen hauteskunde kanpaina eta gaur gauerdian emango zaio amaiera. Lakak dioenez, gaur gauera arte borrokatuko dira alderdiak. "Hori inkestek esaten dutena da. Emaitza hain garbi egongo balitz, ez lirakeke ibiliko dabiltzan moduan.

## GOIENAK JARRAIPEN ZABALA EGINGO DIO HAUTESKUNDE EGUNARI BERE EUSKARRIETAN

## Kanpainako azkenak

### EH Bilduren azken ekitaldiak kanpaina amaieran

Hauteskunde kanpaina ixteko ekitaldia egingo dute Arrasateko -Seber Altuben, 18:30ean- eta Elgetako EH Bilduk, gaur. Atzo, berriz, ekitaldia egin zuten Antzuolako eta Bergarako EH Bilduk, bakoitzak bere herrian. Gorka Artolak esker oneko hitzak izan zituen bergararentzat eta boluntario lanetan ibili direnentzat. Halaber, zenbait ekitaldi egin zituzten joan den astean, besteak beste, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako EH Bildukoek.



Debagoieneko EAJren alkatetzaiek, Mankomunitatearen aurrean. GOIENA

### EAJk dio Mankomunitateari bultzada emango diola

Mankomunitatea "paralisitik atera eta proiektu sendoarekin aurrerabidean jartzeko konpromisoa" agertu du Debagoieneko EAJko alkatetzaiek. Hala, Gizarte Zerbitzuen mapa "definitu eta aurrera eramatea", Turismo Plana martxan jartzea, herri guztiak "bidegorri sare duinarekin" lotzea eta Garapen Agentziari bultzada ematea nabarmendu dituzte. Hori guztia, "beste kudeaketa eredu batekin" lan egingez.

### Sozialistek arrosak banatuko dituzte Arrasaten

Hauteskunde kanpainari amaiera emateko, gaur, 10:00etatik aurrera, sozialistek arrosak banatuko dituzte Arrasateko Arizmendiarieta plazako azokan. Arrasateko PSE-EEko alkatetza Aritz Murua han izango da, alderdiko beste kide batzuekin batera; tartean, Eneko Andueza, sozialisten idazkari nagusia, eta Rafaela Romero, Mugikortasun diputatua. Era berean, arrosen ekitaldia egin dute zenbait kidek asteon Bergaran.



Elkarrekin koalizioa zenbait kide, domekan, Arrasaten. I.A.A.

### Elkarrekin koalizioaren ekitaldi nagusia, Arrasaten

Joan den domekan, ekitaldi politikoa egin zuen Elkarrekin koalizioak Arrasateko Biteri plazan. Han izan ziren, besteak beste, Arrasateko alkatetza Eva Abuin, Batzar Nagusietako Deba-Urola barrutiko Juan Luis Merino zerrendaburua eta Miren Etxebeste Foru Aldundirako diputatugaia. Zerga-sistema "justu eta progresiboagoa" eskatzeaz gain, Abuinek udal-programak jasotzen dituen hiru ardatzak azaldu zituen.

Uste dut EAJ, PSE-EE eta EH Bildu oso gogor dabiltzala boto bakoitzaren bila", dio abokatuak. Lakak azpimarratu duenez, ia-ia urte hasieran hasi zen kanpaina, nahiz eta formalki botoa ezin den eskatu azken hamabost egunera arte. Nabaritu du aldaketa urtarriletik hona: "Azeleragailua hauteskunde kanpainan sakatzen da, eta indar handiena orduan hasten da".

Aurtengo hauteskundeetako era ohi bezala hasi dela iruditzen zaio abokatuari: "Urtarriletik hona gutxika-gutxika joan dira, eta momentu honetan azelera-gailua guztiz sakatuta daukate alderdi guztiak. Hasieran norbere tesiak defendatzen bazituen ere, denak sartu dira lokatzetan eta denek ekin diote ondokoa deuseztatzeari, ahalik eta boto gehien lortzeko. Gainera, kanpoko faktoreak ere badaude, eta honetan ere egon da. Adibidez, EH Bilduko zerrendetako preso ohiena. Hala ere, gutxi eragin duela esango nuke".

Gogoeta-eguna izango da bihar, eta domekan norberak izango du datozen lau urteetako etorkizun politikoa hautatzeko aukera. Hortaz, herri bakoitzean eta Batzar Nagusietan gertatuko dena jakiteko domeka gauera arte itxaron beharko da.

## Goiena hauteskundeetan

Goiena Komunikazio Taldeak jarraipen gertukoena, uneorokoa eta zabala egingo dio domekan hauteskunde egunari, *Goiena.eus*-en, Goiena telebistan eta GOIENA aldizkarian, goizean goizetik, hauteslekuak irekitzen dituztenetik. Goiena telebistak zuzeneko saioa eskainiko du 19:45ean hasita, Txomin Madinak eta Goiatz Aranek aurkeztuta, eta Elena Laka izango da platonko kolaboratzailea. Gainera, berriemaitzak Debagoieneko herri guztietan egongo dira, azken berriak zuzenean kontatzeko lekutik bertatik. *Goiena.eus*-en emaitzak zuzenean emango dira, botoak zenbatzen joan ahala.

Bestetik, GOIENA aldizkariak zortzi orriko zenbaki berezia argitaratuko du biharamunean, hauteskunde egunak emandako datu guztiekin. Egunkari-saltokietan, okindegietan, kafetegietan eta beste hainbat toki publikotan eskuratuko ahalko da, doan, lehen orduan. Gainera, Goienakideek etxean jasoko dute.

# Lurralde Plan Sektorialak bost herritan zehazten ditu zentralak

Jaurlaritzaren planak EAeko 57 udalerrri aukeratu ditu zentral eolikoak egiteko eta 53 gune plaka fotovoltaikoak jartzeko. Bestalde, ikusgai dago Statkraft proiektua

**Xabier Urzelai** ARRASATE  
Eusko Jaurlaritzak Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala onartu berri du. Plan horrek, funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoko 57 udalerritako mendiguneak aukeratu ditu zentral eolikoak egiteko eta beste 53 gune, berriz, plaka fotovoltaikoak jartzeko. Eta egitasmo horrek Debagoieneko hainbat udalerriri eragiten die. Zehazki, Antzuolari, Aramaiori, Eskoriatzari, Leintz Gatzagari eta Oñatiri.

**"Kokapen egokia dute"**  
Arlaban, Elgeamendi, Gatzagain, Isuskizta, Durakogain, Larrangoiti, Trango eta Naparbaso dira planak jasotzen dituen bailarako guneetako batzuk, eta, Jaurlaritzaren arabera, lurraldearen gaineko egokitasun "altua edo ertaina" daukate aukeraturako kokapen guztiek; hau da, urteko haizearen batez besteko abiadura segundoko 6,22 metro da, eta gutxienez bi kilometro luze dira, jarraian edo etenekin.

Jaurlaritzatik adierazi dutenez, proiektu horrekin lortu gura dutena da 2030erako energia berriztagarrien hazkunde handia lortzea, ordurako ezarritako helburuak lortzeko. Hain zuzen, urte horretan energiaren bukarako kontsumoaren %21 berriztagarrien bidez lortzea da asmoa –gaur egun %10ekoa da–. Plan sektorialak eskala handiko parkeak soilik aurreikusten ditu, 30 megawatt baino potentzia handiagokoak eta bost haize errota baino gehiagokoak. Kontuan hartu behar da, gainera, 50 megawatt baino potentzia handiagoa dutenak Espainiako Gobernuak kudeatzen dituela.

Hala, plan sektorialak jasotzen dituen kokapenak balizkoak dira oraindik, ez dira behin betikoak, eta udalek zein herritarrek 45 eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko eta ekarpenak egiteko. Planoak *euskadi.eus* atarian daude ikusgai (Lortura zuzena, *goiena.eus* atarian).

**Itsaraz proiektua ikusgai**

Bestalde, Statkraft enpresak esku artean duen Itsaraz proiektua ikusgai dago, eta, Norvegiako enpresatik adierazi dutenez, inpaktuaren gaineko azterlana ere ikusgai dute –*statkraft.es*–. Diotenez, asmoa da urtero 44.110 familia inguru "energia garbiz eta autoktonoz" hornitzea, eta aurreikuspena da parkea 2026-2027 urteen artean eraikitzea. Jakinarazi dutenez, kalitate akustikoaren gaineko kontrola egingo dute parkeak eragina izango duen bi herrietan, eta fauna eta begetazioa behatuko duen talde

**2030ERAKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HAZKUNDE HANDIA LORTU NAHI DU EUSKO JAURLARITZAK**

**ULMA C y E.S. Coop. - Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA**

Eguna: 2023ko ekainaren 2a  
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena  
Lekua: Zubikoa kiroldagiko frontoia - Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENTA**

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GESTIO PLANA ETA 2023-2025KO PLAN ESTRATEGIKOA BERRISTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
  - 4.1. 2022ko ekitaldiako Urteko Banskako Kontuak aztertzea eta onartzea, hala badagokio
  - 4.2. 2022ko ekitaldiako Urteko Kontu Bateratuak aztertzea eta onartzea, hala badagokio
  - 4.3. 2022ko ekitaldiako informazio ez-finanzario bateratuaren egoera aztertu eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPTALAREN ORDAINKETA, 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2022KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, HAUEK ALDATZEA: (I) POGU III-KO IL. TITULUAREN 1, 4.2 ETA 4.4 ATALAK ETA III. TITULUA, BAI ETA ESTATUTU SOZIALETAKO 31.11.1N) ARTIKULUA ETA LEHEN ETA HIRUGARREN NEDAPIEN GEBIGARRIAK ERE, KOOPERATIBA MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA, SOZIEDATE ZIBILEAN BAJA EMATEAGATIK ETA HORREN ONDORIOZ KOOPERATIBEN ARTEKO HENANTZA TRETSSEN ARAUAK GARATZEAGATIK; ETA (II) ESTATUTU SOZIALETAKO 52. BOST ARTIKULUA, KAPTAL-SOZIALERAKO EKARPENEN MUGAPENARI BURUZKOA, ETA BARNE ARAUDIKO 16. ETA 20. ARTIKULUAK, BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA, ARAU TESTUAREN ARGITASUNA ENDAKTZEKO ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIBITARA EGOKITZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMA-N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
  - 9.1. 2022an ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
  - 9.2. 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatutako proposamena
  - 9.3. ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKekin erantutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
  - 9.4. ULMA Fundazioak 2023rako aurreikusitako jardura sozialaren ildoen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPTALERA EKARPENAK
11. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHIENDAKARIA IZENDATZEA
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
13. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
14. KONTSEILU SOZIALERAKO KIDEAK BERRITZEA
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
16. AHALMENAK ESKUORDEITZEA
17. GALDE-ESKEAK

**OHARRAK:** Batzari proposatzen zaie Kooperatibaren egintza eta inbentario edozein dituzela orain lehenik, informazio ez-finanzarioaren egoera berria jasotzen duen lehiandakariaren, emaitza aplikatutako proposamena eta lehenik lehenik lehenik egindako gutxi txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren egun nahar artean ahal izan dituzten. Hala ere, batzari gutxi jakinarazten zaie Kooperatibaren egintza eta inbentario dituzela edozein inbentario, Kooperatibaren Berez Arantza eta POGU IIIko proposatutako deialdiaren gutxi txostena eta deialdiaren lehen jokoaren txostena, eta hori duen emaitza eta lehiandakariaren deialdiaren.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
Oñati, 2023ko maiatzaren 16a

**ULMA Medical Technologies S. Coop. - Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA**

Eguna: 2023ko ekainaren 1a  
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena  
Lekua: ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENTA**

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GESTIO PLANA BERRISTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPTALAREN ORDAINKETA, 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2022KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
8. JARDUERA SOZIALA ULMA-N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
  - 8.1. 2022an ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
  - 8.2. 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatutako proposamena
  - 8.3. ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKekin erantutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
  - 8.4. ULMA Fundazioak 2023rako aurreikusitako jardura sozialaren ildoen azalpena
9. BAZKIDE BERRIEN KAPTALERA EKARPENAK
10. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
11. AHALMENAK ESKUORDEITZEA
12. GALDE-ESKEAK

**OHARRAK:** Batzari proposatzen zaie Kooperatibaren egintza eta inbentario edozein dituzela orain lehenik, informazio ez-finanzarioaren egoera berria jasotzen duen lehiandakariaren, emaitza aplikatutako proposamena eta lehenik lehenik lehenik egindako gutxi txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren egun nahar artean ahal izan dituzten. Hala ere, batzari gutxi jakinarazten zaie Kooperatibaren egintza eta inbentario dituzela edozein inbentario, Kooperatibaren Berez Arantza eta POGU IIIko proposatutako deialdiaren gutxi txostena eta deialdiaren lehen jokoaren txostena, eta hori duen emaitza eta lehiandakariaren deialdiaren.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
Oñati, 2023ko maiatzaren 17a

batek jarraipena egingo du hamabost egunean behin. Gainera, gaineratu dute lehendabiziko fasea amaitzen denean "kaltetutako lurraz zaharberritu" egingo direla eta ereite hidraulikoa egingo dela.

Bada, Statkraftetik neurriak proposatu dituzte "proiektuaren ingurune naturala zaintzeko eta, ahal den neurrian, aberasteko, gizakiaren edozein esku-hartzek eragina duelako ingurunean". Horretarako, berriztapen eta birlandatze plan bat aurkeztu dute. Bi atal izango ditu, eta neurrien artean dago, esate baterako, "fruituak emateko gaitasun handia duten arbola eta zuhaixkak landatzea". Faunari lotutako hobekuntzei dagokienez, berriz, gordeleku artifizialak eraiki nahi dituzte, narrastien eta anfibioen garapena hobetzeko putzu berriak egiteko asmoa dute, eta animalientzat baita askak prestatu ere. Horrez gain, hegaztien populazioari zuzendutako neurriak ere badituzte; adibidez, saguzarrentzat aterpeak eta aerosorgailuak automatikoki gelditzeko sistema bat.



Mendizale bat, Elgeako mendilerroan barrena, iazko Oñatiko mendi martxan. GOIENA

#### Aramaioko Udalaren haserrea

Aramaioko Udalak ohar bidez salatu du Jaurlaritzak Lurralde Plan Sektoriala maiatzaren 11n onartu izana; alegia, udal eta foru hauteskundeak gainean daudela. Eta azken asteetan parke eolikoaren bueltan jasaten

### ARAMAIOKO UDALAK OHAR BIDEZ SALATU DU JAURLARITZAK PLAN HORI ORAIN ONARTU IZANA

ari diren "erauntsia" ere salatu dute. Adierazpenean diote ez duela "izenik" plan sektoriala orain aurkeztu izanak: "Udalek 4 urteko zikloa amaitu eta berria hasiko duten honetan, alkate eta zinegotzi aldaketa fasean, hau aurkezteak ez dauka ez hankarik ez bururik, eta herritarrek beraien udalerriko instituzioen bidez edozer esan edo alegatzeko aukerak asko murrizten ditu".

Horrez gain, Aramaioko kasua deigarria egin zaie: "Enpresa konketu batek egin nahi duen

parke eolikia bere horretan jasotzea lurralde antolamenduan. Eusko Jaurlaritzak zer egin du, enpresen araberako lurralde antolamendu bat? Alde horretatik, gure ustez, lurralde antolamendu batek gauza asko hartu behar ditu kontuan, eta ez

### PLANARI BEHAR BESTE ALEGAZIO AURKEZTUKO DIZKIOLA ADIERAZI DU ARAMAIOKO UDALAK

soilik enpresa baten edo besteren interesak".

Aramaioko Udalak nabarmendu du herritarren iritzia jasotzeko hasita daukan prozesua bukatuko duela: "Udalak Aramaioko herriaren eta herritarren interesak eta ongizatea babesteko, juridikoki eta teknikoki dena aztertzen ari dela eta behar beste alegazio tekniko egingo dituela adierazten du".

**Eva Fjellheim Aramaion izan da** Gaiarekin lotuta, Norvegiako sami herriko ordezkari Eva Fjellheim Aramaion izan da berbaldia egiten. Samiek denbora daramate euren bizimodu tradizionala kolokan jartzen duten proiektu eolikoaren aurka borrokan. Hain zuzen, 2021eko urrian Norvegiako Auzitegi Gorenak ebazti zuen, besteak beste, Statkraft enpresa egiten ari zen Fosen Vind zentrala osatzen duten sei proiektutatik bik Fovsen Njaarkeko sami elur-orein artzainen eskubideak urratzen dituela. Epaia irmoa izan arren, aerosorgailuak ez dituzte eraitsi; are gehiago, normaltasun osoz ari dira funtzionatzen.

Aurrera, batera!

Arrasate

Bozkatu

eaj

PNV

MARIA UBARRETXENA CID

Arrasateko alkatezaroko hautogaila

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA

Gipuzkoako diputatu nagusiaroko hautogaila

eaj-pnv.eus

# Bergararik Gasteizera, pentsio "duinen" alde

Maiatzaren 22tik 25era bitartean Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak hiru eguneko martxa antolatu du Euskadiko hiru lurraldeetatik Gasteizera. Hantxe, zutabeak batu eta manifestazioa egin dute: Legebiltzarrerara joan dira

**Miren Arana Pagaldai** DEBAGOIENA

Hiru zutabetan banatuta, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendukoak Eusko Legebiltzarrerara joateko martxa abiatu ziren maiatzaren 22an, 1.080 euroko pentsioa aldarrikatzeko. Probintzia bakoitzak zutabe bat antolatu, eta maiatzaren 25an Gasteizen elkartu ziren guztiak: Aguraindik, Bilbotik eta Bergararik irten ziren taldeak, hiru eguneko zeharkaldia egiteko asmoarekin, eta Iparraldeko Gizartetxean bildu ziren, manifestazioan elkarrekin Legebiltzarrerara joateko.

Martxaren lehenengo egunerako beteta zeuden eguneari Gasteizko manifestaziora abiatuko ziren ia autobus gehienak; hamabost, guztira. Manifestazioa goizeko hamaiketan irten zen martxa egin zutenekin eta autobusean bertaratutakoekin.

*Gutxieneko pentsioa 1.080 euro, hemen eta orain* lelopean, pentsioak ordaintzeko Gobernuak gutxieneko hori ezartzea aldarrikatzen dute. Donostiatik joan den Arantxa Aldanondo erretiratuak Bergaran aipatu zuenez, bost urte daramatzate 1.080 euroak eskatzen, eta, aurten %5 eta %7 bitartean igotzea lortu duten arren, "egunetik egunera zailagoa da erosketak egin eta bitzitza duina izatea".

## Bidezko pentsioa

Espainiako Gobernuak martxoan onartutako pentsioen erreformen arabera, 2027. urterako jasoko lukete erretiratuak 1.080 euroko pentsio minimoa, igoera progresiboa adostu baitzuten. Erretiratuak, baina, ez dira horrek in konformatu eta aldarrikapenekin jarraitu dute. "Milaka lagun daude 700-800 euroko pentsioen azpitik, gehienak emakumeak; 1.080 eurora iristea bidezkoa dena da, eta genero arrakalan izugarriko eragina izango



Bergararik irtendako pentsiodunak Leintz Gatzagan. EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNAK

## "1.080 EURORA IRISTEA BIDEZKOA DA ETA GENERO ARRAKALAN IZUGARRI ERAGINGO LUKE"

luke", adierazi zuen Joxean Ugarteburu antzuolarrak.

## Bidean zehar, askotarikoak

Gipuzkoako martxa Bergararik abiatu zen astelehen goizean. Bertso eta txalaparta saioen ostean, Bergarako San Martin plazatik irten ziren, eta gaua Eskoriatzako kiroldegiko gimnasioan eman zuten. Jubilatuen etxean afaldu eta gosaldu zuten, eta berehala abiatu ziren herri-tik. Hala, 12:15 aldera, Gatz Bidetik iritsi ziren Leintz Gatzagako Gatz Museora; han, mu-seoko arduradun Aitor Larrañagak tokia erakutsi zien eta "modu alai eta atseginean" zehaztasun guztiak eman zituen.

Ordu biak aldera, herritarrek ongietorria egin zieten, zenbait suziri botaz, eta 33 ibiltari pentsiodunei bazkaria eskaini zieten hango frontoian. Laurak inguru

irten ziren Landa aldera, Dorleta Santutegitik pasatuz Arlabango errepedetik, eta trenbide zaharretik iritsi ziren Landara, sei-tan, gutxi gorabehera. Elizako arduradun Marian Oleagak ongietorria egin eta oheak prestatu ostean, Etxe Zuri jatetxerantz abiatu ziren, eta han afaldu zuten.

Martxan parte hartu duten pentsiodunek ondorio onak at-tera dituzte ibilaldiko egunen gainean, eta herri askotako zinegotzi eta alkateak at-tera direla aipatu dute: "Herriko jendea hurbildu da, zutabeak osorik daude eta ez dute inolako arazorik izan". Hego Euskal Herrian, legez, 1.080 euroko pentsioa izateko "oinarrizko lege bat landu beharra" dagoela ere gaineratu zuen martxan parte hartu duen Iñaki Helduainen erretiratu tolosarrak.

## Gasteiz, helmuga

Aldarrikapena "lau haizeetara" zabaldu dute. Egunetik egunera, oinezkoek, haien aldarria zabaldu dute, herriz herri. Behin Gasteizen, zutabeak bat eginda, manifestazioa egin zuten atzo goizean.

## Gipuzkoako garbiketa alorreko langileak greban daude

Maiatzaren 22an greba hasi zuten Gipuzkoako garbiketa alorreko langileak, ELAk deituta. Lehenago, maiatzaren 15ean, Aretxabaletan, Copreci enpresaren parean egin zuten elkarretaratzea langileek; %55eko ordezkariarekin. Oñatiko Natra eta Aretxabaletako Copreci zentroetako grebalaria ordezkatuak izan direla salatu zuten,

eta ELAk gaineratu zuen garbiketa sektore feminizatu eta prekariora dela.

"Negoziazio mahaia blokeatuta" dagoela esanda, lau eskari egin zituen ELA sindikatuak: galdutako erosahalmena berreskuratzea, partzialtasunaren aurkako klausula bat egitea, lan-kargen erregulazioa, eta, bukatzeko, plus bat enpresa berean lantoki batean baino gehiagotan daudenezat. Gainera, sektorearen %40,46ko arrakala amaitzea ere aldarrikatu zuten.

ULMA

BATZAR NAGUSIA 2023

ULMA Packaging S. Coop. - Oñati

## OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2023ko ekainaren 2a  
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena  
Lekua: Zubiteko kiroldegiko frontoa - Oñati (Gipuzkoa)

### GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO EKITALDIKO GISTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GISTIO PLANAREN BERRIKETA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TOSTENA
4. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
  - 4.1. 2022ko ekitaldioko Urteko Banakako Kontuak aztertzea eta onartzea, hala badagokio
  - 4.2. 2022ko ekitaldioko Urteko Kontu Berezak aztertzea eta onartzea, hala badagokio
  - 4.3. 2022ko ekitaldioko informazio ez-finanzario baretzaren egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2022KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
  - 7.1. 2022ko ekitaldioko emateak banatzea
  - 7.2. Borondateko Erreserba Fondoko banatzea
8. HALA BADAGOKIO, HAUEK ALDATZEA: (I) POGU III NO IL TITULUAREN 1, 4.2 ETA 4.4 ATALAK ETA III TITULUA, BALI ETA ESTATUTU SOZIALEKO 31.BEN) ARTIKULUA ETA LEHEN ETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK ERE, KOOPERATIBA MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA, SOZIALATE ZIBILEAN BALI EMATEAGATIK ETA HORREN ONDORIOZ KOOPERATIBEN ARTEKO ENANTZIA TRESNEN ARAUAK GARATZEAGATIK; ETA (II) ESTATUTU SOZIALEKO 52. BOST ARTIKULUA, KAPITAL SOZIALEKO EKARPENEN MUGAPENARI BURUZKOA, ETA BARNEN ARAUDIKO 16. ETA 20. ARTIKULUA, BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA, ARAU TESTUAREN ARGITASUNA ENDAKTZEKO ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUZEN PREMETERIA EGOKITZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMA N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENARI BURUZKOA, ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
  - 9.1. 2022an ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako enbilerari buruzko deskargua
  - 9.2. 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
  - 9.3. ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKekin eratu-tako fondoazentzat aurrikusitako aplikazioa azaltzea
  - 9.4. ULMA Fundazioak 2023rako aurrikusitako jardura sozialaren ildoen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. KONTSEILU ERREKTOREKO LEIENDAKARIA IZENDATZEA
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
13. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
14. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
16. AHALMENA ESKURDEZTEA
17. GALDE ESKEAK

OHARRAK: Batzari proposatzen diren Kooperatibaren egoera eta inbentarioa emateko fitxak eta beste informazio ez-finanzarioaren egoera baretza jasotzeko fitxa bidaltzeko modua, emateko aplikazioaren proposamena eta kontu-laneko kontuak egiteko gaitasuna, Batzar Nagusiaren deialdiaren egun jakin arte ezin dira ezarri.

Hala ere, bazkide guztiak jakinarazten diren Kooperatibaren egoera eta inbentarioa emateko fitxak emateko fitxak, Kooperatibaren Baretza Arloko eta POGU IIIaren proposatutako aldatutako fitxak eta aldatutako baretza fitxak bidaltzeko modua, eta hori duen emateko eta bidaltzeko eta fitxak.

KONTSEILU ERREKTOREA  
Oñati, 2023ko maiatzaren 9a

# BERGARAKO JAIAK GOIENAN



## 'HEMEN DEBAGOIENA' JAIETAN

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**  
MAIATZAREN 26AN, EGUBAKOITZEAN, 19:30EAN HASITA  
BERGARAKO JAIEN HASIERA SAN MARTIN PLAZATIK

**ZUZENEKOA**



## KUADRILLEN ARTEKO XIII. OLINPIADAK

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**  
MAIATZAREN 29AN, ASTELEHENEAN, 12:00ETAN HASITA  
SAIOA ZEZEN-PLAZATIK

**ZUZENEKOA**



## 'HEMEN DEBAGOIENA'

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**  
MAIATZAREN 30EAN, 18:00/20:00 ETA 22:00  
BERGARAKO JAI EI ESKAINITAKO SAIOA



## 'JAI AK' SAIO BEREZIA

**BERGARAKO PENTEKOSTEAK**  
MAIATZAREN 31N, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN  
AITOR AGIRIANOK ETA ANDREA GONZALEZEK  
AURKEZTUTAKO SAIOA

**goiena**

Zu hemen zaude.



ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ

## Autogestioa eta udal hauteskundeak

Askoren ustez, autogestioa edozein arlotan –bai enpresan eta baita politikan eta gizartean– aurrerakoa da gizarte hobe eta garatua sortzerakoan. Baina garbi dago guztiak ez datozela bat ideia horrekin gizartea antolatzerakoan.

Alderdi politiko batzuei ez zaie interesatzen pertsonak ahalduntzea eta gizartea garatzea, nahiz eta beraien programa eta asmo politikoetan horrelako zerbait adierazi, baina benebenetan nahiago dute beraien agindu eta gizartea artalde bezala mantendu.

Enpresa munduan ere berdin gertatzen da, eta enpresari gehienei ez zaie interesatzen langileen parte-hartzea propietatean eta irabazietan; eta gestioan ere, maila mugatuak bakarrik. Kooperatibak enpresa autogestionarioak dira, bazkide guztiek parte hartzen dutelako hiru esparruetan. Hala ere, denok dakigu kooperatiba batzuetan gestioan parte-hartze mugatua izaten dela, barneko kulturak ez duelako laguntzen.

### ENPRESARI GEHIENEI EZ ZAIE INTERESATZEN LANGILEEN PARTE-HARTZEA PROPIETATEAN


Autogestioari ikuspegi askotatik begiratu dakioko: enpresan, ekonomian, arlo sozialean, energian... Baina denek oinarri bat daukate: zeuk edo zeure taldeak egitea zeuen kontura, eta inoren menpe egon gabe.

Gaur egun, sarritan entzuten dugu *trantsizio klimatikoa eta energetikoa, ekologikoa edo berdea, trantsizio digitala* eta abar, baina sakoneko aldaketa guztiek autogestioaren erabilpena dakarte, benetako aldaketa nahi baldin badugu lortu. Komunitate energetikoen kooperatibak sortzen ari gara Debagoienean, eta guk geuk sortuko dugu energia eguzki-panelen bitartez eta geuk gestionatu beharko dugu guztia. Zero kilometroko energia erabili gure etxeetan eta enpresetan. Momentu oso garrantzitsuan gaude herritarrak ahalduntzeko. Eta horrela beharko genuke janari kontuan eta produktu eta zerbitzuetan, arazo klimatikoa konpontzeko.

Udalei begira ere talde demokratikoak eta parte-hartzaileak aukeratu beharko genituzke, eta herriaren parte-hartzea bultzatuko dutenak. Bakoitzak ikusi behar du ikuspegi kritikoarekin zein alderdi politikok defendatuko duen herriaren ahalduntzea.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## GUTUNAK

### Txekia eta Estonia

JOSU GARITAONANDIA  
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN  
ARDURADUNA  
BERGARA

Europar gazte gutxi erabakitzen dute nekazaritzatik bizitzea. Janari-burujaletza lortzeko ezinbestekoa da janaria bertan ekoiztea, baina ez da bizimodu erakargarria: ordu asko sartu behar dira eta soldata herrialde horretako batez bestekotik behera dago. Soldatak berdintzeko asmoz, Europatik dirulaguntzak bideratzen dira, baina bi herrialdek bakarrik gairatzen dute batez besteko soldata: Txekiak eta Estoniak.

Erakundeek gauza gehiago egin beharko lituzkete, baina guk, kontsumitzaile bezala, gurea egin behar dugu: bertako produktuak erosi.

### Disdira ile-apaindegiko langileen izenean, eskerrik asko!

MIREN ZUBIZARRETA  
DISDIRA ILE-APAINDEGIAREN IZENEAN  
BERGARA

Gutun honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu Masterrekan obretan lanean aritu diren Zubieder enpresako langileei eta arduradunei. Horrelako obra handiek eragin zuzena dute gurea bezalako denda txikien egunerokotasunean. Baina

obra amaitu da eta oso eskertuta gaude prozesu osoan zehar gurekin izan duzun jarrera, ardura eta dedikazioagatik.

Behar diren neurriak hartu dituzue unean uneko kaltea gutxitzeko. Gure jarduerarekin eragin handiko unek kontuan hartuta, sarrera eta irteera ahalik eta irisgarrien jarriz, besteak beste. Adinez nagusi diren bezeroek ere askotan esan digute bertako hainbat langileren laguntza izan dutela sarrera-irteeretan. Eta horrek lagundu eta lasaitu egin ditu bezero asko.

Eskerrik asko, obra bera egiteko modu desberdinak daudelako. Plazera.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
EGOITZA NAGUSIA  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.500 ale  
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:  
Zero Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK

Arrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaArexabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



## BERBAGAI

# "Autismoa gertu bizi arte, ez zaio inportantziarik ematen"

JUAN RAMON BROSA GAUTENAKO FAMILIA ZERBITZUEN LAGUNTZA ARDURADUNA

**Iñigo Barrena Kortabarría** ARRASATE Autismoaren Espektroko Nahasmena duten pertsonen senideen Gautena elkarteko kide da Juan Ramon Brosa, eta familia zerbitzuen laguntza arduradun kargua dauka bertan. Arrasate eta Aretxabaletan hitzaldiak egin dituzte autismoaren errealitatea erakusteko.

**Zein da autismoaren gaur egungo egoera?**

Geroz eta gehiago ezagutzen dugu eta gizartean ere informazio gehiago dago gaiaren inguruan. Medikuek ere geroz eta gehiago dakite, eta horrek diagnostikoa geroz eta azkarragoa izateko aukera ematen du. Gainera, prozesua azkartu egin denez, gurera etortzen direnak ume txikiak izaten dira asko; eta, era berean, kasuek ere gora egiten dute. Bata bestearekin lotuta doaz.

**Beharrezko garrantzia ematen zaio gaiari?**

Orokorrean, horrelako kasuei, gertutik bizitzen diren arte, ez



Juan Ramon Brosa. JUAN RAMON BROSA

zaie garrantzirik ematen.

Esaterako, elikadura-nahasmena duen pertsona bat alboan izan arte ez zaio garrantzirik ematen, eta oso larriak izaten dira kasu asko. Aldi berean, egia da gizarteari

ezin diogula eskatu gauza guztiez arduratzeko; eskatu ahal dugun gauza bakarra da horrelako egoerak daudela onartzeko eta, pertsona hauek, laguntza behar dutela jakitea.

**Ezjakintasuna dago gizartean gai horri buruz?**

Gaur egun, oraindik ere, autismoa haurrekin erlazionatzen eta irudikatzen du jende askok. Helduekin lotutako autismoa ere existitzen da, baina erabat ezberdina da. Egia da informazioa orokorrean hobetu egin dela, eta horri esker jendeak badaki, esaterako, autismoa duen pertsona batek ikasketak normaltasunez burutu ditzakeela. Hori gertatzen da gizartean autismoa duten pertsonak ikusten dituztelako. **Nola jokatu behar da autismoa duen pertsona batekin?**

Aipatzen ari gara normaltasun osoz tratatu behar ditugula, baina, horrez gain, bi ildo nagusi daudela esango nuke: alde batetik, autismoa duen pertsonari tresnak eman behar zaizkio inguruan duen jendea, gizartea eta gizartean planteatzen diren egoerak hobeto uler ditzan; baita haren gaitasunen lanketa bat egitea ere. Eta horretarako prestatu egiten dira. Beste lan-ildoak inguruan dituen pertsona eta kolektiboekin zerikusia dauka. Besteak beste, familian, lagun artean eta eskolan dagoen egoeretan jendearen jarrera ona izatea

ezinbestekoa da autismoa duen pertsona hori ulertu ahal izateko eta laguntzeko. **Kontzientziario lana egin beharra dagoela uste duzu?**

Bai, noski. Sentsibilizazio lana eta informazioa helarazteko lana beti egin behar da, eta inoiz ez da nahikoa. Adibidez Arrasaten egin duguna bezalako hitzaldian ezinbestekoak dira, guraso asko egin daitezkeelako horrelako egoera batean eta ez dakitelako nola jokatu. Elkarrizketak eta antzerakoak ere oso garrantzitsuak dira, beti egongo delako kuriositatea duen norbait irakurriko duena eta interesa piztuko diona.

**Zeintzuk dira etorkizunera begira eman beharreko pausoak?**

Oso zaila da etorkizuna irudikatzea. Haurrak zenbat eta txikiagoak direnean, zenbat eta gehiago lagundu, ondoren, helduak direnean, orduan eta laguntza gutxiago beharko dute. Uste dut horretan baliabideak geroz eta lehenago jartzen baditugu denontzat inbertsioa dela. Era berean, zenbat eta gehiago normalizatzen badugu gaia, orduan eta aukera gehiago izango dira autismoa duten pertsonentzat; lanean edo aisialdian, adibidez.



## Realaren eta Sevillaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Sevilla norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida ekainaren 4an, 19:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: maiatzaren 29a

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak antolatuta egindako liburu azoketako bat. AED ELKARTEA

## AEDren 40 urteko bidea, erakusketa batean jasota

Azaroaren 29an 40 urte beteko ditu Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak, eta, horren harira, 'AED, 40 urte Arrasate euskalduntzen' izeneko erakusketa zabalduko dute Kulturateko klaustroan ekainaren 1ean; bisita gidatu irekiak egingo dituzte

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE 40. urteurrena merezi duen moduan ospatzeko asmotan dira AED elkarteak kideak. eta dagoeneko hasi dira horretan. Izan ere, prest daukate elkartearen ibilbidea laburbiltzen duen erakusketa. "Elkartearen urteurrena aukera aproposa iruditu zaigu herritar guztiei, oro har, baina, batez ere, belaunaldi gazteenei zein euskarara hurbildu berriei euskara elkartearen mugimendutik Arrasate euskalduntzeko egin dugun lanaren berri emateko", diote elkartetik.

Ekainaren 1etik 22ra arte egongo da ikusgai erakusketa, Kulturateko klaustroan, ohiko ordutegian. Inaugurazioa hilaren 1ean egingo dute, 19:00etan, klaustroan bertan. "Hara gonbidatzen ditugu urte hauetan guztietan bidelagun izan ditugun erakundeak eta herritarrak".

### Bi atal nagusi izango ditu

Erakusketak bi atal nagusi izango ditu: batetik, 1983an AED

eratu zutenetik elkartearen eta elkarteak lantalde gisa sortutako beste elkartearen bilakaera jasoko du, askotariko panelen eta argazkien bitartez.

Bigarren atala, aldiz, 40 urteotan egin dituzten ekintzak iragartzeko prestatutako dozenaka kartelek osatuko dute, "elkartearen lanaren erakusle ez ezik, kartelgintzan gertatu den bilakaeraren eredu ere izango dena".

Halaber, Udal Bibliotekak AEDri eskainiko dio lehen solairuko *Interes-gunea* deiturikoa. Han, AEDri buruzko dokumentuak, elkartetik sortutako argitalpenak zein Arrasateko euskarari eta toponimiari buruzko lanak jarriko dituzte, besteak beste, herritarren eskura.

**EGUENEAN INAUGURATUKO DUTE, KULTURATEKO KLAUSTROAN, 19:00ETAN HASITA**

Erakusketaren baitan, bisita gidatu irekiak eskainiko dituzte ekainaren 6an, 13an eta 20an, 18:30ean. Era berean, taldeentzako bisita gidatuak egiteko prest ere azaldu dira elkarteak kideak. Bisita horiek jasotzeko, baina, izena eman beharko da aurrez, [aed@aedelkarkea.eus](mailto:aed@aedelkarkea.eus) helbidera idatzita edo 943 77 12 28 zenbakira deituta.

### Materiala salgai dute

Urteurrenako materiala ere salgai dute dagoeneko, *Egindakoaz harro, goazen haratago!* leloa ardatz hartuta: heldu zein umeentzako kamiseta teknikoak, poltsak eta ur-botilak. Eguenetan eta egubakoitzean Portaloian jarriko dute mahaia, 18:00etatik 20:00etara, eta online erosteko aukera ere badago (Informazio gehiago, [Goiena.eus-en](http://Goiena.eus-en)).

**Udazkenerako, egitarau oparora** Hainbat ekintza prestatzen ari dira, eta inaugurazioan egingo dute horien aurrerapen bat.




NATURAN JOLASEAN

## 70 haur naturan jolasean

Leintz Eskola Kirola, Besaide Mendi Elkarkea, Gaztetxeko Guraso eta Haur Asanblada, Udako Ingurumen Eskola, [Guraso.eus](http://Guraso.eus), Naturtzaindia eta Txatxilipurdi eragileek Naturan Jolasean ekimena gauzatu zuten joan den asteburuan. "Oso pozik" azaldu dira egon den parte-hartzearekin, baina triste, aldi berean, nahi zuten guztia bete ezin izan zutelako, eguraldiagatik.

## Izaro Sanchezena izango da 2023ko sanjuanetako kartela

*Heldu da uda* izenarekin aurkeztu du kartela aretxabaletarrak, eta, lehiaketa irabazita, 750 euroko saria eskuratu du. Kartelaren egileak azaldu duenez, komiki eredu erabili gura izan du, sanjuanetan egiten diren askotariko ekintzak azaleratzeko asmoz: erraldoiak eta kilikiak, San Juan sua eta errementari dantza eta entzierroa.



Sanjuanetako kartela. ARRASATEKO UDALA



## 16.948 arrasatear daude botoa ematera deituta domekan

Etzi, domeka, egingo dituzte udal eta foru hauteskundeak. 16.948 arrasatearrek bozkatu ahal izango dute udal hauteskundeetan eta 16.915ek, berriz, foru hauteskundeetan (Ikus 2. orria). Sei hautesleku izango dira Arrasaten: Arizmendi Ikastolako Jokin Zaitegi gunea; Toki Argi erretiratuen etxea, Kulturate, Santa Teresako institutua, Arrasate Herri Eskolako Erguin gunea eta Etxaluze eraikina. Bost zerrenda egongo dira: EAJ (Maria Ubarretxena), EH Bildu (Maidor Morras), PSE-EE (Aritz Murua), Elkarrekin (Eva Abuin) eta PP (Francisco de Borja).

## OHARRAK

### Dirulaguntza deialdia

Arrasateko Udalaren 27 dirulaguntza eskatzeko epea zabalik da dagoeneko (Ikus [Goiena.eus](http://Goiena.eus)).

### Familia meza etzi

Domekan eukaristia familiarra egingo dute San Juan Bataiatzailea parrokiak, 11:00etan, haur, guraso eta aitona-amonek.

### 1981eko kintada

Irailaren 23an egingo dute, Bergarako Tartufo jatetxean. Izen emateko, 65 euroko ordainketa egin behar da maiatzaren 30a baino lehen honako kontu korrante honetan: ES2330350001580011178691.



EAJko zerrendakideak, Musakolako kiroldegian. ARRASATEKO EAJ

## Kirol instalazioak berritzeko plana aurkeztu dute jeltzaleek

"Azpiegiturak erabat berritu eta kirol taldeak sendotzeko plan aitzindaria" da, Iturripe berrituta hasiko litzatekeena

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Iturriperen birmoldaketa lehenesten du EAJk, "Musakola berritzen hasten denean kirola egiteko kiroldegia izan ahal izateko". Iturripen, kirol instalazioen barruan, bi kantxa, padeleko bi pista, makinaren gimnasio bat eta erabilera askotariko hiru areto egongo lirakeke, eta kanpoaldean, bi frontoi erdi itxi, kirol askotariko bi pista, skate parke bat eta atletismoko pista bat. Azaldu dutenez, 2023 amaieran hasi nahi dituzte lanak.

Jarraian egingo lukete Musakolako kiroldegiko obra. Barruko igerileku handi bat eta txiki bat, spa bat, kanpoko igerileku bat eta berdegune bat, erabilera askotariko kantxa bat eta harmailak, rokodromoa, padeleko bi pista, teniseko bi pista, taberna, tatami espazioa, bost areto balioaniztun, makina-gimnasio bat eta klubetarako beste bat.

Lan horiek 2025ean hasiko lirakeela adierazi dute.

Horrez gain, hainbat eskolako kirol instalazioak hobetuko lituzkete, espazioak hobetzeko helburuarekin, eta Mojategiko atletismo pista eta errugbi zelaia ere berrituko lituzkete, "Arrasaten kirola egin ahal izateko aukera zabalduz, instalazioerik onenekin". 2024 eta 2025 artean egin gura dute hori.

**Kirol taldeak sendotzea helburu** Halaber, kirol elkarteak bizi-berritu, egonkortu eta sendotzeko plan aitzindari bat jarri nahi dute abian. "Herritarren parte-hartzea sustatuko dugu kirol taldeetan, taldeetan errelebo aldaketa sustatu taldeen biziraupena bermatzeko, baliabideak eskaini haien jarduna gauzatzeko, dirulaguntzak %30 handitu eta kirol eskaintza auzoetara eramana".



Maider Morras alkategaia eta zerrendakideak. EH BILDU

## Monterron: haurren, gazteen eta familien aisialdiko topagune

EH Bilduk proposatu du "eraikin historikoak herriarena izaten" jarraitu dezala, "bizirik eta herriari lotuta"

**E.A.B.** ARRASATE

Monterron biziberritu eta ingurunearekin konektatu nahi du EH Bilduk, eta hezkuntzaren eta aisialdiaren inguruko topagune bilakatu. Horretarako, hainbat proposamen dituzte: herriko familiak haurrekin elkartzeko txoko irekia eta 9-12 urte bitarteko haurrentzat aisialdi zerbitzua jartzea; gizarte kohesioa lantzeko urratsak egitea hezkuntza eragilean, elkarrean, familien eta Udalaren artean eta Arrasatek Hezi proiektuaren erdigunea Monterronen kokatzea, "herri hezitzailearen ildoan bidea egiten jarraitzeko". Alboko parkearen balio erantsia ere nabarmendu dute: "Zer hobeto Arrasateko haur eta gaztetxoak naturan jolasean eta natura maitatzen hezteko baina?".

Proiektu horrekin "gizarte kohesioa lantzeko urratsak" egin nahi dituzte, eta, "herriko hez-

kuntza arautu eta ez-arautuko eragilean, elkarrean, familien eta Udalaren arteko elkarlanetik", Arrasaterako proiektu hezitzaileak garatu. "Arrasatek Hezi proiektua berreskuratu nahi dugu. Eremu horretan, besteak beste, Udal Eskola Kontseilua martxan jarri nahi dugu, Arrasateko herri curriculumak ikastetxei eta eragileei zabaldu, hezkuntza teknikaria berreskuratu eta beharrezko eraberritzeak bideratzeko Arrasateko jolasguneen mapa egin".

**EAJrena, beste leku batean**

EAJk Monterronen gauzatzeko proposatu duen proiektua Arrasaterentzat interesgarria izan daitekeela uste du koalizioak. "Hala ere, kokaleku aproposagoak aztertzea planteatu daitekeela uste dugu; Garaia Parke Teknologikoa eta Elmako eraikin hutsa, adibidez".



NIRE USTEZ

KARMELE PEREZ  
LIZARRALDE

## Diagnostikotik mendi tontorrera

Euskararen biziberritzea krisi egoeran dagoela dio hainbatek diagnostia egitean: errotonda edo noria baten bueltakari ari garela, bidegurutze baten edo *impasse* egoeran gaudela, edo Aizkorrikako bidean Urbiako laino artean gelditu garela eta ez dugula ikusten mendi tontorrerako bidea. Azken 60 urteetan egindako lan handia aitortuta ere, ez gara iritsi espero genuen tokira. Aro bat amaitu eta beste bati ekiteko garaia dela diote. Eta proiektzio horiek ari dira lantzen Euskal Herriko hainbat eragile: Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Kontseilua, Topagunea... Eta mugimendu saretua dirudi horrek, zorionez.

Ibilbide horretan, AEDk 40 urte betetzen ditu aurten, 40 urte herriko euskaltzaleak trinkotzen, erabilera suspertzeko programak sortzen, gertuko sareetan komunitatea egiten, dispositibo sozial berriak eragiten – aisialdian, komunikazioan, kultural, gazteekin... –, euskaldunon eskubideak zaintzen... Arrasateko eta Euskal Herriko eragileekin saretuta, aro berrian jarraituko du hiztuna erdigunean jartzen, komunitateko kideak formatzen eta zaintzen, ezagutza eta aktibismoa uztartzen, beste mugimendu sozial batzuekin elkarlana egiten... Ea Udaltzeko tontorrera iristen garen.



**Gualbi**  
aholkularitza  
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com

# "Epikoak dira Mirenek egindako proiektu asko"

LEIRE IBARGUREN IDAZLEA ETA IRAKASLEA

Emakume Txokoak antolatuta, Miren Egiguren bidaniarraren bitzitza eta Venezuelan egin zituen 49 urteak ardatz dituen liburuaz aritu dira Kulturateko Jokin Zaitegi gelan

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE *Petare. Miren Egigurenen puskak* liburuaren egilea da Leire Ibar-guren (Azpeitia, 1979).

**Nor da Miren Egiguren? Nola definituko zenuke?**

Bidaniko baserri batean jaiotako emakume bat da, hamahiru senidetan hirugarrena. Haren haurtzarora eta gaztarora Euskal Herrian igaro osten, 20 urte ingururekin Venezuelara joan zen, lehendabizi misiolari eta gero kooperante. Caracas hiriko auzo txiro batean, Petaren, bizi izan zen urte luzez, eta hango komunitatearekin izugarritzko lana egin zuen.

**Zergatik aukeratu duzu hura?**

Hari buruz entzunda nuen zerbait. Euskal Herritik Venezuelara brigadista joaten zen jende asko bisitan joaten zitzaion. Beraz, banekien han bazegoela emakume euskaldun bat, sekulako lana egiten zuena auzo hartan eta ikuspegi *chavista* zuena. Edozelan ere, liburu hori idazteko ideia etorri zen aurrez idatzi nuen liburutik. Izan ere, *Laura esaten zioten* liburuan Miren Odriozolaren biografia kontatu nuen, hark El Salvador-ko gerran bizi izandako istorioak, besteak beste, Pakito Arriaran arrasatearrarekin batera. Hain zuzen ere, Miren Odriozolaren

txikitako laguna zen Miren Egiguren eta hura aurkeztu gura izan zidan.

**Eta zuk onartu.**

Bai. Tolosara joan ginen, elkar ezagutu genuen eta segituan ikusi nuen bazegoela zer idatzi Miren Egigureni buruz, istorio asko zituela bere baitan.

**Nola laburbilduko zenuke Egigurenek Venezuelan bizi izandakoa?**

Caracas Petare auzoan 46 urte egin zituen eta aurrez beste hiru urte misiolari Guajiran. Epika nabarmenduko nuke nik. Gure kulturaren, gerretan eta gatazka lazgarrietan aurkitu izan dugu hori, baina Mirenek han egin zituen proiektuetako asko oso epikoak dira eta batzuetan kosta egiten zaigu halako tokietan epika hori ikustea.



Emakume Txokoko Esther Lizarralde, ekitaldia aurkezten. E.A.B.

## Solasaldia noka egin dute

Berezitasun bat izan du saioak; izan ere, azken bi ikasturteetan noka sustatzeko lanean ari da Emakume Txokoa, eta, horretarako egiten ari diren tertuliei segida emanez, noka egin dute solasaldia Ederne Epelde kazetariak eta Leire Ibar-guren idazleak.



Leire Ibar-guren, eguaztenean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. E.A.B.

**Nolakoa da Petare auzoa?**

Gogorra. Pertsona bat besoetan hiltzen zaizu tiro bat jota, eta, era berean, okindegi batean emakume bati erditzen lagundu behar diozu. Mirenek, haurtzaindegiak, okindegiak edota botikak eraikitzeaz gain, ur-hornidurak jarri zituen han eta metodo berezi bat asmatu zuen umeei idazten eta irakurtzen erakusteko. Dioenez, haurtzaindegietan, esaterako, umeei hiletak antzeztzen zituzten, hori zelako ikusten zutena. Gaur egun ere, ume haiek sekulako motxilak dituzte eta istorio gogorak gordetzen dituzte haien baitan.

**Bereziki zaurgarriak dira emakumeak han?**

Gehienbat, auzoko emakumeekin egin izan du lan Mirenek, eta, zaurgarriagoak izan arren, aktiboagoak ere badira; neurri handi batean, komunitatearen zaintzaz arduratuagoak.

**Zer ikasi duzu Mirenengandik?**

Haren ezaugarrietatik, sotiltasuna eta soiltasuna azpimarratuko nituzke, gauza gutxirekin

gauza handiak egiteko gaitasuna. Hark ez du teorizatu modu filosofikoan, baina, praktikan, ekintzailea izan da. Guk hemen teorikoki egingo genituzkeen hainbat gauza egin ditu han, hainbeste teorizatu gabe.

**Nolako harrera izan du liburuak?**

Lasaitasun handia hartu nuen harekin kooperante ibilitakoek esan zidatenean haiek ezagutu-tako pertsona ikusten zutela liburuan ere eta Petaren egongo balira bezala sentitu zirela.

**Solasaldi formatuan aurkeztu duzue.**

Nahiago dut horrela. Nik idatzi dut liburua, baina beste batzuek irakurri egin dute eta ez da nire den zerbait. Gainera, Miren Egiguren jende gehiagok ezagutzen du; beraz, haiena ere bada liburua. Emaginekin eta Txalpartarekin elkarlanean sortu dugu eta helburua da emakumeen bizitzaren inguruko iruditegia zabaltzea. Oso ikuspegi murrizta dugu, alde horretatik, eta, apur bat arakatuta, askotariko espe-rientziak dituzten emakumeak daudela ikusten dugu.

## M-28

### Talde "anitzta eta langilea" dutela esan dute sozialistek

PSE-EEK martitzenean egin zuen kanpainako azkenaurreko ekitaldia, Arrasaten, Santa Marinako Agerre plazan, Miguel de los Toyosen babesarekin. Gaur, berriz, Arizmendiarrjeta plazako azokan arrosak banatzen agurtuko dute kanpaina, Gipuzkoako sozialisten idazkari na-

gusi Eneko Anduezarekin, 10:30ean hasita. Johanna Sanchez zerrendakideak azaldu duenez, kanpaina emankorra izan da. "Herritar asko etorri zaizkigu galdezka eta pozik gaude kanpainak eman duenarekin".

Gaineratu du "talde anitzta eta langilea" daukatela, "lanean jarraitzeko gogoz" dagoena. Lehen-tasunei dagokienez, auzo garaie-tarako irisgarritasuna bermatzea azpimarratu du Sanchezek.

## M-28

### "Ez zaitzete etxean geratu"

Elkarrekin koalizioko kideek diote etziko hauteskundeetan lau urte daudela jokoan eta bi aukera bakarrak daudela: "Legealdi honetan daramagun norabide politikoa jarraitu edo aldaketa politikoa. Auzoak politikaren erdigunera ekarri eta zerbiztu publikoak berreskuratzeko aukera gurea da".



ELKARREKIN

# Kluba ziztu bizian dabil hazten, atleten abiaduran

8 eta 70 urte arteko adina dute Arrasate Atletiko Taldeko kideek. Udaberri bete-betean, astebururo dute probaren bat, eta eskola arteko kategorian, esaterako, 30 lasterkari inguru animatzen dira parte hartzera. Federatuak ere txukun ari dira

## Hasier Larrea ARRASATE

122 atleta: 89 eskola arteko kategorietan –benjamin, alebin eta infantiletan– eta 33 federatuta –kadete, gazte, junior, promesa, senior eta master kategorietan–, horixe da Arrasate Atletiko Taldean, gaur-gaurkoz, entrenatzen direnen kopurua. Ia denak lasterkariak dira, baina badaude pertika-jauzilariak ere: "Jaurtilaririk ez, Mojatetik zelaian ezin baita pisua jaurti, belar artifiziala dago eta", zehaztu du Jon Ormaetxeak, klubeko ordezkariak. Eta azpiegiturekin jarraituz, atletismo pistaren egoera eguneratu behar da: "Udala jakitun da gero eta egoera txarragoan



Maiatzeko bigarren asteburuan, Donostian. ARRASATE ATLETIKO TALDEA

dagoela eta premiazkoa dela zoria berritzea; gaur-gaurkoz, obra egiteko baldintza-plegua idatzita dago, baina oraindik ez dugu exekuzioaren datarik".

## Markak hobetzen

Ormaetxeak ez du kexarik, ordea, klubaren elastikoa janzten duten lehiakideei dagokienez. Urru-nera joan gabe, joan den asteburuan lau domina eskuratu zituzten Anoetan (Donostia) jokaturako Gipuzkoako txapelketetan: urrea Aimar Uribetxebarriak 18 urtez azpiko pertika-jauzian, zilarra Aitor Gallekok 20 urtez azpiko 400 metrokoan, eta brontze bana Oihan Zuluetak 20 urtez azpiko 100 metrokoan eta Maia Etxebarriak 18 urtez azpiko 400 metrokoan. Azken hori, gainera, 40 urtean gainditu ez den Arrasateko markara gerturatu da: "Hirugarren denborarik onena lortu du minutu bateko denbora eginda; Rosa Mari Otxandiano eta Matilde Garai bakarrik izan dira gai 400 metroak azkarrago egiteko, 80ko hamarkadan.

Ane Del Fresnok ere, dominarik ez lortu arren, balentria egin

zuen joan den asteko ekitaldi hartan, 100 metroak 12,74 segundotan eginda, 18 urtez azpiko kategorian herriko errekorra berdinu baitzuen.

Indartsu baitabilta denak, baina bereziki emakumeak. Honatx beste datu esanguratsu bat: "Asteburu honetan Donostian, Gipuzkoako absolutuan, lehen aldiz aurkeztuko dugu, 40 urteren ostean, 4x400 errelebo proban parte hartuko duen emakume taldea".

Hemendik eta udara arte asteburu bete-beteak izango dituzte adin txikiko atletek, Espainiako txapelketetarako sailkatzeko hitzordu ugari izango baitituzte lurralde eta erkidego mailan. Eta ez pentsa behin Espainia mailan lehiatzea lortuta apaldu egiten direnik Arrasate Atletikoko lasterkariak. "70 urteko master kategoriako Aitor Eraña, duela bi asteburu, hirugarren geratu zen Santanderren jokaturako maratoni erdian", aipatu du Ormaetxeak.

Gazte zein nagusi, kluba pozik dago taldea egiten ari den denboraldiarekin, "kide guztiak baitabilta hobetzen".

## URIBESALGOKO AZKENEKO ETXEBIZITZAK (San Andres - ARRASATE)

3 logelako etxebizitzak 260.000€-tik + BEZa

SUSTATZAILEA

SALTZAILEA

943 253 821  
info@inmobibai.com  
www.inmobibai.com

Esku-ematea 2024

# Ikasturte amaiera oparoa antzerkilarientzako

Doke antzerki taldeak prest du bederatzigarren obra: 'Hemen ez du inork ordaintzen'. Ekainaren 2an izango da estreinaldia, 19:30ean, Amaia antzokian. Antzerki eskolako haurrak ere buru-belarri dabilta ikasturtean landutakoa taula gainera eramaten

**Hasier Larrea** ARRASATE

Dokeko aktoreek jo eta su dihardute entseatzeko asteotan, estreinaldiz betetako egunak baitauzkate aurretik. Helduen taldeak pandemia osteko lehen obra taularatuko du, 2002an ibilbidea hasi zutenetik bederatzigarrena. 1974an Dario Fok idatzitako *Hemen ez du inork ordaintzen* lana aukeratu dute publikoaren aurrean berragertzeko. Urte eta erdi daramate entseguekin, Josemari Velez de Mendizabalek euskaratu eta egokitu du, eta Vene Herrero zuzendu. Eszenatokian aktore lanetan bederatzigarren lagun arituko dira: Maider Alcey, Itziar Rosado, Xabier Latorre, Garbiñe Nuñez, Arantza Ezkurra, Mariasun Pagoaga, Itsaso Nuin, Asier Alonso eta Marga Merkader.

**Estreinaldiari buruz**

90 minutuko iraupeneko antzezlanak bi etxekoandre xumek hilabetearen amaierara iristeko dituzten arazoak aurkezten ditu. Andreetako bat supermerkatu batera sartzen da eta ahal duen guztia eramaten du ordaindu gabe. Gero, bi andreek, lapurretaz inor kontura ez dadin, plan bat asmatzen dute, gero eta nahasiagoa, senarrak ere konplize bihurtzeraino.

Hauze dio Vene Herrero zuzendariak: "Gaur egun bizi dugun egoerarekin zerikusia du obrak, inflazioari buruz asko hitz egiten delako, eta nola jendeak ez duen dirurik gauzak ordaintzeko. Hausnartzeko balio izan digu, gauza batzuk duela bost hamarkada baino aurreratuagoak baitaude, baina beste batzuk ez; era berean, pistak ematen dizkigu iraganeko kontu batzuk ez errepikatzeko".

**Udalari mezua**

Kulturola zabaldu zutenetik handu entseatzeko lokala Doke antzerki taldeak. Espazioak lehen-



Doke antzerki taldeko kideak, estreinaldiaren kartelarekin. MIKEL ZUMALDE

## BI ETXEOANDREREN ARAZO EKONOMIKOAK DIRA AURKEZTUKO DUTEN LANAREN ABIAPUNTUA

goarekin alderatuta hobekuntza nabarmenak dauzkala onartu arren, txiki samarra dela aipatu du Maider Alcey aktoreak: "Udalaren babesa dugu, baina guk uste dugu hango langileek ez dutela benetan ezagutzen hemen dagoen lana eta antzerkiak espazio eta denbora aldetik eskatzen duen dimentsioa; izan ere, Doken bi emari ditugu, alde artistikoa lantzen duen taldea eta eskola".

Ildo beretik, Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriuma antzerkirako prestatzea gustatuko litzaiekeela adierazi dute: "Bere garaian egin genuen eskari hori, eta berriz egiten dugu orain, uste dugulako, alde batek, Amaia antzokiaren jardura arinduko lukeela, eta, beste, Dokeko entseguak egiteko eta ikasleekin ikasturte amaierako emanaldiak egiteko apro-

posa izan daitekeela; are gehiago, kontuan hartuta gure lokala metro gutxira dagoela".

**Gazteen emanaldiak**

Hain justu, taldeko partaide gazteenek urte osoan landutakoa jendaurrean aurkezten dihardute joan den martitzena ezker. Bihar, zapatua, 11:00etan, 8 eta 11 urte bitarteko txanda izango da, Kulturoloko lokalean *Barrerik egiten ez zekien printzesa* plazaratuko baitute. Ekainaren 8rako, berriz, hitzordu bikoitza antolatuko dute Amaian: 17:30ean hasita, *Goxokilandia* lanaren berri emango dute 11 eta 13 urte artekoek, eta, jarraian, *Zenbat negar eta zenbat min* antzezlanaren interpretatuko dute 16 eta 18 urte artekoek; obra horrekin, gainera, Donostiako Gazteen Antzerki Topaketan parte hartuko dute.

**Antzerki udalekuak**

Bestalde, aurten ere antzerki udalekuak antolatuko ditu Dokek: uztailearen 3tik 7ra, 8 eta 11 urte artekoendako; eta uztailearen 10etik 14ra, 12 eta 16 urte artekoendako. Izena emateko, idatzi [dokeikastaroak@gmail.com](mailto:dokeikastaroak@gmail.com)-era.

## Lore Gazteak taldeko beteranoen dantzaldia bihar eguerdian

Zapatuan, 13:00etan, betidanik dantza egin duten hamar lagun "gozatzer" irtengo dira Herriko Plazara

**H.L. ARRASATE**

Dantzak adinik ez duela iritzita, duela lau urte hasi ziren Lore Gazteak dantza taldean hazitako hamar lagun inguru berriz ere elkartzeko; oraingoan, euren buruei *beterano* etiketa jarrita: "Ordutik, hiru saio egin ditugu jendaurrean, guztiak santamasetan, baina iruditzen zitzaigun entseguei jarraipen handiagoa eman behar genielako, plazara urtean behin baino gehiagotan irtenda", adierazi du Nagore Ipiñak, taldeko kideak.

Hala, hamar euskal dantza jorratuko dituzte. Zer egingo duten galdetuta, hona hemen Ipiñaren erantzuna: "Txikitatik landu izan ditugun dantzak, baina baita guretzat berriak direnak ere. Eta Euskal Herriko txoko guztietakoak: Nafarroakoak, Iparraldekoak, Gipuzkoakoak... Garapenaren eta nahas-



Beterano taldea. LORE GAZTEAK

ketaren alde egin dugu". Taldeak atek zabalik dituela ere nabarmendu gura izan du, jendea animatzea eta motibatzea ere badelako erronka: "Kulturolan entseatzeko dugu, eta aurten hasiberri bat animatu zaigu; hark entseatzeko du gehien".

## Margolarien arte merkatua zapatu goizean zehar

Maiatzeko egiten duten hitzorduari hutsik egin gabe, Arrasate Margo Taldeko kideek azkenaldian landutako artelanak erakutsi eta salduko dituzte bihar, zapatua, 10:00etatik 14:00etara bitartean, Seber Altube plazan. Guztira, hamazazpi margolarien koadroak egongo dira ikusgai; olio eta akuarelaren estilokoak, besteak beste.

## Goikobalu eta Telleri abesbatzen arteko elkartrukea bihar

San Frantzisko elizan Arrasateko eta Oreretako abesbatzen kantuak entzun ahaliko dira bihar, zapatua, 19:30ean. Talde bakoitzak seina pieza interpretatuko ditu, Euskal Herriko mundu zabalerako bidaia proposatuz, eta bukaeran pare bat kantu abestuko dituzte denek batera. Azaroan hitzordua errepikatuko dute, Oreretan.

## Arrasate Musikalen hiru kontzertu datorren astean

Udaberri ziklo musikaren baitan, Juan Arzamendi Musika Etxean biolin emanaldia egingo dute martitzenean 18:00etan, tronpeta emanaldia eguztenezan 18:30ean eta tronboi, tuba eta bombardino emanaldia eguztenezan 18:00etan. Bestalde, ekainaren 10ean paella-jan erraldoia egingo dute eguerdian, eta txartelak salgai daude Monterronen.

## Txalapartaren hotsa Udalatx tontoretik herrira hedatuko da

Ttakun txalaparta taldeak, 30. urtemugaren harira, ekitaldi irekia egingo du bihar goizean Udalatxan. 10:30ean Udalako aparkalekuetatik abiatu, eta, gailurrera heldutakoan, Udalatxan historiari buruzko berbaldea eta txalaparta saioak egingo dituzte. 12:00etan, haizearen laguntzarekin, txalapartaren soinua entzungo da hainbat txokotan.



Rebel Noise taldea Gatzagako MakilaKorta Fest jaialdian. IMANOL SORIANO

# Iluntzera mugatutako Eguzkierripa Rock jaia

Kontzertuak 21:00etan hasiko dira; Andra Mariko ermitako agertokira igoko dira El Exterminio de la Raza del Mono, Rebel Noise, 112, No Somos Cicatriz eta Rodeo. Eguerdi partean, aldiz, Anboto tabernaren aurrealdean egongo da musika

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Eguzkierripa Rock jaialdia egingo dute bihar Andra Mari ermitan. Urteetan egin izan duten formatuari buelta bat eman, eta aurten jaialdia bestelakoa izango da: iluntzera mugatuko dituzte musika emanaldiak. Iaz, esaterako, bazkaririk ez zuten egin, baina kontzertuak barikuan eta zapatuan izan ziren. Hamalagarren edizioa 21:00etan hasiko da, eta, betiko moduan, rockaz gozatzeko aukera paregabea izango da. Aramaioko El Exterminio de la Raza del Mono taldeak zabalduko du jaialdia; punk-rock doinu gogorak eskainiko dituzte.

**Rebel Noise gazteak** Talde beteranoak talde gaztetxo bati pasako dio lekukoa. Aramaioko, Arrasateko eta Oñatiko gazteak osatutako Rebel Noise taldeak *Inferniko ateak* diskoaren kantak eroango ditu Andra Marira. No Somos Cicatriz, Arrasateko punk-rock belaunaldi gaztea batzen duen 112 musika taldea eta Rodeo zestoarrak ere izango dira Eguzkierripa Rock jaialdian.

## Eguerdi, musika plazan

Eguzkierripa egunari bestelako ukitu bat emateko gogoz, rock kontzertuak antolatu dituzte Anboto tabernan. *Rock n' Bermut* ekimena antolatu dute biharko. 12:30ean hasita bi kontzertu egingo dituzte tabernaren aurrealdean. Trumans eta Iluminatiz taldeak izango dira musika jarriko dutenak. Lehenengo taldea punk doinuak lantzen hasi zen orain dela sei urte, eta, egun, blues ukituak sartu dituzte euren abestietan. Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako kideak dituen taldea da. Bigarren taldea Iluminatiz izango da. Aretxabaletako eta Otxandioko taldea. Rocka egiten duen taldea zapatu eguerdia girotzeko gogoz irtengo da oholtzara.

Anbotoko arduradun Jon Limak azaldu du ogitartekoak eta edatekoa jarriko dituztela salgai, 6 euroren truke.



Trumans taldeko Cristian Coello.

## Ikasleek "sekulako lana" egin dute ipuinak sortzen

Lehen ziklokoek taldeka idatzi dituzten ipuinak ikusgai jarri dituzte antolatzaileek, herritarrek irakur ditzaten

**A.E.G. ARAMAIO**

Aramaioko gazteak eta helduak parkean elkartu ziren barikuan Txirritolako literatur sariak jasotzeko. Lehen zikloan, LH-1 eta LH-2koek bi taldetan idatzi zituzten ipuinak: *Maitasunaren ezkontza* eta *Mantxiren oporrak*. Ikusgai egon ziren parkean bertan, eta, antolatzaileen esanetan, bi ipuinak herritar guztientzat ikusgai jarri nahi dituzte, ikasleek "sekulako lana" egin dutela iritzita.

Bigarren zikloan hauek izan ziren sarituak: LH-3n, ipuinen

kategorian, lehen saria Paule Avila Hernandok, *Joxeren ardia galduta* lanarekin; eta, bigarren saria, Oxanda Mujika Orobengoak, *Hospitalean bueltaka* lanarekin; eta, LH-4n, lehen saria, Mairu Zubia Ameskuak, *Nire ametsen iturria* ipuinarekin; eta, bigarren saria, Ur Aguirre Ramilak, *Arazoa* ipuinarekin.

Mikroipuin sailean, nerabeen kategorian Ilargi Bengoak irabazi du lehen saria, eta Irati Nafarratek bigarrena. Helduetan Maitane Gomez de Segura saritu dute.



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

## Ormaetxea eta Garcia nagusi

Euskadiko eta Arabako ziklismo txapelketak jokatu zituzten zapatuan Amurrión, Larrinben; bada, bi aramaioar podiumaren goiko koskara igo ziren, Araba mailan. Igamo Packaging taldeko Edurne Ormaetxea gazte mailako txapeliduna izan zen eta Zatika taldeko Garcia, aldiz, kadete mailako txapeliduna.



## Lau alderdiren artean aukeratu beharko dute aramaioarrek

Etzi, domeka, egingo diren udal eta foru hauteskundeetara 1.153 herritar daude deituta. Hauteslekua eskolako jangelan jarriko dute. Alkatetza lortzeko lau alderdi egongo dira lehian Aramaión: EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta PP. 09:00etatik 20:00etara bitartean eman daiteke botoa.

## Erretiratuen elkarteak mus txapelketa egingo du gaur

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta, mus txapelketa jokatuko dute gaur, 16:30ean. Aspetean zehar beste zenbait ekitaldi ere antolatu dituzte erretiratuek; atzo, esaterako, briska txapelketa jokatu zuten. Alaiak elkartetik jendea animatu nahi dute gaurko txapelketan parte hartzera. Erretiratuen lokalean izango da lehia.



Aretxarteko hainbat kide, prestatu duten egitaraua eskuan dutela, Durana kalean. MIKEL ZUMALDE

## Oporren aurreko festa antolatu du Aretxartek

Herriko kaleak girotzeko eta oporrak hartu baino lehen herria alaitasunez betetzeko helburuarekin, ekainaren 2rako eta 3rako ekintza-sorta antolatu du Aretxartek. Ilusio "handiarekin" egindako egitaraua dela dio Aretxarteko presidente Kris Hernandezek

**Mikel Zumalde Etxabe** ARETXABALETA Iaz antolatu zuen lehen aldiz Aretxarte merkatari elkarteak Aretxarte jaia, eta aurten ere hainbat ekintza antolatu dituzte ekainaren 2rako eta 3rako. Aretxarteko presidentea da Kris Hernandez, eta egitaraua eta adin eta gustu ezberdinetara egokituko dela nabarmendu du, ilusio "handiarekin". Herriko kaleak alaitzeko asmoarekin egingo da festa, oporrak baino lehen herrian ondo pasatzeko aukera ere badagoela erakusteko. Komertzio guztien lana go-raipatu du.

### Bi eguneko egitaraua

Ekainaren 2rako, motorrak berotzeko, honako ekintza hauek antolatu dituzte: Arratsaldean puzgarriak izango dira umeentzat Herriko Plazan, Ilargi plazan, Mitarten eta Durana kalean. Ondoren, dantza garaikidea, Other Side Company dantza taldearen eskutik. Horrez gain, flamenkoa, klakea eta sabel dan-

tza Mitarte kalean. Eguna bukatzeko, 19:30etik 21:00etara triki-poteoa egongo da.

Egun handia zapatuan iritsiko da, ekainaren 3an. Batukadak herriko kaleak girotuko ditu eta UDA kirol elkarteak txosna jarriko du (12:30-13:30). Ondoren, Aretxarteko berrehun bat pertsona mahaiaren bueltan elkartuko dira Herriko Plazan. Bazkariko txartelak bi eurotan salgai daude Kilokan, Ander Arrandegian eta Bedarreta tabernan. Bazkariko txartelarekin jairako zapia dohainik jasoko dute. Paellaz gain, hamburgesa jateko txosna ere egongo da. Ondoren, bazkalostea girotua, haur jolasekin eta karaokearekin (16:30-18:00). Bitartean, mus txapelketa

**PAELLA JATEKO  
ARETXARTEKO  
BERREHUN PERTSONA  
ELKARTUKO DIRA  
HERRIKO PLAZAN**

ere jokatu dute, Express kafetegiarekin parean. Arratsalde gauerako geldituko dira herriko bi musika talderen kontzertuak. 19:00etan hasita, Neallta Fola igoko da oholtza gainera, eta 20:00etan, Eten! Aretxarteko lehenakariak Neallta Folari eskertu nahi izan dio ekainaren 3an Herriko Plazan jotzeko erakutsi duen prestutasuna. Horrez gain, Hernandezek nabarmendu du antolatu dituzten ekintzetara denda "asko" batu direla.

### Dirulaguntzak

Bestalde, azken osoko bilkuran, Udalak Aretxarte merkatarien elkarteari 30.000 euroko laguntza gehigarria ematea onartu zuen. Dirulaguntza hori baliatuta, udaberri-uda eta udazken-negu denboraldietarako bi bonu kanpaina jarriko dira abian. Orain arte, Udalak 5.000 euro bideratzen zituen Gabonetan tokiko saltokietan erosketak sustatzeko abian jartzen den bonuen kanpainarako.

## Txarapean igogailua egiteko hitzarmena onartu dute

Kabina Iturrizar plazako azken etxebizitza-blokean egongo da; 50. zenbakiaren pareraino joango da

### M.Z.E ARETXABALETA

Azken osoko bilkuran oniritzia eman zitzaion Udalak eta Ortuzal enpresak Iturrizar plaza Txarapea ibilbidearekin lotuko duen igogailu publikoa eraikitzeke sinatuko duten hirigintza-hitzarmenari. Hitzarmen horren arabera, enpresa horrek igogailuaren egitura gauzatu du, eta, trukean, Udalak 229.247 euro –gehi BEZa– ordainduko dizkio, obren kostuari, zuzendaritzari, lizentziei eta proiektuari berari dagozkienak. Igogailuaren kokalekua Iturrizar plazako azken etxebi-

zitza-blokearen amaieran egongo da eta Txarapeako 50. zenbakiaren parean amaituko da.

Hogei egunez proiektua jendaurrean egon ondoren, eta helegiteak egiteko aukera izan ostean, behin betiko onartuko da. Obra horrek, beraz, igogailuaren kutxa prest utziko du. Behin hori gauzatu dagoenean, Udalak lizitazioa aterako du kabinaren instalazioa eta igogailua martxan jarriko duen makineria. Udalaren esanetan, lan horiek irisgarritasuna hobe- betuko dute.

## Bihar, Getariako Txakolina dastatzeko aukera Mitarte kalean

Bihar, Getariako Txakolina jatorri izena duten sei upategitako ardoak dastatzeko aukera egongo da Mitarte kalean, 12:30etik 14:30era. Honako hauek izango dira parte hartuko duten sei upategiak: Basa Lore, Blai, Hika, Hiruzta, Rezabal eta Sagarmina. Bost euro ordainduta bost txartel jasoko dira trukean, kopa bat barne.

Txakolinaz gain, bertako produktuak erosi eta dastatu ahal izango dira, Mendibitzu, Etxezuri eta Zaloña Aurrekoa –hamburgesak– baserrien eta Hanka-beltz dendaren eskutik. Iruñeko Lekunberri eta Legazpiko erraldoi eta buruhandien konpartsak arduratuko dira kaleak girotzeaz.

## Uztailean igeriketa ikastaro trinkoak Ibarra kiroldegian

Ibarra kiroldegian uztaileko igeriketa ikastaro trinkoak izango dira gaztetxoentzako. Bi txanda egongo dira: lehena, uztailearen 3tik 10era; eta bigarrena, 17tik 27ra. Astelehenetik eguenera izango dira ikastaroak, eta plaza mugatuak daude. Izen-ematea Ibarra kiroldegian egin behar da, baita informazio gehiago jaso ere.

## Beste behin, dantzari beteko dira herriko kaleak

Jaiki elkarteak Dantza Astea antolatu du eta herriko hainbat talderekin elkarlanean hainbat ikuskizun eskainiko dituzte maiatzaren 26tik ekainaren 6ra bitartean. Ikuskizunez harago, ikastaroak ere egongo dira, dantzari ekin gura diotenentzako.

Gaur, 18:00etan hasita, Ecstastic Dance saioa egongo da, Oskar Estangak jarritako musikarekin, Ibarra kiroldegian. Domekan, hilaren 28an, Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute. Datorren asterako beste hainbat ekitaldi izango dira; goiztiarrenak, datorren martitzenean, hilaren 30ean: bat-bateko konposizio dantza egongo da kalean.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA





## Proiektuen berri ematen jardun dute EAJkoek, "ilusioz beteta"

Herritarrak botoa ematera gonbidatu dituzte domekan, eta boto hori "zorrotza" izan dadila eskatu dute

**M.A. ARETXABAETA**

Baserrri-auzoetan eta kaleko auzo-guneetan ibili dira jeltzaleak hauteskunde-programan zehaztutako proiektuen berri ematen: "Herritarrentzat eta herriarentzat proiektu zehatzez betetako proposamena dakar EAJk". Eta horietako hainbat gogorarazi dituzte: zaintza eta osasuna bateratuko dituen arreta zerbitzua, jubilatuen egoitza eta osasun etxea; institutu berria; Lausitta kalearen eraberritzea; baratze komunitarioak; kiroldegiaurrealdeko kalistenia eta aisialdi parkea; gazteendako, sorkuntzarako eta kulturarako baliabideak; merkataritza eta ostalaritzarako neurriak; eta Iturrigorri frontoia eraberritzea.

Horiek aurrera eroateko "lantalde bikaina" osatu dutela dio-



Uribetxebarria alkategaia kideekin. EAJ

te, "ideiaz beteta dagoena eta ilusioz gainezka".

Hala, herritarrak hautesleku- ra gonbidatu dituzte: "Bozkatze- ra joan daitezela eskatzen diegu eta euren botoa zorrotza izan dadila; botatzea bezalako keinu txiki batek Aretxabaletaren eta Gipuzkoaren etorkizunak baldintzatu ditzakeelako".



## Bakardadeari eta isolamenduari aurre egitea, EH Bilduren jomuga

Arreta sozioemozionalean oinarritutako estrategia sustatuko du, eta hiru hanka izango dituen prozesua abiarazi

**M.A. ARETXABAETA**

Aretxabaleta "zaindua izango den herria" izatea du helburu EH Bilduk, baita "zainduko duen herria" izatea ere. Horregatik, "zaintza sare publiko komunitarioa" bultzatzearen alde agertu dira bakardade ez hautatuari aurre egiteko: "Udal baliabide ekonomiko, material eta teknikoekin lagundutako prozesua izango da, herritarren eta inplikaturako eragileen lidergoarekin".

Arreta sozioemozionalean oinarritutako estrategia bat sustatzea da asmoa: "Pertsonak norberaren etxebizitzan zahartzeko eskubidea duela sinisten dugu, eta, horretarako, etxeko arreta zerbitzua indartzeko konpromisoa hartu".

Harantzago joango den estrategia nahi dute, eta hiru



Iturbe alkategaia, kideekin. TXOMIN MADINA

hanka izango dituen prozesua aurkeztu dute. Batetik, diagnostiko jarraitua: "Bakardadea detektatzeko antenak aktibatuko ditugu". Bestetik, bakardade egoeran dauden pertsonen harreman sarea indartzea; eta hirugarrenik, zaintza lana egiten duten pertsonekin lan- keta.



## Kiroldegira joango dira aretxabaletarrak bozkatzera

Botoa ematera joateko deia 5.541 herritarrek dute, bost zerrendaren artean hautatzeko

**Mirari Altube ARETXABAETA**

Azken hauteskundeetan legez-2020ko uztaileko Eusko Legebiltzarrekoak-, Ibarra kiroldegian jarriko dituzte hautetsontziak aretxabaletarrek botoa eman dezaten. Zortzi mahai egongo dira han, eta 5.541 biztanle daude deituta parte hartzera, 09:00etatik 20:00etara.

Udaletik jakinarazi dute autoarekin joan gura dutenendako Ederlaneko aparkalekua zabalik izango dela 08:30etik 20:30era bitartean. Gainera, kiroldegitik hurbilen dauden aparkalekuak gorde egingo dituzte desgaitasunen bat edo mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat.

**Bost zerrenda aukeran**

Hauteskundeak deitu dituzte udaletako zein Batzar Nagusietako ordezkariak hautatzeko. Udal hauteskundeei dagokienez, bost zerrendaren artean hautatu ahal izango da; hona hemen horiek: EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Aretxabaleta eta PP.

Gaur egun, EAJko zazpi ordezkariak eta EH Bilduko seik osatzen dute udalbatza, eta gainerako alderdiek ez dute ordezkariarik.



## UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023

## "Publikotasunaren aldeko bermea", Elkarrekin koalizioa

Deba ibaia berreskuratzea, kalitatezko garraioa bermatzea eta energia trantsizioan eragitea aipatu ditu

**M.A. ARETXABAETA**

Podemosek, Berdeak-Equok, Ezker Anitzak eta Aliantza Berdeak-ek osatutako koalizioko Rafa Bernal alkategaia esan du mahai

gainean jarri ere egin ez diren gaiak heltzeko ordua dela. Horien artean daude Deba ibaia berreskuratzea eta klima aldaketaren aurka borrokatzea.

Kalitatezko garraio bide publiko baten aldeko apustua egin du, baita energia trantsizioak kontsumo murrizketa eskatzen duela azaldu ere. Funtzionatzen ez duten zerbitzuak Udalaren ardurapera pasatzea eta alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzea eskatu du eta tokiko merkataritzarekin lan egiteko gertu dago. "Publikotasunaren eta jasangarritasunaren aldeko bermea eskaintzen dugu", esan du.



Rafa Bernal alkategaia. ELKARREKIN

RPS: 83/19

**Durana**  
Hartz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO  
ESPEZIALISTAK 3D  
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55



Eskoriatza Kirol Elkartearen jaialdiaren aurreko aldi bateko talde-argazkia. GOIENA

## Jokalariak eta zaleak familian batzeko jaialdia

Eskoriatza Kirol Elkarteak denboraldi bukaeran egin ohi duen festa ospatuko du asteburuan. Hiruko saskibaloitako torneoarekin irekiko dute egitaraua gaur, eta bihar denetik egingo dute Herriko Plazan. Bazkide berriak erakartzeko postua ere jarriko dute

### Hasier Larrea ARRASATE

Herriko kirol kluba adinean aurrera doa, 59 urte bete ditu aurten, baina ez du, ez, *jubilatzeko* asmorik. "Astebururo kiroldegia betetzen dute zaleek, 200 bat lagun egoten baitira animatzen, eta etxetik kanpo jokatzen dugunean ere alboan izaten ditugu; afizio ikaragarria daukagu". Horixe izan da zuzendaritzako kide Andoni Motok emandako erantzuna, kirol elkartearen osasunari buruz galdezakoan.

Berotasun hori baliatu dute *Eskoza*le kanpainaren amu bezala, eta funtzionatzen du. Iaz abiatu zuten bazkide berriak erakartzeko proiektua, eta haxe adierazi du Motok: "Nahiko lan polita egin dugu, dagoeneko ehunetik gora pertsonak eta elkarte hartu baitute kluba babesteko konpromisoa". Kopuru hori handitu nahian, bazkide berriak erakartzeko mahaia jarriko dute bihar, zapatua, Herriko Plazan.

Izan ere, elkargune hori Eskoriatza Kirol Elkartearen gotorlekua izango da egun osoan. 12:30ean hasiko da festa, Leintz Eskola Kiroleko partaideen den-

**DATORRENARI BIDE BERETIK HELDU NAHI DIOTE, DENEN EKARPENAREKIN LAN EGITEN SEGITZEKO**

boraldi amaierako sari banaketarekin, eta 13:00etan *vintage* arropa saltzeko azoka irekiko dute: "Klubak historian zehar kaleratu duen arropa eskuratu ahal izango dute eskoriatzarrek, prezio oso merkean".

### Festarako osagaiak

Une horietan herriko hainbat musikaririk berriki osatutako Ad Libitum txaranga ibiliko da kalea girotzen, bazkalordura arte. Iaz bezala, paella erraldoia

jango dute herri bazkarian izena eman duten 200 jokalaria, guraso eta zuzendaritzako kide inguruk. 17:00etan, mahaiak saskiekin ordezkatzeko dituzte, binakako saskibaloitako taldeak osatu eta txapelketa txiki bat jokatuko. Ostean, 18:30ean, areto-futboleko abileziak erakusteko txanda izango da; besteak beste, 15 urtetik behar koentzat zuloz betetako atea jarriko dute plazan, ea punteria zorrotzena nork duen. Arratsetik gauerdia arte, zero kilometroko haragia parrillan eta musika jartzaileen doinuak izango dituzte kirolzale eta parrandazaleek aukeran.

Horixe biharko menua, ahaztu gabe gaur arratsaldean zehar Luis Ezeizako kantxan hiruko saskibaloitako txapelketa jokatu duela, 17:00etan hasita, 9 urtetik gorako neska-mutiek.

### Denboraldiaren irakurketa

Saskibaloia bada-eta Eskoriatza Kirol Elkartearen zutabeetako bat, baita poz iturri ere, aurten emakumeen junior partaidetzako taldeak Zilarrezko Mailara igotzea lortu baitu, hamazazpi partidutatik hamabost irabazita. Areto-futboleko gizonezkoen talde nagusiarentzat, berriz, denboraldia "gorabeheratsua" izan da, urtarrilera arte baja dezente izan baitituzte, lesioak medio. Hala ere, neurria ematea lortu dute, beste behin, Hirugarren Mailan.

## Asteburuko ekitaldiak

### Gaur, Luis Ezeizan

- 17:00etatik 19:30era, hiruko saskibaloitako torneo.

### Bihar, Herriko Plazan

- 12:30ean, LEKen sari banaketa.
- 12:30ean eta 19:30ean, Ad Libitum txaranga.
- 13:00etan, *vintage* arropa salmenta.
- 14:45ean, paella-jana.
- 17:00etan, binakako saskibaloitako torneo.
- 18:30ean, *skills* txapelketa.
- 19:30ean, parrillada.
- 20:30etik 00:30era, Asier&Dani DJak.

## Joseba Iñurrategi pilotalekuan egongo dira hauteskunde-mahaiak

Hauteskundeetan 18 urtetik gorako herritar orok bermatuta izango du irisgarritasuna, botoa emateko

### H.L. ESKORIATZA

Asteburuan zehar pilotalekuari hautesleku itxura emango diote udal langileek, eta instalazioa itxita egongo da kirol jardueretarako. Domekan, 09:00etatik 20:00etara bozkatu ahalgo dute 3.231 eskoriatzarrek. Lau hauteskunde-mahai egongo dira, guztiak barruko kantxan kokatuta. Bozkatzailak kantxako ate handitik sartu beharko dute frontoira; irteera, berriz, Luis Ezeizako patio aldera ematen duen atea izango da. Dena den, Udaletik adierazi dutenez, ondo

adierazita egongo dira sarrera eta irteera. Bestalde, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat Luis Ezeizako patioa egokituko dute aparkaleku gisa.

### Azken osoko bilkura

Martitzenean egin zuten agintaldiko azken osoko bilkura, eta udal taldeetako zinegotziek esker oneko hitzak elkar trukatu zituzten. Printzipioz, ekainaren 17an osatuko dute udalbatza berria. Hamaika eserlekuak nortzuentzat izango diren domeka gauean jakingo da.

## Haurrentzako magia tailerra domekan Ibarraundi museoa

21 urteko Niala mago elgoibartarrak trikimailuak erakutsiko dizkie 8 eta 12 urte arteko etzi, hilak 28, 17:30etik 19:00etara, kartak, sokak eta oinarrizko materialak erabilita. Ekitaldian hamabost haurrek parte hartu ahalgo dute gehienez, eta aurrez izena eman beharko da, 5 eurotan, *bibe.me* webgunean -udal webgunetik sar daiteke-.



Ikuskizuna egiten. NIALA MAGO

## Egungo energia erduei buruzko saioa ekainaren 5ean

Eskoriatzako Jauzi Ekosozialak *Zer egin dezakezu energiaren arazoaren aurrean?* izeneko hitzaldi-merienda antolatu du Goiener erakundearekin lankidetzan. Ekitaldia hemendik bi astelehenetara izango da, ekainaren 5ean, Ibarraundi museoa, 18:30ean hasita. Berba egingo dutenen artean dago Nestor Arana ikerlaria, eta, adierazi duenez, "Eskoriatzan abian jartzen ari diren autokontsumoko esperientziak partekatzea eta energia-komunitateek ematen dituzten aukerak aztertzea" da asmoa. Nolabait, jarraipena emango diote joan den otsailen pobrezia energetikoa gaitzat hartu zuen hitzaldiari.

## OHARRAK

### Ludotekaren ikuskizuna

Gaur, 16:45ean, Jose Arana egoitzan, ludotekako haurrek azken asteotan prestatutakoaz gozatuko dute egoiliarrek.

### Bigarren eskuko azoka

Domeka goizean, liburu, disko, arropa, altzari, jostailu zein kirol materiala eskuratzeko aukera egongo da Herriko Plazan.

### Futsal txapelketa

Uztailaren 22an jokatuko dute Luis Ezeizako III. futsal txapelketa. Eman izena 693 44 25 53ra *whatsapp*-a idatzita.



Antolakuntzako boluntario taldea, eguaztenean, Kultura Etxean egindako bileran. H.L.

# Haurren danbor hotsak entzuten segi nahi dute

Guraso talde batek sanpedroetako haurren danborrada prestatzeko testigua hartu du aurreko antolatzaileengandik. Lehen esperientzia dute egiteko horretan: "Txikiak ginenean bizi egiten genuen, eta gure haurrei berdina transmititu nahi diegu"

## Hasier Larrea ESKORIATZA

Azken urteotan nagusitu den joera da gero eta haur gutxiago animatzen direla jai nagusieta-ko danborradan parte hartzera. Horri gehitu behar zaio pandemiak bi urtez eten zuela ekitaldia, eta iaz ere ezin izan zutela antolatu, boluntario gutxi zeudelako horretarako prest. Zehaztapen gehiago eman ditu Arantza Zulueta, Kultura Saileko teknikariak: "Haurrek, adinean gora egin ahala, interesa galtzen dute; beraz, gaur egun zaila da 11 urteko neska-mutilak konbentzitzea. Bestalde, urte askoan aritu da guraso talde bat haurren danborrada prestatzen, eta errelebo eske zeuden. Eskerrak egiteko hori betetzeko jende berria azaldu zaigun".

## Gogoz hartu dute

Jende berria bai, baina haurren danborrada ondo ezagutzen dutenak. Txikitari bizi izaten zuten egun berezi hori euren txikiak bizitzea nahi duten gurasoak

dira. Lehen entseguaren aurreko bilkuran honako arrazoiak aipatu ditu zortzi lagun baino gehiagoz osatutako boluntario taldeak: "Gure seme-alabak apuntatu direnez, guk ere jarriko dugu gure aletxoak; izan ere, pena ematen du herrian hain errotuta dagoen ekitaldi bat desagertu daitekeela sentitzeak. Imaginatu zenbat urtean egin den; guretzat ohorea zen haurtzaroan parte hartzea, orain nagusien danborradan parte hartzea den bezala".

Gainera, lasaitasuna nabari zaie, aurreko boluntarioen laguntza izango dutela jakinda: "Ondo etorriko zaigu jantziak begiratzeko eta batailoiak adin-ka eta jantzien neurrien arabe-

**HAURREN ENTSEGUAK ASTELEHEN ETA ASTEAZKENETAN 18:00ETAN IZANGO DIRA, PILOTALEKUAN**

ra banatzeko". Pilotalekuko entseguen hasi aurretik eman beharreko pauso horiek iruditzen baitzaizkie zailenak. Astelehenean 18:00etan izango da lehenengo: "Momentuz, 70 haurrek baino gehiagok eman dute izena. Batailoi bakoitzean hogeita hamar jole joango dira, eta gure helburua sei batailoi osatzea da". Hortaz, espero dute azken orduko sorpresaren bat jasotzea astelehenean, aukera egongo baita entsegura bertaratu eta apuntatzeko.

## Nagusienean, arazorik ez

Sanpedroetan egingo den beste danborrada bat helduena izango da. Beti bezain arrakastatsua izateko osagai guztiak edukiko ditu, herritarrek gozatu egiten baitute. Txosna batzordeak ere egingo du ekarpena, presoen aldeko elkartasun-batailoia eratu. Maiatzaren 28ra arte eman dezake izena talde horretan parte hartu nahi duenak, Inker-nun eta Aldatzen.



2019ko azaroko udal hauteskundeetan, herritarrek bozkatzen. E. AZURMENDI

## Alderdiak baino gehiago, pertsonak hautatuko dituzte

Gatzagan ez dute talde politikorik bozkatuko, hautagai moduan doazen kideak baizik; eta, gehienez, lau

## H.L. LEINTZ GATZAGA

Hauteskunde Legeak dio herri batean 18 urtetik gorako 230 biztanle edo gutxiago baldin badaude errolatuta, boto-emaldeen norbanakoak hautatu behar dituztela, eta ez talde politikorik. Zerrenda aurkeztu duen talde bakarra Leintz Gatzagako Hautesle Elkartea izan da, bost pertsonaren hautagaitzarekin: Dorleta Elkorobarrutia –hura da alkategaia–, Eneka Zankada –2015etik 2018ra alkate izandakoa–, Aiora Elkorobarrutia, Juan Bengoa –2018tik 2019ra alkate izandakoa– eta Idoia Armendariz. Izen horien artean gutxienez bat eta gehienez lau aukeratu ditzakete gatzagarrek, 1etik 4rako ordenan.

Edonola ere, boskoteak helduko die Leintz Gatzagako udalbatzako eginkizunei. Elkorobarrutiak azaldu duenez, herriari eragiten dien kontu desberdinei

erantzuteko taldea osatzearen aldeko apustua egin dute: "Ordezkaritza gazteena kultura gaiez arduratuko da, gazteei begirako egitarauak antolatuko; badugu baita ere landa eremua ondo ezagutzen duen pertsona, hiri-antolamenduaren jakintza duen beste bat... Nik, adibidez, ekonomia arloan egiten dut lan, baina alkategai izateko eskatu zidaten, herritarren artean eza-guna naizelako".

## 165 boto, gehienez

Gatzagarrek 09:00etatik 20:00etara izango dute bozkatzeko aukera haur eskolan. Udalak emandako datuen arabera, herrian errolatutako 165 lagunek dute botoa emateko eskubidea. 2019ko udal hauteskundeetan, berriz, gehiago ziren: 187, guztira. Kopuru horren %69,5ek bozkatu zuen, eta %30,5ek abstentzioaren alde egin zuen.

## Ixidor Salaberrik herriko bake epaile jardungo du

Labidea dendako zerbitzari Ixidor Salaberri izango da datozen lau urteotan Bergarako Epaitegian Leintz Gatzagan errolatutako en administrazio-kontuak eguneratzeaz arduratuko den pertsona. Haren eginkizuna izango da, hortaz, jaiotza, heriotza zein ezkontza berriak organo judizialari jakinaraztea. Salaberrik GOIENARI adierazi

dionez, abenduan aurkeztu zuen bere burua Leintz Gatzagako bake epaile izateko, eta Udalak maiatz erdialdean jakinaraziz funtzio hori betetzeko izendatua izan zela, "besteak beste, ez zelako beste inor aurkeztu". Hala, Leintz Gatzagako arlo publikora lotuta segituko du Ixidor Salaberrik, aurrez Landa Garapena, Bideberri Mankomunitatea eta Leintzargi erakundeetan ere udal ordezkaritza izan baita, ordezko zein idazkari funtzioak betez.



Hirugarren aldiz egingo dute bihar trial txapelketa; irudian, iazko une bat. IMANOL SORIANO

## Hamar zona izango ditu biharko trial txapelketak

Lau kategoriatan banatuko da Ramon Aldasoro I. Trial Memoriala, eta Euskadiko Trial Txapelketaren parte izango da. Parte-hartzaile bakoitzak bi buelta eman beharko ditu zona bakoitzean, eta ahalik eta gutxien jarri beharko du hanka lurrean

### Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Irain motor klubak antolatuta, Ramon Aldasoro I. Trial Memoriala egingo dute bihar arratsaldean, zapatua, Antzuolan. Euskadiko Trial Txapelketaren parte da, eta hirugarren aldia du, beste izen bat hartu duen arren. "Aurten hil da Ramon, eta haren izena jarri diogu lasterketari; orain dela bost urte atera zen espetxetik, eta buruan zekarren hori egiteko ideia. Hark eginiko lanagatik izan ez balitz, ez litzateke posible izango", azaldu dute Imanol Lizarralde eta Beñat Arriola antolatzaileek.

Lau kategoriatan banatuko da lasterketa: -TR1, gorria; TR2, urdina; TR3, berdea; eta TR4, horia. Maila bakoitzak kolore bat du, eta zailtasunaren arabera dago eginda banaketa. "Horiak dira errazena, eta hurrenkeran doaz gainontzekoak; parte-hartzaileek euren mailaren arabera ematen dute izena".

Alabaina, ohartarazi dute egurraldi txarra eginez gero "zaildu" egingo dela, "lokatza-eta" pilatu daitekeelako inguruetan, basoa izango baitute topaleku.

Hamar zona egongo dira, gutzira, eta parte-hartzaile bakoitzak bi buelta eman beharko dizkio bakoitzari. Antolatzaileek azaldu dutenez, zona bakoitzean maila bakoitzera egokitutako ibilbideak daude, baina denek dute helburu berbera: lurra hankekin ahalik eta gutxien ukitzea, hain zuzen ere. "Ezin da jausi motorretik. Hanka jarri gabe gainditu behar da zona bakoitza; jarri daiteke, baina horren arabera da puntuazioa". Alegia, hanka lurrean zenbat eta gehiago jarri, orduan eta puntu gehiago

**15:00ETAN IRTENGO DA LEHEN PILOTUA, BAINA 13:30EAN IZANGO DIRA EGIAPTAPENAK**

go eskuratuko ditu parte-hartzaileak, baina hori ez da seinale ona: "Zenbat eta puntu gehiago, okerrago; hanka gehiago jarri den seinale da hori".

### Egiaptapenak

15:00etan irtengo da lehen pilotua, Irainen, eta antolatzaileek aurreikusitako 60-70 parte-hartzaile inguru egongo direla. Haiek, ordea, lehenago bertaratu behar dute, 13:30ean egingo baitituzte egiaptapenak. "Segurtasuneko baldintza batzuk begiratu behar izaten dira; motarra ondo dagoela, esaterako".

Klubeko kideak eta motorzaleak dabilta antolakuntza lanetan, eta laguntzaile dute Antzuolako Udala. Horrez gain, baita Goizper Group ere; adierazi baitute haren babes ekonomikorik gabe "seguruenetik" ez litzatekeela egingo. Haiekin batera, Erreka Taldea, Jon Zuremoto, Bikain Zentroa eta Leo Motorrak ere badira laguntzaile.



### 1.599 herritarrek eman dezakete botoa udal hauteskundeetan

Etzi egingo dira udal eta foru hauteskundeak Hego Euskal Herrian, eta antzuolarrek, ohi den moduan, Olarango kultur etxean izango dute botoa emateko aukera. Bi bozkaleku egongo dira, abizenaren arabera banatutakoak.

Botoak zenbatzean jakingo da, beraz, nork osatuko duen datozen lau urteetan udalbatza. Az-

ken lau urteotan EH Bildu izan da Udal Gobernuan, zazpi zinegotzirekin, eta EAJk hiru izan ditu, oposizioan. PSE-EEk, berriz, ordezkari bakarra izan du.

Haietako gehienek, ordea, ez dute jarraituko. EH Bilduk, esate baterako, Olatz Lezeta Urzelai aurkeztu du lehendabizikoz alkategai Antzuolarako, eta EAJk, Josu Xabier Aranguren Ezpeleta. Sozialistak izan dira errepikatatu duten bakarrak, Miren Gallastegi baita euren hautagaia, hirugarren aldiz.

### Umeak izango dira protagonista bihar Iralako kronoigoeran

Bost 'challenge'-saio egingo dituzte uztailean bitartera; haurren txirrindularitza sustatzea du xede

### A.R.K. ANTZUOLA

Denboraldi berriari ekingo dio Aiaitui txirrindulari elkarteak, eta, ohi den eran, Iralako kronoigoera izango da lehendabiziko proba. Bihar 12:00etan hasiko da, Antigua auzoan, eta parte hartzaileek Iralarainoko bidea egin beharko dute.

Hala ere, uztailean arte beste lau proba izango dira. Ekainaren 10ean ginkana egingo dute Ondarren, 12:00etan, eta 17an, berriz, Uzarragako igoera. Kalebarrenge jaietan, aldiz, ekainaren 24an beste ginkana bat egingo dute,

eta, denboraldiari amaiera emateko, San Martzialgo igoera antolatu dute uztailean 2rako, igandea, Lizarragako jaien barruan.

Azken egunean, gainera, parte-hartzaileen artean sariak banatuko dituzte kategoriaz guztietan.

### Antzuola saria

Elkarteak urtero antolatu ohi du Antzuola saria ere -Iñaki Lete memoriala-, 23 urtez azpiko txirrindularientzat, eta aurtengoa uztailearen 9an egingo da.




LANDATXOPE JUBILATUEN ELKARTEA

### Galizian izan dira jubilatuen

Landatxope jubilatuen elkarteko kideak Galizian izan dira hilaren 14tik 21era bitartean. Dozenaka lagun joan dira, eta, besteak beste, Santiago de Compostela eta Pontevedra hiriak bisitatu dituzte. Baina baita beste hainbat txoko ere; esate baterako, Santa Tecla, irudian. "Oso ondo pasatu dugu; itsas aldean haizea ibili da, baina ez digu euririk egin".

# UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



**ALKATEGAIEI  
ELKARRIZKETAK**





MARIA UBARETXENA  
CID

- Urretxu. • 42 urte.
- Komertziala.

### "Herriko ikuspegi osoa du gure programak"

"Arrasateko beharrei aurre egiteko akzio eta planteamendu konkretu eta egingarriak dituen programa da gurea. Kirol azpiegiturak berritzeari ekingo diogu, igogailu publikoak jarriko ditugu auzo altuetan, bidegorria zabalduko dugu Musakolaraino, nagusien bulego bat zabalduko dugu eta gazteei bideratutako politikak eta aisialdi eskaintza berri bat jarriko ditugu. Herriko ikuspegi integrala du gure programak".

# "Programa zehatza daukagu, iparra ondo bideratuta duena"

MARIA UBARETXENA CID EAJ-REN ALKATEGAIA

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Maria Ubarretxena (Urretxu, 1980) da Arrasateko EAJko alkategaia, hirugarren aldiz jarraian. Humanitate eta Enpresan lizentziatua eta lanbidez espertzioko komertziala da Goizper kooperatiban. Duela 20 urtetik bizi da Arrasaten eta udalerriko alkatea da 2015az geroztik.

### Alkategai hirugarrenez. Gustura egon zaren seinale?

Lehen aldiz aurkeztu ginenean, argi geneukan zein proiektu behar zuen Arrasatek, eta zortzi urte hauetan gure herriak eraldaketa bat izan duela argi dago.

### Nork konbentzitu zaitu?

Kalean herritar askok eta askok animatu nau. Era berean, etxekoen eta lagunaren babesa ere jaso dut, eta Udaleko lantaldearena ere bai.

### Zein da Arrasatek duen premia nagusia gaur egun?

Hainbat premia daude: auzoetan egin beharreko hobekuntzak, kirol-instalazio jasangarri eta duinak, bidegorria luzatzea Musakolaraino, herriko diagnosi integrala egitea arlo sozialean esku-hartze komunitarioak egiteko, gazteen beharrak asetzeko politikak, nagusiei bideraturiko politikak eta nagusien bulego bat jartzea, garraio publikoaren hobekuntza, autobus geltoki estalia...

### Nola erantzungo dio horri EAJk?

Guk programa zehatza daukagu, iparra oso ondo bideratuta duena, eta guk aurrera aterako duguna, zalantzarik gabe. Uste dut arrasatearrek ikusi dutela zein den gure estiloa. Guk gauzak egiten ditugu, proiektuak

amaitzen ditugu eta ez zaigu konfrontazioaren bidea gustatzen. Kudeaketa ona egitea eta denon dirua herrian inbertitzea izan da gure helburua. Zortzi urte hauetan 45 milioi euro inbertitu ditugu herrian, Udalak zuen zorra kendu dugu eta zero zor egoeran jarraitzen dugu.

### Alkate gisa jarraitzen baduzu, zer egingo duzu lehenengo?

Gure programa martxan jarri eta ditugun proiektuei hasiera ematea; administrazio publikoko denborak oso geldoak dira,

## "GOBERNURA IRISTEN BAGARA, DITUGUN PROIEKTUAK MARTXAN JARRIKO DITUGU BEREHALA"

eta, hasieratik ez badaukazu garbi zer egin nahi duzun, denbora pasatzen da ezer egin gabe. Oso garbi daukagu Gobernuan baldin bagaude iritsi bezain laster hainbat proiekturi hasiera emango diogula.

### Kirol-instalazioei heltzeko garaia dela diozue. Hala egingo duzue?

Bai. Oso momentu egokia da herriak behar dituen instalazio moderno eta jasangarriak izateko. Hori izango da gure proiektu garrantzitsuenetako bat eta proiektu hori EAJk egingo du edo ez da egingo.

### Behin betiko autobus geltokiaren harira, zein da zuen asmoa?

Estalitateko autobus geltoki modernoa, kafetegi eta komunekin. HAPON aldaketa egin behar da datorren agintaldian, eta bertan txertatu beharko da behin betiko geltoki hori.

### Ze asmo duzue Monterronerako?

Gure izaera industrialaren zentro bilakatzea, Arrasatek baduelako lehenaldi industrial oso markatua. Gure bailarako enpresa, eragile zein Kooperatiben Goren Kontseiluarekin elkarlanean, mapan jarriko gaituen proiektu komun bat izango da.

# "Auzoen irisgarritasuna hobetzen jarraitu gura dugu"

ARITZ MURUA ATXA PSE-EE-REN ALKATEGAIA

### E.A.B. ARRASATE

Aritz Murua Atxa (Arrasate, 1978) da Arrasateko PSE-EEko alkategaia eta bosgarrena da Deba Urola barrutiko Gipuzkoako Batzar Nagusietarako zerrendan. 2019an hasi zuen zinegotzi ibilbidea Udalean eta iazko maiatzean alderdi sozialisten bozeramaile kargua hartu zuen. Ikasketaz energia berriztagarrien teknikaria da, seme baten aita.

### Zein da Aritz Murua?

Pertsona arrunta naiz, jendearengandik hurbil dagoena, enpatikoa. Herriko beste langile bat naizela uste dut, beharrek konprometituta dagoena.

### Nork konbentzitu zaitu alkategai aurkezteko?

Konbentzitu baino gehiago, animatu egin nautela esango nuke. Eta bai, alderdikideek eta Arra-

sateko elkarteko Idazkaritza Nagusiak animatu naute. Eta, nola ez, baita nire familiak ere. **Gertutik ezagutu duzu Udaleko lana. Uste zenuena izan da?**

Gehienbat harritu nauena da administrazioa zeinen motela den herritarren arazo eta beharrenei aurre egiteko.

### Zer da Arrasatek gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien, hemengo jendea, kultura nahiz langile eta enpresari izaera. Aitzitik, ez zait gustatzen askok iraganen eta konfrontazioan ainguratuta bizi izatea.

### Zer da aisialdian egitea gustatzen zaizuna?

Lagunei eta familiari eskaintzen diet nire denbora libre; garesti ari dira ordaintzen Udalaren eta alderdiaren kudeaketan ematen dudana denbora. Aste

asko, gainera, astelehenetik igandera izaten dira.

**Herriko zein txoko duzu gustuko?** PSE-EEren egoitzara joatea gustatzen zait, eta han nire alderdikideekin egotea. Eta, noski, nire familiarekin gozatzea.

### Zein da Arrasateren lehen premia?

Goiko auzoetako irisgarritasuna, Arrasate bizi-itxaropen tasa handia duen herria baita. Arrasaten, Udalmap-en datuen arabera, biztanleriaren %24,2 da 65 urtetik gorakoa; %12k 70 urte edo gehiago ditu, eta zifra hori

## "TAO-RI ESKER HERRI ORDENATUAGOA DUGU, TRAFIKOAREKIN KOHERENTEAGOA DENA"

Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik dago (%10,6). Horrek esan nahi du gure biztanleriaren %36 dela 65 urtetik gorakoa.

**Eta zer eman diezaioke zure alderdiak premia horiei aurre egiteko?** Irisgarritasuna hobetzen jarraitu eta goiko auzoak eta hiri-altzari guztiak birgaituko ditugu. **TAO sistema zeresana eman duen eta ematen duen gaia da.**

Edozein aldaketak bezala, egoitzeko denbora behar du, eta orain, herri askoz ordenatuagoa ikusi dezakegu, trafikoarekin koherenteagoa. Arrasaten dugun ibilgailuen fluxua eskuragarri dauden aparkalekuen gainetik dago, eta, beraz, aparkaleku-sistema erregularizatu egin behar da. Orain, herritar bakoitzak badu lekua bere etxetik gertu aparkatu ahal izateko.

**EAJrekin batera gobernatzeko aukeraz gain, beste aukerarik bada?** Hauteskundeetako emaitzaren eta gure boto-emileen eskaeren arabera da dena.

**Sozialistok izango duzue giltza?** Baietz esan nahi nizuke, eta, horrela, gure hauteskunde-programa gauzatu ahal izango genuke.



ARITZ  
MURUA ATXA

- Arrasate. • 45 urte.
- Energia arloko teknikaria.

### "Gazteen aisialdia landuko dugu lehenik"

"Sozialistok Udala Gobernura iritsiz gero, lehenik eta behin, gazteentzako aisialdiaren garapena bideratuko genuke. Gero, adinekoentzako ongizatea handituko genuke, aurreko gobernuek hamarkadaz hamarkada abandonatuta izan dituzten auzoetan. Horrez gain, Arrasate eskualdearen erdigune bihurtuko genuke, eta udalerririk azken urteetan galdu duen lidergoa berreskuratu".



ehbildu

**MAIDER MORRAS AZPIAZU**

- Arrasate. • 47 urte.
- Abokatua.

### "Gure programa osoa da garrantzitsua"

"Hauteskunde programa bere osotasunean da garrantzitsua, herriko hainbat sektoreen beharrei erantzuten dielako. Baina bada proposamen guztiak zeharkatzen dituen ikuspegi bat: herria bizi nahi dugula. Eta ikuspegi hori hainbat proiektutan gorpuzten da: Kirol Herria, Etxebizitza Bulegoa sortzea, Monterron herriari zerbitzua emateko zabalik izatea, herri kultur gilea sustatzea..."

# "Herria itzalita dago eta berpiztea ezinbestekoa da"

**MAIDER MORRAS ARRASATEKO EH BILDUREN ALKATEGAIA**

**Hasier Larrea** ARRASATE

Maider Morras (Arrasate, 1976) abokatua da ikasketaz, EHU lizentziatu zen, eta 2004tik hona abokatu-bulego propioa du Arrasaten. 2011-2015eko agintaldian zinegotzi izan zen Bildu alderdiarekin, eta azken udal hauteskundeetan, Arrasateko EH Bilduren zerrendaburu.

### Zerk edo zeinek konbentzitu zaitu beste behin alkategai izateko?

Taldeak eta EH Bilduren komunitatearen babesak. Lehengo hiru zinegotzik jarraitzeaz aparte, taldea profil berriekin osatu dugu.

### Nolakoa da Maider Morras?

Kirolzalea -batez ere, mendizalea-, lorezaintza oso gustuko duena, eta familia eta lagunekin kalean egotea maite duen pertsona naiz, kaleko bizitzak he-

rriaren parte sentiarazten bainau. Ideologikoki, pertsonen bizi baldintza duinak lortzeko politiketan sinisten dut. Justizia sozialean eta balio komunitarioetan. Komunitatea ezinbestekoa izan da Euskal Herriaren garapenean, baita eskualde honetan ere. Elkarlanaren herria da Arrasate, eta horren parte sentitzen naiz. Hori guztia, gainera, ezkerreko politikak bermatzen dutela uste dut; herri justu eta libre.

### Zein da herriaren premia nagusia? Zer proposatzen du EH Bilduk?

Kalera atera besterik ez dago herria hilda dagoela ikusteko; komertzioak itxita, tabernak, jatetxeak, okindegiak, harategiak, arropa-dendak... Iruditzen zait Udaletik badagoela zer egin horri buelta emateko. Herriarrek

herrian bizitzeko eskubidea dute, eta guk badaukagu erantzukizuna hor. Arrasate bizia sortzea eta herritarren bizi kalitatea hobetzea da gure erronka; hau da, jendeak etxera heltzeko erraztasuna izatea, etxetik gertu erosi ahal izatea, herrian bertan negozio bat irekitzeko laguntzak jasotzea, kirola egiteko instalazio eta baliabide ezberdinak edukitzea, euskara ikasteko erraztasunak aurkitzea, herri bizi batean aisialdiaz gozatzeko...  
**Zer egingo zenukete kiroldegiekin?**

## "GARIBAI ETORBIDEA OINEZKOENDAKO JARTZEA EH BILDUK PROPOSATU ZUEN HASIERATIK"

Musakolako eta Iturripeko kiroldegien azpiegiturak egiteko konpromiso osoa dugu, eta zin dagit egingo dugula. Baina helburua ezin da izan bi eraikin egin eta kito; planteamendua bere osotasunean egin behar da. Badira kirolerako espazio urbano eta naturalak, EAJk jasotzen ez dituenak. Bada, kiroldegiak egiteaz gain, gure proiektua auzo guztietara hedatzea da gure proposamena.

### Eta autobus geltokiarekin?

Behin betiko zerbitzuak duina izan behar du, gaur egungoa baino askoz hobea. Geltokiaren ezaugarriak eta kokalekua Arrasateko mugikortasun neurri orokorrak aintzat hartuta erabaki beharko genituzke, herritarren parte hartzea ere bermatuz eta auzoetan sortzen diren beharrei konponbideak emanez.  
**Baduzue alternatibarik Monterron jauregiarekin?**

Haur, gazte eta familientzako topagune hezitzailea izatea gura dugu. Monterron herriaren eta naturaren arteko elkargunea baita, heziketarako, kulturarako, aisialdirako eta naturaz gozatzeko eremu oso aberatsa.

# "Zerbitzu publikoak eta auzoak erdigunera ekarri behar dira"

**EVA ABUIN ELKARREKIN ARRASATEREN ALKATEGAIA**

**Hasier Larrea** ARRASATE

Podemos Ahal Duguk, Ezker Anitza-IUK, Berdeak Equok eta Alianza Verdek osatzen duten Elkarrekin Arrasate koalizioaren alkategaia da Eva Abuin (Arrasate, 1993). Sei urte egin ditu Udalean, Baleikeren eta Podemos Arrasateren zinegotzi.

### Zein da Eva Abuin? Zergatik aurkezten zara alkategai?

Besteak beste, feminista eta ezkertiarra naiz, eta irakurtzea, idaztea eta bidaiatzea dut gustuko. Arrasateko ordezkari politiko bezala ikasi dudun gauzetako bat da hanka bat instituzioetan eta bestea kalean izan behar dela beti. Alkategai izango naiz lehen aldiz; ilusio handiarekin hartutako erronka kolektiboa da niretzat. Proiektu politiko sendoa daukagu, eta

politika horiek aurrera eramateko talde indartsua. Ordezkatzen ditudan militante eta herriko kolektibo desberdinetan aktibista diren pertsona independenteek konbentzitu naute aurkezteko.

### Zein dira Arrasateren premia nagusiak eta zer proposatzen duzue horiei aurre egiteko?

Auzoak politikaren erdigunera ekartzea, zerbitzu publikoak berreskuratzea, herritar guztien ongizatea bermatzea eta herri kohesioa lortzeko politika publiko berriak sortzea. Horiek lortzeko, urtero auzoetan inbertsioak bermatzeko auzo aurrekontuak eta BAZ zein gizarte zerbitzuen bulegoak auzoetan eratzea proposatzen dugu; enpresa pribatuen eskuetan dauden zerbitzu publikoak publikatzea

-Herribusa, lorezainak...-; eta etxebizitza politikak sustatzeko Udalean batzorde bat eratzea.  
**Nola definituko zenuke Udal Gobernuak amaitzera doan agintaldian egindakoa?**

Bi hitzekin definituko nuke: immobilismoa eta inprobisazioa. Adibide asko daukagu: TAO sistema, autobus geltokia, herribusaren egoera, pandemiaren kudeaketa, kiroldegi berria...  
**Zer egingo duzue TAO sistemarekin maiatzaren 28ko hauteskundeak irabazten badituzue?**

## "EAJ-REN ETA PSE-REN AGINTALDI HAU IMMOBILISTA ETA INPROBISAZIOZ JOSITAKOA IZAN DA"


Tamalez, Udal Gobernuak hurrengo agintaldi osorako kontratua sinatu du; beraz, kontratu hori ezin bada apurtu, parte-hartze prozesu bat deitu eta herri erreferendum baten bitartez zer egin erabakitzea da gure proposamena. Autoen erabilera zigortu beharrean, alternatibak erabiltzen dituzten herritarrek saritzearen aldekoak gara gu.

### Kiroldegiei dagokienez, zein asmo du Elkarrekin Arrasatek?

Argi daukagu Musakolako kiroldegi berriaren proiektua hurrengo agintaldi hasieratik landu behar dela. Gaur egun Gobernuan dauden alderdiek, EAJk eta PSOEek, duela lau urte adostu zuten haien gobernu akordioan kiroldegi berria agintaldi honetan egitea, baina ez dute beraien hitza bete. Kiroldegiko erabiltzaileek urteak daramatzate instalazioen egoera salatzen; argi dago kiroldegi duina behar dugula.

### Eta Monterron jauregiarekin?

Herriko ondarea denez gero, herritarrek erabaki dezatela, parte-hartze prozesu bat eta erreferendum bat deituta.



elkarrekin

**EVA ABUIN BIDEBURU**

- Arrasate. • 30 urte.
- Erizain laguntzailea.

### "Autobusen zerbitzua oso kezkarria da"

"Zalduspeko geltokia prekariora da. Garraio publikoa sustatu nahi badugu, leku duina eman behar diogu autobus geltokiari, aterpea, komunak, taberna eta halako zerbitzu minimoekin. Gainera, auzo guztietan lineak bermatu gura ditugu, igande eta jaiegunetan ere zerbitzua emanez. Bestalde, Herribusaren flota guztia legealdi hasieran berri eta zerbitzua publikatzea da gure asmoa".



ehbildu

**GORKA ARTOLA ALBERDI**

- Bergara. • 34 urte.
- Irakaslea.

**"Gobernatzeko eredu berrien aldekoak gara"**

"Gobernatzeko eredu berri batean sinisten dugu, eta praktikan jarri dugu hori. Beste administrazioekin, herritarrekin eta eragileekin elkarlanean aritzeak aberastu egiten ditu proiektuak, gertuagoko eta errealeko bihurtzen ditu; elkar entzutek elkar ulertzea dator. Administrazioaren erritmoak dira zailtasun, askotan; hala, administrazioek ere eredu berrietara egokitzen joan behar dute."

# "Garai bateko Bergara bizia eraikitzen jarraituko dugu"

**GORKA ARTOLA ALBERDI EH BILDUREN ALKATEGAIA**

**Iñigo Barrena Kortabarría** BERGARA EH Bilduren alkategaia izango da bigarren Gorka Artola (Bergara, 1989). Automozio teknikaria, Haur Hezkuntzako hezitzailea eta Lehen Hezkuntzako irakasle izandakoa, Udalean sartu aurretik Lanbide Heziketako irakasle ari zen lanean. **Zergatik erabaki duzu zerrendaburu aurkeztea bigarren aldiz?**

Lau urte hauetan martxan jarri dugun Bergara hobe baterako proiektuan sinisten dudalako, eta, herri-proiektuetan gertatu ohi den bezala, legealdi bat motz geratzen delako oinarriak ezarri eta garatzeko.

**Zer azpimarratuko zenuke ondoan duzun taldetik?**

Aniztasuna eta ilusioa. Agintaldi honetan lortutako eskarmentua eta sekulako grinez

datozen freskotasuna uztartzen ditu.

**Bigarren agintaldi baten alkate izango bazina, zerk erakartzen zaitu gehien? Bertigorik sentitzen duzu oraindik?**

Alkate izatea erantzukizunetik bizi dut, baina bertigorik izatekotan pasa nuen duela lau urte. Agintaldi berria martxan jarri dugun herri proiektua loratzen ikusteko sasoia izango delakoan nago, epe ertain-luzera begira mimoz landu ditugun proiektuak martxan jarriko den garaia. Hori ikusteak ilusio handia egiten dit.

**Zein da Bergarak gaur egun duen premia nagusia?**

Etorkizunean izango ditugun errorekei begira antolatzea eta baliabideak horretara bideratzea. Asmo horrekin garatu dugu

legealdi honetan Plan Estrategiko Jasangarria eta identifikatuta ditugu datozen urteetan Bergara bizigarriago egiteko ekintza eta neurriak. Funtsean, bergararrak beren herrian ondo bizi daitezen baliabideak jartzea. **Zer eman diezaiokie EH Bilduk herritari, premia horri aurre egiteko?** Martxan jarritako bidean jarraitzea, bakoitzak bakarrik erantzun ezinak diren erroreak izanik, Udaletik martxan jarritako Ehundu bezalako ekimenen bidez modu kolaboratiboan

**"BERGARARRAK EUREN HERRIAN ONDO BIZITZEKO BALIABIDEAK JARRI BEHARRA DAGO"**

aurrera eramateko bideak topatuz.

**Hauteskunde programatik zer nabarmenduko zenuke?**

Garai batean ezagutu genuen Bergara bizia berreskuratzen jarraitzea dugu helburu. Proiektu zehatz batzuk aipatzearen, Arrizuriagako proiektua, Bergarako kultura ekosistema elikatzea eta berritzea helburu izango duena. Horrekin lotuta, eraikina partekatuko dutelako, emakumeentzat espazioa, mugimendu feministarekin elkarlanean gauzatuko dena. Miguel Altuna zaharra erabilera posible batera bideratzea. Labegariaietako kiroldegi pareko kantxa estaliko dugu. Zaintza modu komunitarioan landuko dugu. Etxebizitzarako sarbidea errazten saiatuko gara eta energia burujabetzarako urratsak egiten jarraituko dugu. Horiekin batera, azokan lehen sektorea indartuko duen proiektuaren loratzea; landu den herri hezitzailearen ikuspegia eremu guztietan txertatuz joatea; Martokoan eta Osintxun biziberritze urbanoari ekitea.

# "Turismo jasangarriaren alde egin behar dugu"

**ALBERTO ALONSO MARTIN PSE-EE-REN ALKATEGAIA**

**Iñigo Barrena Kortabarría** BERGARA Alberto Alonso (Oñati, 1976) Bergarako PSE-EEren alkategaia da bigarren jarraian. UGT sindikatura afiliatuta dago 17 urte zituenetik eta 2008an Alderdi Sozialistan afiliatu zen; gainera Osalaneko zuzendari orokorra izan zen 2016tik 2020ra. **Bigarren aurkezten zara Bergarako alkategai moduan, oraingoz zalantzarik izan duzu?**

Duela asko hasi nintzen politikan eta une bat iristen da non, agian, norbere buruarengan pentsatu eta norbere bizitzari denbora gehiago eskaintzea planteatzen duen. Baina, Bergarako nire alderdikideek berriz aurkezteko proposamena luzatu zidatenean, aurrera egitea erabaki nuen. **Ze proiektu egin nahiko zenituzke Bergaran alkate izango bazina?**

Asko dira. Azken agintaldian gertatu den guztiak, Covidak, Ukrainako gerrak, krisi energetikoak...guzti hauek uste dut, gizartea jasaten ari den paradigma ekonomiko zein sozialen aldaketekin, hauek birpentsatzea eskatzen duela. Horregatik, uste dut, Bergaran aurrera eraman beharreko proiektuak, gizarteak jasan dituen paradigma aldaketei lotutakoak izan behar direla. **PSE-EEK zein alorretan eragin nahi du bereziki datozen lau urteotan?** Tursimoan eragin beharra dugu, Bergararen ekonomiarentzat elementu garrantzitsu bat izanik; turismo jasangarri baten aldeko apustua egin behar dugu.

**Ze premia ikusten dituzu Bergaran?** Mugikortasunaren arazoa konpondu gabe jarraitzen dugu. Eztabaida handia izan da azken

urteetan arazo honen inguruan eta proposamen ugari egon dira. Baina lau urteren ostean, arazoa konpondu gabe jarraitzen dugu eta gobernura iritsi denak ez du ezer egin.

**Ze iritzi duzu oraindik mugikortasun planik ez egotearen inguruan?**

Mugikortasunean denok dugu hobetu beharra, ez soilik Bergarak. Anlisisiak alde batera utzi eta hirigintzarekiko errespetua eta Bergarako herritarren ohiturekiko errespetua izan behar dugu. Bizikletaren erabi-

**"GIZARTEAK JASAN DITUEN PARADIGMA ALDAKETEI LOTUTA EGIN BEHAR DIRA PROIEKTUAK"**

lera eta oinez ibiltzea sustatu beharra dago dudarik gabe. Udal gobernua, gainera, kotxee elektrikoak kargatzeko puntuak jarri beharko lituzke. Eta Bergarako udalak, mankomunitatearekin bat, debagoiena osorik lotuko duen garraio publiko sarearen aldeko apustua egin behar du.

**Amiantoa kentzeko proposamena ez da gauzatu, ze irakurketa egiten duzu?**

Eraikitzailea izan nahi duen oposizio batetik, udal gobernua zituen gabeziak ikusirik, beste udal batzuetan izan ditugun esperientziak kontuan izanik, proposamen sorta bat bota gienien, onartu egin zituzten, baina beste behin ez dute jakin nola gauzatu hauek. Hitzak gauza bat dira eta horretan guztiok gara onak, baina proposamenak aurrera eraman behar dituztenean ez dakite nola egin.

**Ze aurreikuspen dituzu maiatzaren 28ko hauteskundeetara begira?**

Gu aurkezten garen toki guztietan irabaztera aurkezten gara. Ni beti irabazteko ideiarekin aurkezten naiz, etzait kalkulak egitea gustatzen.


 PSE EE  
 PSOE

**ALBERTO ALONSO MARTIN**

- Oñati. • 47 urte.
- Historian lizentziaduna.

**"Harro gaude egindako lanarekin"**

"Nik uste dut oposizioa egiteko bi modu daudela: liskarretan eta kezatan ibili denbora guztian edo Gobernuari bultzada bat emango dion oposizioa egitea, proposamenekin, eta guk bigarrena hautatu dugu azken agintaldi honetan. Horrenbestez, uste dut harro egon behar dugula, azken lau urte zail hauetan alde aktiboa izan garelako Udalean, eta, hain zuzen ere, Bergararentzat gure aletxoak jartzen ahalegindu gara".





MIKEL  
LETE TXINTXURRETA

- Bergara • 63 urte.
- Industriako langile ohia.

### "Lanerako ilusioz dagoen taldea dugu"

"Gure programako lan-ildo nagusiak dira bergararren ongizatea eta zaintza bermatzea, sustapen eta garapen ekonomikoan ahalik eta gehien eragitea, Miguel Altuna zaharra – *Elementala* izenez ezagutzen dena– kultura ekipamendu bihurtzea, auzoekin elkarlana indartzea eta herri jasangarria izateko lanean jardutea. Lanerako ilusioz dagoen taldea dut ondoan; Bergara maite dugu eta gure onena emango dugu".

# "Konpromiso osoa daukat maite dudan Bergararekin"

MIKEL LETE TXINTXURRETA EAJ-REN ALKATEGAIA

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Bergarako EAJren alkategaia da Mikel Lete (Bergara, 1960). Lanbide Heziketan Elektronika ikasi ostean, Torunsa enpresan aritu zen lanean 18 urtez, eta, ondoren, Belmek enpresaren sortzaileetako bat izan zen; gaur egun, Gipuzko Buru Batzarreko kide da. Herriko alkate izatea ardura handia izango litzatekeela jakinda ere, ilusioz eta gogotsu dago: "Taldea sendoa daukat ondoan".

**Zergatik egin zenuen alkategai izateko urratsa? Nork animatu zintuen urrats hori egitera?**

Alderdiaren barruan sortu zen taldea zerrenda osatzeko. Nire lan egoera aldatu egin da azken hilabeteetan eta animatu egin nintzen herrigintzan jardutera, Udaletik.

**Alkategai lehen aldiz, baina ezagutzen duzu Udala barrutik.**

Bai, urte askoan zehar jarraitu dut udal politika gertutik, eta elkarlanean aritu izan naiz gure alkateekin eta zinegotziekin. Gainera, Antzuolan zinegotzi izan nintzen lau urtez.

**Zein da Bergararen premia nagusia? Nire ustez, premia handiena edo betebehar nagusia da bergarrek bizi-kalitate ona izatea. Bakoitzak bere bizi-proiektua aurrera eramateko aukera izan dezala.**

**Eta zer eman diezaioke EAJ alderdiak Bergarari premia horri aurre egiteko?**

Ilusioz lan egiteko prest dagoen taldea gara, gure alderdiaren laguntzarekin bergararren bizi-kalitatea ahalik eta onena izan dadin. Programan sartu ditugun proiektuek ongizatea-

ri eta kulturari emango diete bultzada, nagusiki.

**Alkate bazara, zein izango da egingo duzun lehen gauza?**

Lehen gauzetako bat izango da Udaleko langileekin elkartzea eta haien nahiak eta beharrak ezagutzera.

**Kanpaina aurretik "entzute ariketa aktiboan" aritu zineten. Ze ondorio nagusi ateratu zenuen?**

Esperientzia oso aberasgarria izan da, asko jaso dugu ariketa horretatik. Ondorio garbiena izan da eragile, talde eta lan-

**"UDAL GOBERNUAK EZ DU ETORKIZUNERAKO ILDORIK DEFINITU, ETA GALDU EGIN DA ELKARLANEAN"**

da-auzo oso dinamikoak ditugula eta haiekin benetako elkarlana sustatu behar dela.

**Azken lau urteetan zer galdu du Bergarak? Eta zer irabazi?**

Udal Gobernuak ez du etorkizunerako proiekturik definitu. Ez da urrats errealek egin mugikortasun arazoak konpontzeko, auzoekin harremanek okerrera egin dute eta elkarlana ere galdu egin da. Bergarak elkarbizitza irabazi du.

**Zer nabarmenduko zenuke ondoan duzun taldetik?**

Talde sendoa dugula. Udaleko jardunean esperientzia dutenak eta berriak izango direnak tartekatuta ditugu. Ilusio handiz dagoen taldea dugu, Bergara hobetzeko eta bergarrendako lan egiteko gogoz dagoena.

**Bergaratik zer gustatzen zaizu gehien? Eta zer gutxien?**

Bergararik bergararrak gustatzen zaizkit gehien. Horrez gain, Bergara mendiz inguratuta dagoela eta irteerak egiteko ematen dituen aukerak ugariak direla. Gutxien gustatzen zaidana da herriko kaleetako paretak pintaketaz eta pankartzaz josita ikustea.

# "Parte hartzeari eta kontrolari buruzko araudia egingo dugu"

ANDRES DIEZ TIMOFEVA ELKARREKIN BERGARA KOALIZIOAREN ALKATEGAIA

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Elkarrekin Bergara koalizioko alkategai Andres Diezek (Bergara, 1957) uste du herritarrek Udalean parte-hartze aktiboagoa izan beharko luketela.

**Zergatik aurkeztu zara alkategai? Nork animatu zaitu?**

Ez da erabaki pertsonala izan, gustura onartu dudana proposamen kolektibo bat baizik. Bergara bere alderdi guztietan hobetzen laguntzeko animatu naiz; urratsa egitera Ezker Batuko nire lankideek animatu naute, eta eskerrak eman nahi dizkiet nigan jarri duten konfiantzagarri; espero dut hutsik ez egitea.

**Nolako taldea duzu ondoan?**

Hainbat sektoretan inplikaturako jendea gara, herriaren arazoak ezagutzen ditugu eta konponbideak partekatzen ditugu.

**Udala ezagutzen duzu barrutik, zinegotzi izandakoa zara eta.**

Zinegotzi izan nintzen hainbat arazo eta egoera bizi izan nituen. Gauza bat argi dago: Udalak herritarren iritzia eta parte-hartzea behar ditu bere arazoak konpontzeko. Elkarrekin Bergarak ahalegin handia egingo du ildo horretan.

**Zeintzuk dira, zure ustez, Bergarak egun dituen premia nagusiak?**

Bergarak hainbat behar ditu: etxebizitza soziala, aparkalekua, enplegua... Baina, batez ere, herritarren parte-hartzea behar dugu Udaleko kudeaketan.

**Zeintzuk dira zuen programako zutabe nagusiak?**

Alokairurako etxebizitza sozialak sustatuko ditugu, Bergarak auzoek egindako eta kudeatutako aurrekontuak eta enplegua.

**Zeintzuk dira zure inguruan ahoz aho dabilzan gaiak?**

Premiazko gai bat konpondu behar da: Larramendiko industrialean jarri nahi den paper industrialeko erraustegia. Erabat errefusatu dugu osasun publikoaren aurka doan edozein instalazio.

**Alkate izango bazina, zer egingo zenuke lehenengo?**

Herriko eragileekin batzartuko nintzateke, herritarren parte-hartzeari eta kontrolari buruzko araudia egiteko.

**"PREMIAZKO GAI BAT KONPONDU BEHAR DUGU: LARRAMENDIN JARRI NAHI DUTEN ERRAUSTEGIA"**

**Zer esango zenioke botoa ematera joango den herritar horri?**

Aukera bakoitzari ondo errepertatuko; ezkerria eta eskuina ez dira gauza bera. Gure leloa da: *Zure herria da, ez da zure negozioa.* **Etxean nola hartu dute alkategai izateko zure erabakia?**


Ez ditu batere harritu nire erabakiak. Betidanik arlo sozialean eta politikoan inplikatu den familia batetik nator.

**Nolakoa zara ideologikoki?**

Ezkerreko pertsona bat naiz, beti lan egin izan dudana berdintasunaren eta herritarren lan-baldintzak eta eskubide sozialak hobetzeko. Euskadiko Alderdi Komunistako militantea naiz.

**Zer egiten duzu aisialdian?**

Oso pertsona aktiboa naiz, eta, erretiroa hartu berritan, denbora gehiago dut konpromisotarako eta zaletasunetarako. Mendizaletasuna eta arroila-jaietsierak gustatzen zaizkit, armak egiten ditut eta errekreazio historikoetan parte hartzen dut. Fosilen eta mineralen bildumak ere egiten ditut. Baina, batez ere, xakea dut gustuko. 50 urte baino gehiago daroatzat Bergarako xake taldean.




ANDRES  
DIEZ TIMOFEVA

- Bergara. • 65 urte.
- Postaria (egun, jubilatuta).

### "Kulturalki dagoen giro aberatsa gustatzen zait"

"Kulturalki Bergaran dugun giro anitza eta aberatsa gustatzen zait. Bergarako alde zaharrea paseatzea gustatzen zait; bereziki, gauz edo jende gutxi dabilenean. Eraikin historiko bakoitzak dituen ñabardurak aztertzea gustatzen zait. Bestalde, ez zait batere gustatzen eta pena handia sentitzen dut herrian izan dugun desegite industrialaren inguruan hausnartzen hasten naizenean; industria larregi galdu dugu".



ehbildu

IZARO ELORZA  
ARREGI

- Oñati. • 40 urte.
- Ingeniarria.

### "Herriarekin landuko dugun programa da"

"Sei egitasmo zehatz eta bederatz lan-ildo ditugu, herritarren benetako ongizatea bilatzen dutenak eta datorrenari erantzuna emango diotenak: Etxebizitza; Herri hezitzailea; Garapen sozioekonomikoa; Euskara eta kultura; Irisgarritasuna eta landa eremua; Basogintza; Natura eta kirola; Ongizatea; eta Indarkeria matxista. Horiek dira lan-ildoak. Guztiak herritarrekin batera garatuko ditugu".

# "Gauzak aldatzeko benetako borondatea eskainiko dugu"

IZARO ELORZA ARREGI EH BILDUREN ALKATEGAIA

**Iñigo Barrena Kortabarría** OÑATI  
Izaro Elorza Arregi (Oñati, 1983) Telekomunikazio Ingeniaritzan lizentziaduna eta MVE enpresako zuzendari teknikoa da. Azken lau urteotako alkatea Oñatin, EH Bildu alderdiarekin. Urteotan ikasitakotik udalgintzan ekarpena egiten jarraitzeko gogotsu da, eta ez du bere burua alkategai aurkezteko zalantzarik izan. **Bigarrenez aurkeztuko zara alkategai izateko. Zergatik?** Niretzat azken lau urteak oso aberasgarriak izan dira, asko ikasi dut prozesuan, harreman sarea sendotu dut, ikuskerak zabaldu ditut, Udalak nola funtzionatzen duen ikasi dut eta esperientzia metatu dut. Ikasitako horrekin guztiarekin herriari ekarpena egiten jarraitu gura nuen.

**Nolako taldea izango duzu lagun?** Udalgintzan eta herrigintzan esperientzia duen lantalde sendoa dugu. EH Bilduk, udalgintzaz gain, badu herrigintza ere, eta ondo uztartzen ditu bi ereduak. Ikusten dugu gizartea aldatzen ari dela, erronkak aldatzen ari direla, eta horiei erantzuteko esperientzia duen talde bat dugu, baita freskotasuna ekarriko duten pertsonak ere. **Nolakoa da Izaro Elorza?** Betidanik izan naiz pertsona arduratsua, txiki-txikitatik. Gardena eta zintzoa ere bai; azken horri garrantzi handia ematen diot, eta gezurrek min handia egiten didate. Gauzak aldatzeko konpromisoa dudala ere esango nuke, eta hainbat esparrutatik ekarpena egin gura nioke horri. Lanetik kanpo ere soziala nai-

zela esango nuke. Bestetik, barkadako momentuz ere asko gozaten dut.

### Zein da, zure ustez, Oñatiren premia nagusia?

Oñati bide onean doa. Egiteko moduak aldatzen hasi ginen duela urte batzuk, eta, zentzu horretan, bide onean doa. Herritarrekin batera sei egitasmo zehatz eta bederatz lan-ildo dituen herri programa bat osatu dugu. Trantsizio energetikoari lotuta abiatuko ditugun proiektuak daude; esaterako, merka-

## "IKASITAKO GUZTIAREKIN HERRIARI EKARPENA EGITEN JARRAITU GURA NUEN"

turatzaila propioa sortzea bidezko prezioetan saltzeko energia eta elikadura burujabetzarekin lotutako egitasmoak. Zaintza ere izango da erronka, baita etxebizitza, garapen sozioekonomikoa eta landagunea ere. Herritarren ongizatera bideratutako politikak egingo ditugu. **Eta zer eman diezaioke EH Bilduk Oñatiri, premia horiei aurre egiteko?** Gauzak hobetzeko benetako borondatea. Eredua bera aldatzeko borondatea. Ez dugu arazorik boterea banatzeko, herritarrendako espazio ahalduztaileak sortzeko, jendearekin batera gauzak egiteko eta adostasunetara iristeko.

### Zein da zuen hauteskunde programaren gauzarik garrantzitsuenak?

Eredua bera, prozesuak behetik gora egitea, herritarrekin batera. Herritik eta herriarendako egindako herri programa bat da, urtebeteko lanaren emaitza, eta datozen urteetan ere herritarrekin batera landuko dena. Sei egitasmo zehatz eta bederatz lan-ildo ditu, herritarren benetako ongizatea bilatzen dutenak eta datorrenari erantzuna emango diotenak.

# "Oñatik duen kultura ereduak bultzada handia behar du"

AITZIBER FERNANDEZ AZURMENDI PSE-EE-REN ALKATEGAIA

**Iñigo Barrena Kortabarría** OÑATI  
Aitziber Fernandez Azurmendi (Oñati, 1975) Oñatiko PSE-EEren alkategaia izango da bigarrenez jarraian. Michelin enpresan egiten du lan, Gasteizen, kalitate arloan, eta animaliak ditu gustuko. Oñatiarra izan arren, Mendozan (Araba) bizi da. **Bigarrenez aurkezten zara Oñatiko alkategai; zalantzarik izan duzu?** Ez. Nire asmoa duela lau urtekoaren berbera da. Beharrezkoa da politikaren normalizazio baten bidean jarraitzea. Izan ere, urte asko igaro dira nazionalistak ez ziren oposizioak ikusezinak izan direnak. Hala, beharrezkoa da Oñati plurala dela erakustea, baita politika ikusteko modu ezberdinak daudela ere. Konkretuki, herriarentzat onuragarria da hori,

eta baita, orokorrean, demokraziarentzat ere. **Ze proiektu egin nahiko zenituzke Oñatin alkate izango bazina?** Gure gizartea pluralagoa eta anitzagoa dela onartu beharra dugu eta kultura berriek eta mundua ikusteko modu ezberdinek ematen digutenaz baliatu behar dugu. Belaunaldi berriek entzun eta proposamen berriak zabaltzen uzten ez digun kontserbadurismoa amaitu beharra daukagu. Bestalde, emergentzia klimatikoan gaudela eta gure eredu industrialaren erregai fosilen kontsumoan oinarritu dela kontuan izanik, orain irtenbidearen parte izan behar dugu. Komunitate energetikoen garapenean sakondu beharra daukagu, autokontsumo erraztuko duten instala-

zioen plan bat diseinatzen lagunduz, hain zuzen. **Aurreko agintaldian PSE-EEK guztiatik ez zuen eserlekua lortu; hori al da helburua oraingoan?** Lehenengo helburua, lehen esan bezala, lortuta dago; hau da, aniztasun politikoa izatea, beldurrik gabekoa. Helburua argi daukagu, ahalik eta ordezkaritza zabalena lortzea. Era berean, erakutsi nahi dugu Oñatin modu bateko edo besteko pentsaera izanda ez dela inor gorde behar, eta, horrenbestez, jende horrek

## "OÑATIN PENTSAERA EZBERDINAK IZANDA, EZ DELA INOR GORDE BEHAR ERAKUTSI NAHI DUGU"

guztiak bilkuretan ahotsa izatea ere nahi dugu.

### PSE-EEK zein alorretan eragin nahi du bereziki datozen lau urteotan?

Uste dut Oñatik egun duen kultura ereduak bultzada handia behar duela; irekitzea eta parte-hartzaileagoa eta pluralagoa egitea. Oñatik trantsizio ekologikoaren parte izan behar du, eta, zalantzarik gabe, indar handien arlo horretan egin nahi dugu.

### Energiari lotuta hainbat pauso eman dira; nola ikusten dituzu horiek?

Komunitate energetikoak enpresa elektriko handietatik aldatzeko eta energia demokratizatzeko pauso garrantzitsuak dira, baina gauza gehiagotan lan egin beharra dago. Autokontsumo bultzatu eta tramiteak erraztu beharra dago.

### Herritarren eta ibilgailuen arteko elkarbizitzarako ordenantza beharrezkoa ikusten zenuen?

Dudarik gabe, beharrezkoa da mugikortasunaren arazoari aurre egitea. Oinezkoa eta mugikortasun aktiboa erdigunean jarriko duen mugikortasun politikaren aldeko apustua egin beharra dago.

AITZIBER FERNANDEZ  
AZURMENDI

- Oñati. • 48 urte.
- Artean lizentziaduna.

### "Niretzat Oñati herri bat baino gehiago da"

"Nire txikitako eta gaztetako oroitzapenak zein familiari lotutako tokiak gordetzen diren lekua da. Nire munduko lekua da. Etxean sentitzen naizen herria. Herriko txoko bakoitzak mila istorio ditu. Esaterako, Errekalde auzotik izen bera duen baserrira doan bidean nire aitaren baratzea dago, eta handik paseatzen dut nire amarekin; eta nire txakurrarekin sarritan joaten naiz San Martingo parkera".



**AMAIA EROSTARBE  
LETAMENDI**

- Oñati. • 57 urte.
- Irakaslea.

### "Bizilagunei entzutea eskaintzen dugu"

"Bizilagunei entzutea eskaintzen dugu. Gure programa egituratu duten lau ardatz estrategiko nagusiak: pertsonak erdigunean, oñatiarren ongizateari lehentasuna emanda; elkarlanean eta entzute aktiboan oinarritutako politika eta gobernantza-eredua; tokiko ekonomiaren garapena, ekipamenduak eta jasagarritasuna oinarri dituen herri lagunkoia, modernoa eta bizia gauzatzea".

# "Herri lagunkoia, modernoa eta bizia gauzatzea helburu"

AMAIA EROSTARBE OÑATIKO EAJ-REN ALKATEGAIA

**Oihana Elortza Gorostiza OÑATI**

Amaia Erostarbe Letamendi (Oñati, 1966) Filologian lizentziatua da eta Euskal Kulturaren Transmisioan graduondoa du eginda. Gaur egun irakaslea da Oñati institutuan. Zinegotzia izan da azken bi agintaldietan. Lehenengo aldiz aurkeztu da alkate izateko.

**Zeinek konbentzitu zintuen EAJko alkategai izateko?**

Uri Buru Batzarrak egindako proposamena izan da, eta Oñatiko Udalean bi legegalditan zinegotzia izan ondoren hartu dut 2023ko hauteskundeetan EAJko zerrendaburu izateko erabakia. Izan ere, Oñati maite dut eta Oñati oñatiarrentzat bizitzeko herririk onena izatea gura dut. Oñatik aurrera egingo badu, ezinbestekoa da lanean jarraitzea.

**Zerk ematen dizu bertigoa eta zerk erakartzen zaitu?**

Behin EAJko alkategai izateko erabakia hartuta, aurrera egin dut, erabakitaz. Jomugan daukat Oñatin aldaketa lideratzea, geure ideietatik abiatu eta geure proiektuekin eta geure mundu-ikuskerarekin lan egitea. Esango nuke, bestalde, ardura handia daukadala oñatiarrek eta Oñatirekin. Zer da, bada, ederragoa herritarren eta norbere herriaren alde jarduteko abagunea izateko baina?

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Emakumea naiz, ama, alaba... eta irakaslea. Gustuko dut nire lana. Balioa ematen diet errespetuari eta ondo egindako lanari; onestasanari ere bai. Saiatzen naiz patxadakoa izaten. Gustuko ditut bai erritmo arinean

paseatzea naturarekin gozatu bitartean, bai artea eta margoatzea, baita irakurtzea ere. Arabako Errioxaren zatitxo bat ere bihotzean daukat.

**Zeren beharra du Oñatik?**

Oñatik, jakina, badu zer hobetu. Besteak beste, bizi-proiektua Oñatin egin nahi duten gazteek etxebizitza eskuratzeko eragozpen nabarmenak dituzte gaur egun, eta izango dituzte datozen urteetan. Pertsonak zaindu egin behar ditugu. Oñatik, gainera, XXI. mendeko musika-eskola

**"JOMUGAN DAUKAT OÑATIN ALDAKETA LIDERATZEA GURE IDEIETATIK ABIATUTA, GURE PROIEKTUEKIN"**

behar du; herritarrekiko eta herriko ondarearekiko errespetua berreskuratu behar da; mugikortasunean atzean geratuta gaude, garraio publiko eragin-korrik gabe; ez dago kanpoko igerilekurik, futbol-zelaia ere espaldikoa da....

**Zeintzuk dira zuen proposamenak?**

Oñatiko gure lehentasunak hauek dira: bereziki, gazteek bizi-proiektua herrian egin dezaten etxebizitzak egingo ditugu Garayko eremuan; musika-eskola berria Olaiturrin eta kirolgunea -kanpoko igerilekua- berri-Korriuean; gizarte-zerbitzu berritzaileak diseinatzea San Martingo gunean, energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien aldeko proiektu alternatiboak sustatzea.

**Nolako taldea izango duzu?**

Oso talde ona da, eta lanerako ilusioa, gogoia, ideiak eta kemena badauzkagu. Asko berriak dira, eta lanerako gaitasun handikoak; askotariko arloetan arituak eta adituak dira, eta nor bere arloan badauka nahikoa eskarmentu. Maite dugu Oñati; herritarren eta herriaren alde lan egiteko konpromiso irmoa dugu.

# "Oñati gizadiaren ondare izendatzea proposatu dugu"

RICARDO GUIASADO OÑATIKO ALDERDI POPULARRAREN ALKATEGAIA

**Oihana Elortza Gorostiza OÑATI**

Ricardo Guisado Urbano (Kordoba, 1965) da Alderdi Popularraren Oñatiko hautagaia. Madrilen bizi da, baina Donostiarekin lotura handia du, aita hangoa baitu. Albaitaritzan graduatua eta Zientzia Politikoen lizentziatua da. Estatuarendako Fundazio baten lan egiten du, nazioarteko harremanetan.

**Ricardo Guisado-Balanzategui izen-abizenekin ezagutu zaitugu; zerrendetan Guisado Urbano izen-abizenekin zator.**

Nire amona zen Balanzategui. Hura Gazteizen jaio zen, baina jatorria Oñatin zuen, haren aurrekoak Santxolopeztegiako Balanzategi baserrikoak baitziren. Nire aitona bi bider ezkondu zen eta bigarren emaztea nire amona izan zen, Balanzategi

jatorria zuena. Horregatik, beti ezagutu izan gaituzte Guisado-Balanzategui moduan, lehenengo familiarengandik bereizteko. Nire aita da Guisado-Balanzategui, eta guk aspaldi hasi genuen erregistroan abizenak aldatzeko prozesua. Baina luze da eta ez dugu lortu aldatzerik zerrendak publiko egin aurretik.

**Zein da zuk Oñatirekin izan duzun lotura?**

Amonak jatorria hemen izanik, familian beti mantendu da Oñatirekiko maitasun hori. Nire aitak txiki-txikitan ekarri ninduen Oñatira, Arantzazura, baserrira... Eta ni herri honekin maitemindu nintzen. Badira jaiotzez oñatiarrak direnak; nire kasuan, maiteminez naiz oñatiarra.

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Liberala naiz. Liberala, ñabar-dura demokristauekin. Gehiago naiz erdi-eskuinekoa eskuinekoa baino. 16 urterekin Zentro Demokratikoaren Batasunako (UCD) militante izan nintzen, eta gero, beti jarraitu dut ibilbide zentristagoa. Baina bereziki naiz liberala, asko sinisten dut askatasunean. Pertsona moduan uste dut bizitza bizi egin behar dela, baina besteengan pentsatuta.

**Zein uste duzu dela Oñatik duen premiarik nagusia?**

**"BADIRA JAIOTZEA OÑATIARRAK DIRENAK; NIRE KASUAN, MAITEMINEZ NAIZ OÑATIARRA"**

Herri bezala, garbitasuna. Kaleen eta eraikinen garbiketa. Ikusi besterik ez dago zelaz dagoen kalea, pintaketaz eta pankartaz beterik. Lotsagarria da. Eta baita ondarearen zaintza ere. Ondarea hondatuta du erabat. Unibertsitatea, parroikia... Ez dut ulertzen nola ez den lehentasuna. Baserriek ere uste dut lehentasun beharko luketela. Ez dago komunikazio onik eta bigarren bizitza bat eman behar zaie baserriei.

**Zein dira zuen proposamen garrantzitsuenak?**

Turismorako plan zehatz bat egitea, Oñati gizadiaren ondare izendatzea. Horrek zerbitzuetan eta komertzioetan izango duen onura zuzenarekin. Komertzioek turista gehiago etorriko direla ikusten badute, gehitu egingo dira. Ulertzen dut Oñatin jendeak ez gura izatea masifikatutako turismorik, baina monumentuekin lotutako turismoa inoiz ez da masifikatua. Eta Oñati gizadiaren ondare izatea lortzen bada eta Fiturren stand propioa izatea lortzen badugu, horrek onura handiak ekarriko dizkio herriari.



**RICARDO GUIASADO  
URBANO**

- Kordoba. • 58 urte.
- Albaitaritzan graduatua.

### "Lotsagarria da ondarearen zaintza"

"Proposamen nagusien artean, herri bezala, garbitasuna. Kale eta eraikinen garbiketa. Ikusi besterik ez dago zela dagoen kalea, pintaketaz eta pankartaz beterik. Lotsagarria da. Eta baita ere ondarearen zaintza. Ondarea hondatuta du erabat. Unibertsitatea, parroikia... Ez dut ulertzen nola ez den lehentasuna. Baserriak ere uste dut lehentasun beharko luketela, bigarren bizitza bat eman behar zaie".



MIKEL URIBETXEARRIA  
 BARRENA

- Aretxabaleta. • 56 urte.
- Ingeniarria.

### "Gobernantza-eredu gardena da gurea"

"Herritarren bizi-kalitatea hobetzea da gure helburua, eta Udalak zuzenean eman beharreko zerbitzu eta azpiegiturak garatzea. Baina zer egiten den bezain garrantzitsua da nola egiten den. Hor dago EAJren hautagaitzaren balio nagusia: gobernantza-eredu irekia eta gardena. Horretan sakontzen jarraitzeko konpromiso historikoa dugu, gertutasuna mantenduz eta herritarrei lehenetsia emanez".

# "Aretxabaleta herri atsegina izateko jarraituko dut lanean"

MIKEL URIBETXEARRIA EAJ-REN ALKATEGAIA

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Ingeniaritza Tekniko ikasketak egin ondoren, enpresa pribatuan egin zuen lan 23 urtez Mikel Uribetxebarria Barrenak (Aretxabaleta, 1967). Azken zortzi urteak Gipuzkoako Foru Aldundian dabil, Bide Azpiegiturako Plangintza eta Ustiaketa zuzendari.

**Hiru agintalditan izan zara zinegotzi; bigarren EAJren zerrendaburu izateko zeinek konbentzitu zaitu?** Jende ugari eskatu zidan berriro aurkezteko, eta erabakia, asko pentsatuta, familiarekin eta ingurukoekin hitz eginda eta konbentzimendu osoz hartu nuen. Ardura eta konpromiso kontua dela uste dut. Herrigintzan modu askotan eragin daiteke, eta Udalean jardutea moduetako bat da. Herria ezagutzen dut, eta nire

lan munduko zein udal ibilbidean jasotako esperientzia eta ezagutza baliagarri izan daitezke.

**Ondo ezagutzen duzu udal jarduna; zerk ematen dizu bertigo handien?** Bertigoa baino, nahiago dut *ardura* berba erabiltzea; batetik, kezka, eta, bestetik, erantzukizuna ere adierazten dituelako. Izan ere, Aretxabaletak 7.000 bezero ditu eta haiei merezi bezala erantzun gurako nieke. Era berean, herrian lau urtean sor daitezkeen arazoei konponbidea topatzeak erakartzen nau. **Zein da Aretxabaletaren premia nagusia?**

Aberastasuna herrian geratzea eta bertan inbertitzea. Aretxabaleta herri atsegina izan dadin jarraituko dugu lanean, herrian bertan bizi eta herrian kontsumitzeko; adin tarte guztientzako

herri bizia eta dinamikoa izateko. Joera globalen aurrean, tokikotasunaren balioetan sakontzen jarraitu behar dugu, herriak eta herriko eskaintzek bertakoentzako eta kanpokoentzako erakargarriak izaten jarrai dezaten: herri eroso, beharrezko zerbitzuak dituen, komertzio eta ostalaritza indartsuarekin, atsegina eta dinamikoa.

**Eta premia horiei aurre egiteko zer proposatzen du EAJk?**

Gure programak norabide horretan eragiten du; alde batetik,

### "PREMIAZKOA DA ABERASTASUNA HERRIAN GERATzea ETA BERTAN INBERTITzea"

herriak eta herritarrek behar dituzten azpiegiturak eraikiz eta zerbitzuak eskainiz. Zerbitzu berrien artean daude komentuan eta osasun zentro berrien eskainiko dugun zaintza zerbitzua eta zentro soziosanitarioa, hirugarren adinekoen ongizatea hobetuko duena. Azpiegiturari dagokienez, honako inbertsio hauek proposatzen ditugu: Kurtzebarri institutu berria, Lau-sittako Hornidura eta Saneamenduko Plan Berezia (PEAS) eta urbanizazioa, Iturrigorri pilotalekuaren eraberritzea eta hutsik geratuko diren azpiegiturak antolatu eta eragileen beharretara bideratzea. Eta, bestetik, herria dinamizatzeo programak aurrera eramanez, bai zuzenean Udaletik antolatutako ekintzekin zein herriko eragileekin elkarlanean: kultura eta sorkuntza, kirola, gazteak eta adinekoak...

**Potentzialik badu Aretxabaletak?**

Bai, aretxabaletarrak dira horiek. Era berean, ingurune paregabea daukagu ekintzak antolatzeo eta kanpoko jendea erakartzeko, eta, hain zuzen, ez dugu behar beste baloratzen.

# "Herria egokitu behar da klima larrialdiaren aldaketetara"

RAFA BERNAL ELKARREKIN KOALIZIOAREN ALKATEGAIA

**M.A.** ARETXABALETA

Equo Berdeak taldeko militantea da Rafa Bernal Gato (Aretxabaleta, 1976). 2019ko udal hauteskundeetan ere koalizioko alkategaia izan zen, nahiz eta zinegotzirik lortu ez orduan. Eskoriatzan zinegotzia izandakoa da, 2015etik 2019ra bitartean.

**2019an aurkeztu zinen, baina ez zenuten zinegotzirik lortu; zergatik erabaki duzu berriro aurkezte?**

Gauzak aldatzeko erakundeetan egon behar delako. Erakundeetan sortzen dira legeak, eta, ondoren, gure gizartea arautuko dute horiek. Udalak bere esku-menak eta mugak ditu, baina gauza asko egin daitezke, eta bertan egon behar dugu.

**Zein ideiatan sinisten duzu?**

Gaur egungo sistema, gure eguneroko bizitza arautzen duen

sistema sozioekonomikoa, zahar-kitura dago. Eredu horren alternatiba bat bilatu behar dugu, non pertsonak eta planetaren mugak errespetatzen diren. Gaur egun, kapitala lehenesten da. Gauza asko birplanteatu behar direla uste dut, eta Elkarrekin koalizioak defendatzen dituen politikak bat datoz nik pentsatzen dudarekin: zerbitzu publikoak indartu egin behar dira, pertsonen osasunaz arduratu behar dugu, batez ere osasun mentalaz, gure kontsumo-ohituren inguruan hausnartu egin behar dugu...

**Zein premia ditu Aretxabaletak?**

Klima larrialdiaren aldaketetara egokitu behar da herria. Aretxabaleta erresiliente baten alde lan egin behar dugu. Gure energia-kontsumoa murriztu behar

dugu. Leku batetik beste batera mugitzeko ahalik eta eragin txikiena izaten saiatu behar dugu, eta temperatura-igoerei nola aurre egingo diogun hausnartu behar dugu. Zer gertatuko da urarekin? Eta lehorteekin? Basoak prest daude etorkizuneko suteei aurre egiteko? Sekula garrantzirik eman ez diegun gaiei heltzeko ordua da.


**Zeintzuk dira zuen hauteskunde programaren hiru ildo nagusiak?** Deba ibaia gaizki tratatu dute; egoera tamalgarrian dagoen zati

### "DEBA IBAIA NATURALIZATU EGIN BEHAR DUGU ETA BERTAN BIZI DIREN ANIMALIAK BABESTU"

bat dugu. Ibaia naturalizatu egin behar dugu eta bertan bizi diren animaliak babestu. Isuriak non sortzen diren ikusi behar dugu, eta hor jarri arreta. Beste lan-ildo nagusietako bat mugikortasuna da. Denok mugitzen gara autoarekin; badirudi autobusak gazteentzat eta autorik ez dutenentzat bakarrik direla. Gure bailaran ez du zentzurik autoz etengabe mugitzeak, baina, horretarako, autobus zerbitzu duina behar dugu. Eta hirugarrena trantsizio energetikoa da. Kontsumoa murriztu egin behar dugu eta autokontsumoa handitu; muga batzuen barruan, noski.

**Udalean aldaketa nahi duzu.**

Orain arte egon direnek denbora asko daramate eta egin dutena ez zait gustatzen. Betiko politika ikusten dut, kudeaketakoa. Enpresa moduan funtzionatu dute eta etorkizuneko ikuspegia falta izan zaie. Ezarritako mugak gainditu behar ditugu, eta nahastu. Herriko merkataritzak, adibidez, izugarri kezkatzen nau; uste dut ez dagoela plan integralik hori bultzatzeko.




RAFA BERNAL  
 GATO

- Aretxabaleta. • 47 urte.
- Geologoa.

### "Ezkerrarekin eraikiko genituzke zubiak"

"Ezkerreko hiru aukera daude Aretxabaletan, baina bakarrik eskaintzen du aukera berdea. Equo Berdeak taldeak, gainera, zentzua du koalizioan, kolore berdea jartzen duelako. Ordezkaritza lortuz gero, ezkerrekin eraiki beharko genituzkeela zubiak argi dago. Horrek, baina, ez du esan nahi babesa doan eskainiko dugunik. Lehenik eta behin, gaiak mahai gainean jarriko ditugu, eta zer egin erabakiko dugu gero".



ehbildu

GARI ITURBE  
ETXEBARRIA

- Aretxabaeta. • 44 urte.
- Irakaslea.

### "Udalak izan behar du herritarren bidelagun"

"Herri bizia da Aretxabaeta; askotariko eragileak eta oso aktiboak daude, eta herritarrak parte-hartzaileak gara. Hori izugarriko altxorra da. Herritarrak dira herria bultzatzen dutenak eta Udalak izan behar du erreminta bat edo bidelagun bat. Herritarrek izan ditzaketen trabendako zubiak eraiki behar dira, samurtasunak eman eta azkarrago erantzun, guztia izan dadin errazagoa".

# "Guztion beharrak aseko dituen herri bat irudikatzen gatoz"

GARI ITURBE EH BILDUREN ALKATEGAIA

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Industria Delineazioko goi mailako zikloa eta jekanzazio arloko ingeniari tekniko ikasketak egin zituen Gari Iturbe Etxebarriak (Aretxabaeta, 1979). Irakaslea da Aretxabaeta Lanbide Eskolan, eta metodologia berrien ikastetxeko koordinatzailea ere bai. Lehenengoz aurkeztu da Udalean jarduteko.

### Zeinek konbentzitu zintuen zerrendaburu izateko?

Proiektuak konbentzitu ninduen, eta horren bueltan batuko zen jendeak; hau da, taldeak. Etxeko eta inguruko babes osoa izan dut, gainera.

### Berria izango zara udal jardunean; bertigorik bai?

Udal jardunean bai, berria naiz, baina udal taldearen inguruan, modu batera edo bestera, la-

guntzen ibili izan naiz. Sortu dugun taldeak jardun horretan egin dezakeen ekarpenak motibatzen nau, bereziki. Hainbat arlotatik datorren jendea da; eguneroko erronkei zein administrazio-lanei heltzeko gertatutako jendea dago, baita Udalean eskarmentu handia duena ere. Hala, oso talde indartsu egiten du horrek.

### Zein da Aretxabaetaren behar nagusia?

Guztion beharrak aseko dituen herri bat irudikatzen dugu, guztiontzat kalitatezkoa izango den bizileku bat. Alde horretatik, badaude premia batzuk, eta herritarrengandik ere jaso ditugu horiek: erabilpen askotariko guneen estaldura falta, kuarteraren azpiegitura, komentuko ereduaren kudeaketa orekatua,

harrera-plan bat, konponketen aurrean erantzuteko azkartasun falta, emakumeen ahalduzko gunea, etxebizitzaren gaiari heldu beharra –alokairua sustatzeko–, etxe tutelatuaren hausnarketa, pilotalekuaren beharrak, jasagarritasuna eta beste hainbat, askotariko arloetan.

### Eta zer egin dezake EH Bilduk behar horiei aurre egiteko?

Modu integralean heldu behar diegu premia horiei, zelako herria nahi dugun erantzunaz, eta, horretarako, bideratu behar-

**"HERRIKO ERAGILEEKIN AURRERA BEGIRAKO ESTRATEGIA BAT MARKATU GURA DUGU"**

ko litzateke kolektiboen eta eragileen arteko hausnarketa. Aretxabaeta herri bizia da eta bizitasun hori zaindu egin behar da, horrek laguntzen duelako esandako premia horiei guztiei aurre egiten. Esaterako, hor dugu Aretxarte merkatarien elkarte egiten dabilen ahalegina; kuarteraren inguruan sortu den mugimendua; Basotxo erretiratuen elkarte zahartzar aktiboaren eta bakardadearen gainean egiten dabilen lanketa; gazteen ahalegina jai herriko parte-hartzaileak izateko; herriko feministek emakumeen ahalduzkoaren eta erregulazioaren gainean egiten dabilen lanketa; Loramendik euskal kultura sustatzeko egindako lana, UDAk egiten duen ahalegina balioak lantzeko... Horiek guztiek egiten dute Aretxabaeta bizi bat. Bizitasun hori aktibatuta mantentzeko espazioak bideratu behar zaizkie kolektibo horiei guztiei batetik, eta bestetik, eragile horiekin guztiekin aurrea begirako estrategia bat markatzea nahi dugu, gure energia eta inbertsioak ere bide horretan joan daitezen.



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023

## JARRAITU HAUTESKUNDEAK 'GOIENA.EUS'-EN

GERTUKO INFORMAZIO GUZTIA, ESKU-ESKURA, KLIK BAKARREAN.

Eta hauteskunde gauean jarraitu herriz herriko boto-zenbaketa zuzenean. Grafikoak, datu konparaketak, zinegotziak...

GAINERA, 19:45EAN, TELEBISTAKO ZUZENEKO SAIOA GOIENA.EUS-EN JARRAITZEKO AUKERA IZANGO DUZU!

BAITA SARE SOZIALETAN ERE!



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA



**goiena**  
Zu hemen zaude.





**JOSERRA ZUBIZARRETA ALEGRIA**

- Eskoriatza. • 68 urte.
- Irakaslea.

### "Pertsonetan eragin nahi dugu"

"Gobernuaren eta kudeaketaren erdigunean egoteko proposamenak egingo ditugu eta herriko baliabideak hobetzen eta garatzen jarraitu nahi dugu. Gure asmoa Musika Etxea Kultur Etxera eramatea da. Badaude proiektu batzuk dagoeneko martxan, datorren agintaldian gauzatzekoak direnak: skate parkea, kiroldegiko muskulazio gimnasioa eta San Pedron eta Aranburuzabalaren irisgarritasun hobekuntzak".

## "Gure estiloa herri inklusiboa eta parte-hartzailea lantzea da"

**JOSERRA ZUBIZARRETA ALEGRIA** EAJ-REN ALKATEGAIA

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Eskoriatzako EAJren alkategaia izango da Joserra Zubizarreta Alegria (Eskoriatza, 1955). 2015a ezkerreko da Eskoriatzako alkate; aurretik, Arizmendi eta Almen ikastoletako irakasle izan zen. Hirugarren aldiz jarraian aurkeztuko da, beraz, herriko alkate izateko.

**Nolakoa da Joserra Zubizarreta?**

Eskoriatzar peto-pettoa, entzuten dakiena, eta lotsati samarra. Etxekoekin eta lagunartean oso gustura egoten dena. Eta abertzalea; zer, bestela? Txikitatik mamitu izan dut abertzaletasuna. Baina oso garbi daukat abertzaletasunak inklusiboa izan behar duela. Herria egiteko denon iritzia hartu behar dela kontuan, ez bakarrik norberaren ideiak.

**Zerk bultzatu zaitu berriro aurkeztera?**

Etxean lagundu naute, eta herri honekin daukadan konpromiso eta maitasunak bultzatu naute berriz aurkeztera. Martxan daukagun proiektuak eta buruan daukagunak garatzeko ilusioak ere lagundu dit. Gainera, nire aldamenen orain Udalean dagoen talde osoa egongo da, baita jende berria ere.

**Eskoriatzan ba al dago gaur egun gairen bat ahoz aho dabilena?**

Kexa handiena sortzen duen gaia egoera ekonomikoa dela esango nuke, inflazioa, maileguren interesa... Horregatik, guk esfortzu berezia egin dugu gehien behar dutenei laguntzeko, hainbat kanpaina martxan jarrita: erosketa-bonuak eta energia-bonuak, esate baterako. Baina

baita ikusten ez diren laguntzak ere, gizarte zerbitzuen eskutik. EAJ Udal Gobernuan dagoenetik inoiz baino diru gehiago bideratu da egoera txarrean daudenei laguntzeko.

**Geotermia proiektua ere martxan...**

Hori oso garrantzitsua da, jasangarritasunaren eta diru arrazpenaren aldetik ekarriko duenagatik. Geotermia sistema berriak, gainera, Luis Ezeiza eskolako berogailu sarea berritzeko aukera ere emango du. Proiektu horrekin lotuta, kirol-

**"NIRE ALDAMENEAN ORAIN UDALEAN DAGOEN TALDE OSOA EGONGO DA, BAITA JENDE BERRIA ERE"**

degiko teiltuan eguzki-panel gehiago jartzea aurreikusten dugu. Eta lan horiek egiterakoan sabaia ere konponduko da, itoginak behin betiko kentzeko. Azkenik, kanpoko igerilekuaren egitasmoa berreskuratu nahi dugu, pandemiagatik atzean geratu baitzen.

**Jubilatuaren taberna itxita, batzeko tokia eskatzen dute erabiltzaileek. Baduzue proposamenik?**

Jubilatuaren taberna itxita egoteak ezinegon puntua sortu du batzuegan; ulertzekoa da, eta gu gara damutzen lehenak. Hori esanda, argitu beharra daukat taberna zerbitzua izan ezik gaintzeko erabilera guztiak martxan daudela. Bide batez, argitu nahi dut gaia Olazar jubilatuaren elkartearekin hasieratik aztertzen aritu garela eta laster irtenbidea emango zaiola.

**Eskoriatzako Elizateen Elkarteak hauteskundeetara ez aurkezteak nola eragingo du Udalean?**

Auzo-alkate eta eragile guztiak orain arteko elkarlan sistema berbera mantendu nahi dugu, haiek dakitelako, guk baino hobeto, zeintzuk diren euren elizateetako beharrak.



**JUAN LUIS MERINO SANABRIA**

- Aretxabaleta • 59 urte.
- Komunikazio idazkaria.

### "Eskoriatza ez dago gainbeheran"

"Egia da pandemiak kalte handia egin digula harremani dagokien, eta bizitzeko eta kontsumitzeko ohiturak aldatu egin dira. Neguan, adibidez, arratsaldeko zortzietan kalean ez zebilen inor, eta lehen, aldiz, bai. Uste dut Eskoriatza ez dela gainbeheran dagoen herri bat. Gauzak egin nahi dituen jendea bizi da, eta, hain zuzen ere, jende horri tresnak eman behar zaizkio".

## "Erretiratuaren etxea itxita dago, eta ezin da itxita egon"

**JUAN LUIS MERINO** ELKARREKIN ESKORIATZA KOALIZIOAREN ALKATEGAIA

**Mikel Zumalde Etxabe** ESKORIATZA

Juan Luis Merino Sanabria (Aretxabaleta, 1964) Elkarrekin Eskoriatza koalizioaren alkategaia da. 59 urte ditu eta gaur egun Ezker Anitzeko komunikazio idazkaria da. Horrez gain, Deba-Urola barrutiko zerrendaburua izango da Elkarrekin Gipuzkoaren izenean Batzar Nagusietarako. Herritarren bizitzak hobetzeko lan egingo duela dio.

**Elkarrekin Eskoriatza koalizioaren alkategaia zara; zergatik aurkeztu zara?**

Aurrerapauso bat eman behar genuelako aurkeztu naiz; zinegotzi izan nintzen 12 urtez jarraian Eskoriatzako Udalean eta beste lau urtez Arrasateko Udalean.

**Ze ideiatan sinisten du Merinok?**

Ezkerreko oinarriko printzipioetan: justizia sozialean, feminismoan, iraunkortasunean, ingurumenean, errepublikanismoan eta gizaki guztiok baldintza berak izatean.

**Eskoriatzan EH Bilduk EAJrekin lehia estua izango du lehen postuarengatik. Ze rol jokatu nahi du zuen koalizioak?**

Hauteskunde hauetan aukera asko daude EAJren eta EH Bilduren artean berdinketa gertatzeko. Horregatik, Udalean sartu nahi dugu; badakigu indar minorista izango garela, baina balantza ezkererantz bideratu dezakegu.

**40 urte igaro eta gero, Eskoriatzako Elizateen Elkarteak ez da aurkeztuko. Horrek ere eragina izango du.**

Bai. Botoren bat etor daiteke gure koaliziora, baina, egia esan,

Eskoriatzako Elizateen Elkartearen botoak EAJren eta EH Bilduren artean banatuko dira. **Eskoriatzan zentralizatu, zein premia dituzte herriak?**

Eskoriatzan, beste herri batzuetan bezala, gauza asko falta dira. Erretiratuaren etxea itxita dago, eta ezin da itxita egon. Horrez gain, erresidentzia erdipribatua da, Udalak pisu handia baitu. Arazo ekonomiko asko ditu. Eta beste gauza bat gazteak dira; ez dago kultura eta kirol-plan estrategikorik.

**"ESKORIATZAKO ELIZATEAK ELKARTEAREN BOTOAK EAJ-K ETA EH BILDUK JASOKO DITUZTE"**

**Begi-bistakoa da azkenaldian herriaren komertzio asko itxi direla...**

Bai. Hainbat faktorek eragin dute hori. Komertzio eta zerbitzu gehiago dauzkaten bi herri ditugu ondoan: Arrasate eta Aretxabaleta. Eta, beste alde batetik, Interneteko erosketak daude. Pandemiak kontsumo-ohiturak aldatu egin ditu.

**Zein izango dira hauteskunde-programako hiru proiektu nagusiak? Liberatzen soldadak jaisteko proposamena proposatu duzue?**

Ni 16 urtez izan naiz zinegotzi, eta ez dut inoiz kobratu nire ustez herritarrentzat onuragarria zen lan bat egiteagatik. Gaur egungo alkatearen soldata lotsagarria da, eta udal diru-kutxetan egindako lapurreta. Horrez gain, progresibitatez elikatuko den tokiko zerga-sistema defendatuko dugu, zergadun bakoitzaren ahalmen ekonomikoa oinarrituko dena. Eta etxebizitzaren gaia ere ukitu nahi dugu.

**Bukatzeke, zein emaitza espero dituzu maiatzaren 28rako?**

Gure helburua Udalean sartzea da; alegia, korporazio berriaren parte izatea.



# "Ideia berriekin gatoz, herria berpizteko helburuarekin"

EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA EH BILDUREN ALKATEGAIA

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Edorta Zubizarreta Alegria (Eskoriatza, 1962) da Eskoriatzako EH Bilduren alkategaia. Aseguru-agentea eta administraria da, eta Eskoriatzako alkatea izan zen 1999tik 2003ra arteko agintaldian. "Zintotasunez, konpromiso eta erantzukizun sozialaz lan egingo dugu Udalean jarduteko, eta, horretarako, talde oso anitza osatu dugu; esperientzia eta gaztetasuna uztartzen dituen taldea da", adierazi du.

**Nor da Edorta Zubizarreta?**

Eskoriatzan bizi dan eskoriatzar bat naiz. Entzuten dakien pertsona bat naizela esango nuke, eta edozeini laguntzeko prest dagoena. Ezkertiarra eta independentista naiz. Hala ere, ideologietatik harago, Eskoriatzako Udalean egongo garen taldeen

arteko elkarlana sustatzea nahi dugu, eskoriatzarren onurarako. Egunerokotasunean, batez ere, nire lanaren inguruan aritzen naiz; betiere, familian egoteko tarte bat hartuz.

**Zergatik aurkeztu zara udal hauteskundeetara?**

Eskoriatzak aldaketa baten beharra duela ikusten dut, eta, batez ere, horrek bultzatu nau Eskoriatzako EH Bildu alderdiko zerrendako lehenengo kide aurkeztera. Horrekin batera, EH Bilduko lantaldeko kideek, lagunek eta etxekoek animatu naute.

**Nolakoa da aurkeztu duzun taldea?**

Oso anitza; esperientzia eta gaztetasuna uztartzen dituen taldea da aurkeztu duguna. Lan egiteko gogoia duen taldea osatzea ezinbestekoa iruditu zaigu.

**Zein behar ditu gaur egun Eskoriatzak? Zein da herriko premia nagusia? Zer aldatuko zenuke?**

Herri izaera eta kale bizitza berreskuratu behar dira. Horretarako, beharrezkoa izango da herritar eta elkarte guztien arteko elkarlana. Eskoriatzan potentzialtasun handia daukagu, alde horretatik, eta Eskoriatzako Udalak erraztasunak eta laguntza eman behar ditu. Gainera, herritarrek herrian bizi, erosi eta kontsumitzeko bertako merkataritza bultzatzea era ezin-

**"TALDE OSO ANITZA OSATU DUGU, ESPERIENTZIA ETA GAZTETASUNA UZTARTEN DITUENA"**


bestekoa izango da. Konfiantzatik elkarbizitza sustatuz eta gauzak egiteko eta aurrera eramateko beste modu bat sortu nahi dugu udal jardunean; guztion iritzia eta ekarpenak kontuan hartuz. Horrekin batera, herrian bolo-bolo dauden gaiei erreferentzia eginez, jubilatuen etxearen egoerari irtenbidea eman behar zaio eta Manuel Muñoz kiroldegiaren instalazioen hobekuntzarako plan baten beharra dago.

**EAJ aurkeztuko da, Elkarrekin Eskoriatza, PSE eta EH Bildu. Eskoriatzako Elizateen Elkarte, bestalde, oraingoan ez. Nola eragingo du horrek?**

Emaitzetan eragina izango duela uste dut. Hala ere, Udalaren organigrama barruan batzorde bereziren bat sortu beharko da, auzoetako eta elizateetako beharrik eta arazoak tratatuko dituen.

**Eskoriatzako alkate izendatzen bazaituzte, zein izango da egingo duzun lehen gauza?**

Lehenengo eta behin, alkatearen soldata jaitsi egingo nuke, eta gero, udaletxeko leihoak zabaldu, haize berriak sartzeko.



**EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA**

- Eskoriatza. • 60 urte.
- Administraria.

**"Zerbitzuetan aurrera egin behar dugu"**

"Udal jabetzako zenbait lokal egokituko ditugu. Gainera, herriko eragile batzuek espazio beharra daukate, eta horri erantzutea ere garrantzitsua izango da. Bestetik, etxebizitza plana martxan jartzeko asmoa dugu; horren bitartez, gazteen emantzipazioan laguntzea lortuko genuke, adibidez. Eta, azkenik, energiaren prezio igoerei eta klima larrialdiari erantzuteko pausoak eman beharrean gaude".

ZINEGOTZIAK 5  
ZERRENDAK LEINTZ GATZAGAKO HAUTESLEEN TALDEA.

## LEINTZ GATZAGA



# "Gatzaga bizirik mantentzea izango da premia nagusia"

DORLETA ELKOROBARRUTIA LEINTZ GATZAGAKO HAUTESLE ELKARTEAREN ALKATEGAIA

**Mikel Zumalde Etxabe** GATZAGA

Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga (Leintz Gatzaga, 1973) Leintz Gatzagako Hautesle Taldearen hautagaia da. Arrasaten egiten du lan, Laboral Kutxako Marketing departamentuan. Ez da haren lehen aldia izango udal txean, zinegotzi izan baitzen 1999-2003 agintaldian. Hautesle Taldea da herrian aurkeztu den zerrenda bakarra.

**Zergatik aurkezten zara alkategai bezala?**

Gatzagar bezala, herriarekiko konpromisoa sentitu izan dudalako beti.

**Zeinek konbentzitu zintuen zerrendaburu joateko?**

Nik neuk konbentzitu dut neurburua hausnarketa askoren ondoren, baina erabaki horretara heltzeko herritar talde bat ibili da buru-belarri "presio" lanetan. Ez da azken momentuko kontua izan, iaiztik batzuk hasiak ziren nirekin hizketan. Egia da, halere, oso estiman izan dudana eta herriarendako langile sutsua izan den norbaitek eman zidala azken bultzada.

**Zure herria nolakoa den, zein ezagurri dituen kanpoko bati azaldu beharko bazenio, zein kontatuko zenioke?**

Altxor bat da, gure aitzindariak landutako harri bitxi bat, gaur egun oraindik izugarritzko dir-

dira duena. Esentzia mantendu du eta oraindik oso erakargarri izaten jarraitzen du.

**Zein da zure herriaren premia nagusia?**

Herri txiki izanik ere, bizirik mantentzea.

**Zer proposatzen duzue premia hori mantentzeko?**

Leintz Gatzaga jasangarri izateko lan-ildoak ongi markatzea.

**"GATZAGAN BIZI DIREN GAZTEAK ETA FAMILIAK BERTAN MANTENTZEKO LAN EGINGO DUGU"**

Jasangarritasunaz hitz egiten dugunean denoi etortzen zaizkigu burura ekologia, natura, klima aldaketa, jasangarritasun soziala... Baina, herri txikiok jasangarri izateko gure erronka propioak ditugu eta horiei aurrez-aurre heltzea da erronkarik garrantzitsuenak. Garena garelako gara, baina, izaten jarraitu nahi dugu. Horregatik, Gatzagan bizi diren gazteak eta familia gazteak bertan mantentzeko lan egingo dugu buru-belarri eta baita herritar berriak erakartzeko ere. Horrek ez du esan nahi gure nagusiak ahaztuko ditugunik, ezta gutxiago ere.

**Zein proiektu zehatz burutzea gus-tatuko litzazuke?**

Aurretik martxan dauden proiektuak ezagutu beharko ditugu lehenik, baina, paraleloki beste lan-ildo batzuk landuko ditugu; Hutsik dauden etxebizitzaren inguruko lanketa, mugikortasun jasangarria sustatu, udal eraikinen erabilpena eraginkortu...




**DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA**

- Leintz Gatzaga • 50 urte.
- Marketin aholkularia

**"Herriko hainbat txoko ditut gustuko"**

"Herriko txoko asko ditut gustuko, baina txikitako oroitzenak ekartzen dizkidaten horiek dira niretzat maiteenak: Labidean – kanposanturantz doan bidean– dagoen harrizko mahai baten pasatu ditut ordu asko ikasten; Dorletarako bidean dauden zenbait txoko. Urteetan berdin mantendu dira".



ehbildu

OLATZ LEZETA  
URZELAI

- Antzuola. • 46 urte.
- Erreka Taldeko langilea.

### "Lanerako prest, talde lanean sinesten dut"

"Lanerako prest nago, eta uste dut hori badela dudana indargune bat. Talde lanean ere sinesten dut, eta Euskal Herri aske eta euskalduna amesten dut. Etxekoan babesa ere badut, eta berdin taldean; hori gabe, ez nintzateke alkategai izango. Eta baita herrian ere; horrelakorik ez nuen espero, eta asko indartu nau. Ikusi egin beharko da hemendik lau urtera zer dioten, baina, oraingoz, beraiengatik merezi du".

# "Bidea errazten du herria eta herritarrak ezagutzeak"

OLATZ LEZETA URZELAI EH BILDUREN ALKATEGAIA

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría** ANTZUOLA

Herrigintzan aritua da Olatz Lezeta Urzelai (Antzuola, 1977) Antzuolako EH Bilduko alkategaia, baina orain, buruari buelta asko eman ostean, udalgintzan aritzeko erronkari heldu dio. Haren arabera, herritar guztiek pasatu beharko lukete Udaletik, "barrutik egiten den lana" ezagutzeko.

**Lehen aldiz alkategai. Bertigorik?** Sekulakoa; batez ere, musu publikoa izateko. Lanerako prest nago, baina horrelako gauzak egitera ez nago ohituta. Alkate-tza herri baten gidaritza da, hein batean, eta horrek ere beldurtzen nau. Baina taldean arituko gara, eta horretarako gogoz nago.

**Hamalau kideko zerrenda duzue. Zer berezitasun du?**

Batetik, udalgintzan sekula ibili ez garenok gaude, eta horrek badu aberastasuna: lan eta proiektu berriak egiteko jende berria dago. Bestetik, bada esperientzia duen jendea ere taldean; lehen alkate izandako bat, esate baterako. Alkateak ez du ezer egiten berak bakarrik; talde lana inportantea da. Babes horrekin denok egingo dugu aurrera.

**Udalgintzan ez, baina herrigintzan aritu izan zara.**

Bai, urteetan. Gazte mugimenduan hasi nintzen, eta, ostera, asanbladetan, parte hartze prozesuetan... Baina bada esan nahiko nukeen kontu bat: etxeko militantzia. Senarra zortzi urtez egon da Udalean, eta hori ez da berez egiten den gauza bat. Bi ume izan ditugu aldi horretan,

eta bata udaletxean denean besteak etxean egon behar du.

**Zaintzaren ardura...**

Kaleko militantzia ikusten baita, eta goraipatu, eskerrak eman. Baina hori posible izateko etxean beste batek egon behar du. Orain, alderantziz izango da.

**Zeintzuk dira herrian ikusten dituzun premia nagusiak?**

Orain arte, sekulako lanketak egin dira, baina, adibidez, klima aldaketan arreta jarri beharko da. Murrizketak etorriko dira, eta horretaz jabetu beharko dugu,

**"JUSTUA IZANGO DEN HERRI BATEN ALDE LANEAN JARDUTEA DUGU HELBURU, ELKARLANEAN"**

aldaketak etorriko direlako. Natura-baliabideen kudeaketa ere landu beharko dugu; uraren erabilera, esate baterako. Horrez gain, Aiherrarekin senidetza sendotzen jarraitu behar dugu, eta euskararen egoerari erreparatu behar zaio.

**Hamar lagunetik sei mintzo da euskaraz herrian.**

Bai, eta horri inportantzia ematen diot. Lanketa indartsua egin beharko da. Jakintza gero eta handiagoa baita, baina erabilera jaisten ari da.

**Bada, zer duzue helburu lanketa horiek?**

Justua izango den herri baten alde jardutea lanean. Horretarako, elkarlanari bide eman nahiko genioke; badaude taldeak ere sortuta herriko eragileekin aritzeko.

**Antzuolarra zara. Hori abantaila al da?**

Herria ezagutzen dut, herritarrak eta ohiturak; bidea errazten du. **Nolakoa da Olatz Lezeta Urzelai?** Batzuetan, haizeren batek jotzen dit, baina, orokorrean, nahiko lasaia, alai eta positiboa naiz. Barre eta negar errazekoa. Eta gertuko harremanetarako.

# "Antzuolari aurrera eginarazi nahiko nioke, biziberritu"

MIREN GALLASTEGI OIARZABAL PSE-EE-REN ALKATEGAIA

A.R.K. ANTZUOLA

Hirugarren aldiz izango da Miren Gallastegi Oiarzabal (Eibar, 1961) Antzuolako PSE-EEren alkategaia, eta adierazi du "ez zaiola erabakia hartzea kostatu", hori delako hark duen konpromisoa alderdiarekin eta herritarrekin. Izan ere, azken bi agintaldietan zinegotzi izan da herrian, eta, horrez gainera, legebiltzarkidea ere bada.

**Nolakoa izan dira azken zortzi urteak Antzuolan?**

Zailak. Nork esango zigun mundu mailako pandemia bat biziko genuela? Gerra Europako atetara itzuliko zela? Horrek eragina izan du gure herriaren ekonomian, eta Udal Gobernuak ez du jakin egoerak eskatzen duen mailan egoten. Geldirik egon da, begiradarik gabe.

**Zein harreman duzu Udaleko kideekin?**

Harreman pertsonala –oso adeitsu izan da– eta politikoa –talde bakoitzak bere ideiak defendatzen ditu– bereizi behar dira. Hori da joko demokratikoa. Zorionez, orain Euskadin politikariok ditugun arma bakarrak hitzak dira.

**Ba al duzu bertigorik?**

Bertigoa? Politikan beterean naiz eta denetik bizi izan dut. **Zeintzuk dira Antzuolan ikusten dituzun behar nagusiak?**

Aldaketa sakona behar du. Parte hartzeko espazio berriak behar ditu belaunaldi berrientzat. Klima aldaketaren aurkako borrokan aurrera egin behar du. Pobreziaren eta bazterkeriaren aurka borrokatu behar du. Antzuolak ez du Gobernu lokartu

eta konformistarik behar, betiko moldeetan dabilena. Herritarrek beharra duten horretan dagoen Udala behar da.

**Horretarako, non jarri beharko litzateke arreta?**

Herria eraberritzean. Beharrezkoa da kaleak berriro ere taula hastea eta biziagoak izatea. Tokiko merkataritzari lagundu behar zaio, eta Udalak beharrezko tresnak garatzea proposatuko dugu. Pobrezia energetikoak herrian duen errealitatearen argazki zehatza izateko azter-

**"BIZILAGUNEN BEHAR ETA ARAZOEI KONPONBIDE ONENAK EMATEKO PROIEKTUA DA GUREA"**


keta bat egitea ere proposatuko dugu. Udalak energiaren demokratizazioaren aldeko apustu sendoa ere egin beharko luke. **Nolakoa da zuen hauteskunde-programa?**

Bizilagunen beharrei eta arazoei erantzun eta konponbiderik onenak emateko proiektua da, zerbitzu gehiago eta hobeak eskaintzen dituen. Udal agendan arazo ahulei lehentasuna emango diegu, behar diren azpiegituren bultzadak ahaztu gabe. **Zer nahiko zenukete?**

Nire konpromisoa, nire desio pertsonala, gehien gustatuko litzaidakeena da Antzuolari aurrera eginaraztea, biziberritzea. Antzuola igande arratsalde luze honetatik atera nahiko nuke, bertan murgilduta baitago EH Bildu Udalera iritsi zenetik.

**Hori erdiesteko, nolakoa da Miren Gallastegi?**

Egonezina dut. Egia da denborak pazientzia gutxi izatera eraman nauela denbora galdu nahi duguten pertsonekin. Baina aspaldi da ez naizela isiltzen, sentitzen dudana esaten dudala. Adinarekin batera lortzen den pribilegio bat dela uste dut.

PSE EE  
PSOEMIREN GALLASTEGI  
OIZARZABAL

- Eibar. • 62 urte.
- Abokatua.

### "Lotura politikoa dut Antzuolarekin"

"Leku gogokoan oroitzapenei eta memoriari lotutakoak dira, herrian jaio, hazi edo aldi luzez bizi izan diren pertsonen dagokien pribilegio bat. Hori, niretzako, Eibar da. Eta Antzuolarekin dudana lotura konpromisokoa da; batez ere, politikoa. Esan nezake nire txoririk gogokoena udalbatzako eserlekua dela, antzuolarren bizitza hobetzeko txokoa. Antzuolako mendi ingurua ere gustatzen zait".





**JOSU XABIER ARANGUREN**

- Arrasate. • 55 urte.
- LH ikasketak ditu.

### "Oso zerebrala era arrazionala naiz"

"Pazientzia dut, eta itxura hori ematen dut. Gurutze Gorrian egon naiz urte luzez, Elorregin, eta egoera zailenetan batek baino gehiagok esaten zidan ni trankil ikusita eurak ere trankildu egiten zirela, baina baliteke ni hala ez egotea. Eta esango nuke oso zerebrala ere banaizela, arrazionala. Horrek ez du esan nahi emoziorik ez dudarik, baina, normalean, arrazionaltasuna gailentzen da.

# "Bidea etorkizunera begira egitea da gure asmoa"

**JOSU XABIER ARANGUREN** EAJ-REN ALKATEGAIA

**Iñigo Barrena Kortabarría** ANTZUOLA Duela lau urteko udal hauteskundeetan Antzuolako EAJren zerrendetan hautagai izan ondoren, lehen aldiz aurkeztu da Josu Xabier Aranguren (Arrasate, 1968) alderdi jeltzaleko alkategai. Hautagaitzari dagokionez, babestuta sentitzen da etxekoengandik eta taldekideengandik. Begirada etorkizunean jarria duen herria eraiki nahiko luke.

### Zerk animatu zintuen hautagaitza aurkeztera?

Aurreko hauteskundeetan zerrendetan joan ostean, Antzuolako EAJko lehendakari hautatu ninduten. Ordura arte, ez nengoen oso sartuta historia honetan, baina horrek aukera eman dit hurbilagotik ikusteko egoera. Guk talde moduan ikus-

ten dugu herriari aldaketa bat egin behar zaiola.

### Ideologikoki, nolakoa da Josu Xabier Aranguren?

Bada, alderdiaren bide berekoa naiz: pragmatikoa eta errealista. Hau da, lortu daitezkeen gauzak bideratze-zalea.

### Zerrenda osatuta duzue. Indartsua al da taldea?

Taldeak indarra du, eta gu alkatetzara helduko bagina ez nuke lorpen pertsonaltzat ulertuko, baizik eta talde ekintzat. Batetik, lan honetan berriak garenak gaude, eta, bestetik, esperientzia dutenak.

### Ba al duzu bertigorik?

Taldearekin oso babestuta sentitzen naiz. Nik neure burua ez dut galduta sentitzen zentzu horretan; elkarrizketetan-eta, ordea, ez naiz ondo moldatzen.

Lan egiteko gogoz dagoen jendea ere hurbildu zaigu. Ohikoa da jendearen ezezkoak jasotzea, eta izan ditugu, baina uste baino bizkorrago osatu dugu zerrenda. **Bada, zeintzuk dira ikusten dituzuen premia nagusiak?**

Azkenengo urteetan ez da gauza handirik egin. Ur-parkeaz eta *pumptrack* parkeaz harago, mugimendu handirik ez da izan. Egin diren gauza guztiak udal bati eskatu behar zaizkion minimoetan egin dira. Gure ikus-

## "GUK TALDE MODUAN IKUSTEN DUGU HERRIARI ALDAKETA BAT EGIN BEHAR ZAIOLA"

puntutik, hori baino gehiago egin beharra dago.

**Non jarri beharko litzateke arreta?** Etorkizunean. Herri batek bizitzeko toki bat izan behar du, eta baita seme-alabak hazteko eta hezteko ere, jatekoa, lan egitekoa... Inguru ere zaindu behar da: nekazaritza, dauden herriko zerbitzuak...

### Puntu horiek jaso al dituzue programan?

Nahiko landuta dugu, baina borondate aurkezpenak dira. Alegia, behin lanean hasita gauza batzuk egiteko aukera dago eta beste batzuk ez; aurrekontu bat egoten da, baina murrizketak alde guztietatik etor daitezke. Orduan, lehen asmoa da etorkizunera begira egitea bidea.

### Zer egin behar da horretarako?

Esate baterako, orain dela gutxi, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aurkeztu du Udalak, baina uste dugu horri buelta bat eman behar zaiola; adibidez, industria mailan. Hemen aldaketak egin dira gure taldea Gobernuan egon denean; harrezkero, nolabait, errentetatik bizi izan baitira. Baina herria ezin da horrela bizi.



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023

## ZURE HERRIKO EMAITZAK, LEHEN ORDURAKO

Astlehenean, udal eta foru hauteskundeetan gainera zure herriko informazio osoa GOIENA argitalpen berezian.

**Lehen ordutik, eskura, doan, honako tokiotan:** kioskoak eta egunkari saltokiak; okindegiak; tabernak; kafetegiak; liburutegiak; osasun etxeak... Eta Goienakideek, etxean.



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA



**goiena**  
Zu hemen zaude.





ehbildu

**IBAN HERRARTE ARANA**

- Arrasate. • 49 urte.
- Mantentze-teknikaria.

### "Aramaion etxebizitza huts asko daude"

"Ez dago premia bakarra. Etxebizitza arazoa egon badago. Badakigu Aramaion etxebizitza huts asko daudela, baina ez daude alokairuan. Etxe berriak egiteko leku pare bat badaude; saiatu behar dugu Etxebiderek hitz egiten. Zerbitzuetan ere badago premia: medikuarekin hala moduz gabiltza eta ikusten dugu arazoa etorri dela. Landaguneko jendearendako laguntza beharra etengabea da".

# "Erronkei aurre egiteko prest dagoen taldea osatu dugu"

**IBAN HERRARTE ARANA EH BILDUREN ALKATEGAIA**

**Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO**  
 Lau urte egin ditu zinegotzi karguan Iban Herrarte Aranak; maiatzeko udal hauteskundeetan, aldiz, EH Bilduren Aramaio alkategaia izango da.

### Nork konbentzitu zaitu zerrendaburu joateko?

Zerrendak egiterakoan taldeak proposamena egin zidan; denek zekiten gaur egungo agintaldiko kideetatik nik bakarrik jarraituko nuela, gustura egon naizelako. Proposamena egin zidatean etxean komentatuko nuela esan nuen; izan ere, erabakiak pisua du. Seme gazteak ditut... baina etxean denok konforme zeuden. Emazteak esan didan bakarria da etxera ez eramateko haserrikeria ezta arazorik ere.

**Udaleko lana ezagutzen duzu. Zer erakartzen zaitu gehien?**

Politena da proiektu askotan herritarrekin elkarlanean jardutea: batekin berba egin, bestearekin... Elkarlan horretan herritarrekin lan egin eta ondoren proiektuak amaituta ikus-tea. Ni azkeneko 20 bat urteetan bizi naiz Aramaion eta azkeneko lau urte hauetan jende mor-doa ezagutu dut.

### Politika egiterakoan, adostasuntara iristea garrantzitsua da. Zu nolako zara arlo horretan?

Berez, malgua naiz. Muga batzuk ipinita, oreka topatzea gustatzen zait. Denon gustua egitea oso zaila da, baina gustatzen zait oreka bilatzea. Hala ere, parean dudanak malgutasun maila bera erakutsi behar du.

### Nola ikusten duzu Aramaio?

Landagunetik datorren herri txiki bat da Aramaio; tamalez,

gero eta jende gutxiago bizi da landagunetik. Herri txikia garen aldetik, gero eta murrizketa gehiago ditugu: zerbitzu aldetik, banketxea, Correos, medikua... Herri kontzientzia hartu behar duen herria da. Aurrera egiteko gero eta traba gehiago izan behar ditugu. Herri txikia izatearen trabak sufritzen ari den herria dela esango nuke.

### Zer proposatzen duzue Aramaio dituen premiei aurre egiteko?

Formula magikorik ez dago. Lanean jarraitu, herriaren beha-

## "ESANGO NUKE HERRI TXIKIA IZATEAREN TRABAK SUFRITZEN ARI DELA ARAMAIO"

rak eta eskubideak mahai gainean jarri eta kontziente izan herri txikiak oso baldintzatuta gaudela. Lehenetsun batzuk jarri behar dira, eta lanean jarraitu. Ez dugu formula magikorik eta ez dugu uste dagoenik ere, lan egitea ez baldin bada.

### Alkate izendatzen baldin bazaituzte, zer egingo duzu lehenengo?

Lehenengo gauza izango da gaur egungo taldearen eta talde berriaren arteko trantsizioa lotzea. Komunikazio-lan hori oso garrantzitsua da ondoren antolakuntza ona egiteko. Ondoren, uda antolatzea izango da lehenetsuna; jaiak ere gainean ditugu.

### Zuen hauteskunde programaren alderdi garrantzitsuenak zein da?

Taldea bera da: denak herritarra gara, herria ezagutzen dugu, baita herriko arazoak ere. Arloz arloz gauza asko daude; denak dira garrantzitsuak, eta ezin dit jarri bat bestearen gainetik.

### Nolako taldea osatu duzue?

Herritarrez osatutako taldea da, ideiak eta balioak argi dituen. Batez ere, lanerako prest dagoen taldea da, eta datozen erronkei aurre egiteko prest dagoen taldea.

# "Nahiko bananduta eta utzita ikusten dut Aramaio"

**ALBERTO AMENABAR AJURIAGUERRA EAJ-REN ALKATEGAIA**

**A.E.G. ARAMAIO**

2021az geroztik Arabako Suhiltzaileen zuzendaria da Amenabar. Urte asko darama EAJn afiliatuta, baina lehen aldiz aurkeztuko da hauteskundeetara.

### Nork konbentzitu zintuen Aramaion zerrendaburu joateko eta zergatik eman duzu baietza?

Politikan sartuta nago aspaldi; EAJn 16 urterekin afiliatu nintzen. Ordutik hona, alderdi barruan ibili izan naiz lanean, eta azken bi urteetan Foru Aldundian nabil, Suhiltzaileen zuzendari. Aurretik, nire kabuz ibili izan naiz lanean, enpresa pribatuan, kudeaketa arloan. Lehen aldia izango da zerrenda batean aurkeztuko naizena.

### Bertigoa ematen dizu zerrendan aurkezteak?

Ez, batere ez. Beste gauza batzuk badaude bertigoa ematen dutenak; familian gerta daitekeen zerbait, eta zuk kontrolatu ezin dezakezuna. Baina honek ez. Hala ere, arduratzen nauena da dauden arazoei konponbidea emateko gauza ez izatea.

### Gaurkotasuna jarraitzen duzu?

Gaurkotasuna jarraitzen dut, aldizkariak irakurrit; baita tokikoak ere. GOIENA aldizkaria, adibidez. Euskal Herriko medio publikoak ere jarraitzen ditut. Jarraitzen ditut hemengo albisteak, baita mundu mailakoak ere. Lehen, munduan zehar lanean ibili nintzen, eta gustatzen zait egindako lagunekin harremana mantentzea.

### Nola ikusten duzu herria?

Herria nahiko bananduta eta abandonatuta ikusten dut. Az-

ken hilabeteetan asko etorri naiz auzoak eta herria ikustera, eta ikusi dut herria nahiko bananduta dagoela; gainera, dagoen moduan dago. Hainbat eraikin publiko eta pribatu, errepideak... margotuta daude. EH Bilduk Statkraften proiektuarekin aurrera egin zuen, eta orain, hauteskundeak medio, mahai gainean jarritako konpromisoak hor geratu dira. Aurpegia ematea beti da ona herritarrentzat, eta gauzak argitzea.

## "HERRITAR GUZTIENDAKO ZERBITZUAK EMATEA DA GURE LEHENTASUNA"

### Zer eman diezaioke zure alderdiak herriari?

Lehenengo, herriari entzutea izango litzateke. Hurbiltasuna eman, benetako kudeaketa egin eta beti aurrez jokatu. Proiektuak aurrera eramane eta inoiz ez gorde. Hori proposatzen dugu guk.

### EAJren hauteskunde programaren gauzarik nabarmenena zein da?

Aramaio herritar guztiendako, bai nagusiendako eta baita gazteendako, zerbitzuak ematea. Gure nagusiek soluzioak behar dituzte euren etxeetan edo baserrietan; eta bestelako alternatibak behar dituzte egoera hori ezinezkoa denean. Bestalde, gure gazteek gaztegunek bat behar dute, berdintasuna eta integrazioa sustatzeko. Azkenik, lehen esan bezala, auzo guztien mantentzea hobetuko genuke. Plan baten falta dago. Hori ikusi dugu guk azken hilabete hauetan.

### Nolako taldea osatu duzue?

Alkate izandako hiru daude gure taldean, baita zinegotzi izandakoak ere. Bestalde, Teresa Molinuevo, Jonatan Moreno eta hirurok kudeaketan eskarmendunak gara.




**ALBERTO AMENABAR AJURIAGUERRA**

- Otxandio. • 49 urte.
- Arabako suhiltzaileen buru.

### "Mantentze-lana falta zait herriari"

"Aramaio hainbat premia ikusten dizkiot. Herriaren eta auzoen mantentze-lan orokorra nabarmenduko nuke; izan ere, zabuak eta baita bestelakoak ere apurtuta daude. Errepideak, areka garbiketak, pistak... Mantentze falta dago, eta, era berean, ikusten dut falta dela herriari entzutea eta herriak dioena kontuan hartzea. Horrez gain, eraikin publikoak, pribatuak... margotuta daude".



IBON UNZETABARRENETXEA GALLEGO

- Elgeta. • 29 urte.
- Administrazio teknikaria.

### "Elgetaren alde lan egitea motibagarria da"

"Asko hausnartutako erabakia izan da alkategai aurkeztea; konpromiso, erantzukizun eta ikusgarritasun handiko kargua da. Elgetarren alde zerbait egiteko unea zela iruditu zitzaidan, eta Elgeta eta bertako herritarren bizitza hobetzeko lan egitea oso motibagarria iruditzen zait. Zestoako Udalean ari naiz lanean. Asko ikasi dut han lan egiten, eta oso baliagarria izango zait. Gainera, talde trinkoa osatu dugu".

# "Datorrena datorrela, aurre egingo diogu elkarrekin"

IBON UNZETABARRENETXEA GALLEGO ELGETAKO EH BILDUREN ALKATEGAIA

### Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetan hainbat ekimenetan ibilitakoa da EH Bilduren alkategai Ibon Unzetabarrenetxea Gallego (Elgeta, 1993). Zuzenbide ikasketak ditu eta azken urteotan administrazio publikoan jardun du lanean.

### Zelakoa da EH Bilduk osatu duen zerrenda?

Ilusio eta elgetarren alde lan egiteko gogo handia dugu. Talde trinkoa eratu dugu; elgetarrez osatua, euskalduna, gaztea, inplikaturik eta herrigintzan nahiz udalgintzan esperientzia duena. Hainbat arlo profesionaletatik gazozen taldea gara, izan administrazio publikoan, industrian, hezkuntzan, euskara elkartean, ikerkuntzan... Ilusio eta gogo handiz Elgeta hobetzeko borrokatuko gara.

### Zein da gaur egun Elgetak duen behar nagusia?

Borrokan jarraitu behar dugu gure politiken erdigunean pertsona guztien zaintza eta ongizatea jartzeko, gazteenetatik hasi eta nagusienetaraino. Horretarako, eskola-jantokiaren eredu berri baten aldeko apustua egingo dugu, alokairu soziala bultzatuko dugu eta eguneko zentroko zerbitzuak eta instalazioak hobetuko ditugu.

### Zeintzuk dira EH Bilduk Elgetarako duen programako lan-ildo nagusiak?

Proiektu nagusi gisa, energia berriztagarrien aldeko apustua egiten jarraitu nahi dugu, instalazioak eginez, isolamendu termikoa hobetuz eta herritarrek kontzientziatuz energia-kontsumoa murrizteko eta optimizatzeko. Era berean, beharrezkoa

ikusten dugu kultura etxea berritzea eta memoria historikoa bultzatzea. Luzera begira, berriz, gure asmoa da bizitza aktiboa sustatzea eta herritar guztiei jarduera fisikorako sarbidea erraztea. Horretarako, kiroldegia eraberritzeko eta beste solairu bat sortzeko proiektua proposatzen dugu.

### Zure ustez, zeintzuk dira herriaren indarguneak eta ahulguneak?

Indargune gisa, era askotako ekitaldiak antolatzen direla, bai Udalaren zein herriko elkarrekin

## "ILUSIO HANDIA DUGU ELGETA HOBETZEKO ETA ELGETARREI ETORKIZUN OPAROA ESKAINTZEKO"

aldetik, eta horrek bizia ematen dio herriari. Jendea inplikatu egiten da Elgetan. Ahulguneak dagokienez, esango nuke herri txikia izanik jendeak kanpora joateko joera daukala –kirola, erosketak, ikasketak...-. Garraio publikoa ez da maiztasun handiarekin pasatzen, eta horrek autoaren beharra ekartzen du. Hori hobetu beharra dago.

### Alkatetza lortuz gero, zein izango da hartuko duzun lehen erabakia?

Lehenik eta behin, Elgetako herritarrei eskerrak emango nizkieke nigan jarritako konfiantzagatik. Ondoren, Udalaren baliabideen arabera gure proiektuak aurrera eramango genituzke. Gure proposamenak bideratzeko orduan herritarren ondoan egon nahi dugu, herritarren iritzia, kezka eta ideiak jasotzeko helburuarekin.

### 2023-2026ko agintaldia zelakoa izango da, zure ustez?

Gustatuko litzaidake jakitea, baina, datorrena datorrela, aurre egingo diogu elkarrekin. Gogo eta ilusio handia dugu Elgetaren alde lan egiteko, Elgeta hobetzeko eta elgetarrei etorkizun oparoa eskaintzeko.

# "Lehentasuna da Elgeta dagoen geldialditik ateratzea"

IKER LAKA BARANDIKA ELGETAKO EAJ-REN ALKATEGAIA

### Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Politikarekiko sena berezkoa duela dio EAJren alkategai Iker Laka Barandikak (Eibar, 1994). Ziurtatzen du jeltzaleek Elgetari proiektu sendoa eta alternatiba eraikitzailea eskaintzeko taldea osatu dutela.

### Zelakoa da EAJk Elgetarako osatu duen zerrenda?

Legeak dagoeneko horrela ezartzen duen arren, genero aldetik zerrenda anitza dela esango nuke, baita adin eta profil aldetik ere. Esperientzia eta berritasuna uztartzen ditugu. Zerrenda euskalduna eta abertzalea da; Elgetari proiektu sendoa eta alternatiba eraikitzailea eskaintzeko talde majoa osatu dugu jeltzaleok.

### Zein da gaur egun Elgetak duen behar nagusia?

Lehentasuna da herria dagoen geldialditik ateratzea. Domekan bi ereduren artean erabaki behar dugu: EAJrekin etorkizunera begiratzea eta aurrera egitea; edo bestea, EH Bilduren bakartasunetik geldialdi hori luzatzea eta Elgeta atzean geratzeko arriskuan jartzea. Guk oinarrizko kontzeptu bat planteatzen dugu: Udalean gobernatzeko eredu berri bat ezartzea, elkarlanean oinarritutakoa, irekia, zintzoa eta herritarrekin batera landutakoa.

### Zeintzuk dira EAJk Elgetarako duen programako lan-ildo nagusiak?

Hiru ardatz nagusi ditugu: pertsonak, ekonomia eta azpiegiturak. Ekonomia sendoa beharrezkoa da pertsonak zaintzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eta azpiegiturak finantzatzeko.

Txanponaren bi aldeak landu behar dira.

### Zure ustez, zeintzuk dira herriaren indarguneak eta ahulguneak?

Indargunea, txikia izan arren izaera duen herria dela, eta bizitza duena. Gizarte eta kultura eragileak ditu, enpresak ere badaude... Gainera, herrigunea eta landa eremuko auzoak ditu; Gipuzkoako lurralde orekaren adibidea dela esan daiteke. Ahulguneen artean aipatuko nukena da azken urteetan Pagatza industrialdea gainbeheran da-

## "ZERBAITEKIN KONPROMISOA HARTZEN DUDANEAN, BUKAERARA ARTE MANTENTZEN DUT"

goela, herriko ekonomia eta industrialdea sustatzea ez delako EH Bilduren apustua izan azken urteetan.

### Alkatetza lortuz gero, zein izango da hartuko duzun lehen erabakia?

Hasteko, herritarrei eskertu egingo nieke gure taldeari emandako babesa, eta hitz egingo nieke Udalean lan egiteko beste modu bat jarriko dugula martxan; elkarlanean oinarrituta egongo dena, gainerako alderdi politikoak kontutan izanda eta herriko eragile sozial eta ekonomikoen eskutik, herritarren ekarpenak aintzat hartuko dituen.

### 2023-2026ko agintaldia zelakoa izango da, zure ustez?

Pandemia, Ukrainako gerra, krisia... Azkenaldian ikusi dugun denarekin ez naiz ausartzen ezer ere esatera. Garai oso ezegonkorra bizi dugu eta ez dakigu zer gertatuko den. Baina argi izan behar dugu nolako Elgeta gura dugun etorkizunean, eta hori gaurtik hasi behar dugu lantzen. Horrelako egoera ezegonkorrean herritarrei konfiantza emateko modu bakarra da orainaren eta etorkizunaren artean koherentzia ezartzea.



IKER LAKA BARANDIKA

- Eibar. • 28 urte.
- Politologoa.

### "Abertzalea eta aurrerakoa naiz"

"Abertzalea naiz herri hau maite dudalako eta sinesten dudalako herria behetik gora eraikitzen dela; Udaletik hasita. Aurrerakoa naiz, akordioetan, errespetuan eta justizia sozialean sinesten dudalako. Akordioak dira aurrera egiteko eta gizarteak ezberdinkeriak gutxitzeko modu bakarra. Konprometitua ere banaiz; konpromiso bat hartzen dudanean, bukaerara arte mantentzen dut".



# Maite duzun Gipuzkoa

**Lehen arreta indartu  
eta osasungintza  
publikoa defendatu.**

*Itxaron zerrendak bukatu  
behar dira. Osasun publikoa  
eta kalitatezkoa.*

Bozkatu

# ehbildu

**EGINGO  
DUGU.**



**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA  
Ibon Unzetabarrenetxea alkategai duen lantaldeak Mendizaleen plazan egin du kanpainako ekitaldi nagusia. Alde batetik, aurreko agintaldian udal ordezkaritza izan duten EH Bilduko kideek egindako lana aitortu eta eskertu dute, eta, bestetik, zerrenda berriaren eta egitasmo nagusien berri eman dute.

Hitza txandaka hartuz zerrendakideek arloka aurkeztu dute EH Bilduren programa. Ziurta-tu dute, besteak beste, alokairu soziala sustatzeko ahalegina egingo dutela, bakarrik diren adinekoen egoera aztertu eta ongizatearekin lotutako neurriak hartuko dituztela, eta irisgarritasunean sakontzeko, energia berriztagarriak sustatzeko eta

## "Politika feminista eta soziala bultzatuko dugu"

kirol zerbitzua hobetzeko asmoa dutela. "Politika feminista eta soziala bultzatuko dugu. Euskararen erabilera bultzatzearen alde egingo dugu eta ingurumenaren zaintzari eta mantentze-lanei garrantzia emango diegu", esan du alkategaiak. Horrekin batera, hezkuntzaren alorrean Elgeta "bere osotasunean" hartuko duen curriculum sortzeko asmoa agertu dute, eta memoria historikoari lotuta unitate didaktiko bat osatzeko. Azpiegi-



EH Bilduren ekitaldi osteko talde-argazkia, plazan. EH BILDU

turi dagokienez, esan dute bigarren solairu bat emango diotela kiroldegia eta kultura etxea berri-tingo dutela.

EH Bilduren lantaldeak herri-tarren ondoan egon nahi duela esan du Unzetabarrenetxeak. "Herri-tarren iritziak, kezak eta ideiak jasotzea da gure helburua, eta, hain zuzen, ilusio eta gogo handia dugu Elgetaren eta elgetarren alde lan egiteko, Elgeta hobetzeko eta elgetarrei etorkizun oparoa eskaintzeko".

### Kanpaina itxiera gaur

Kanpaina itxeko ekitaldia egingo du EH Bilduk gaur Mendizaleen plazan, 19:00etan. Triki-poteoa egingo dute, eta 21:00etarako afaria antolatu dute Bolatoki tabernan.



## "Enpresak aktibo bat dira herriarentzat"

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA  
Industria eta bide azpiegiturak izan dituzte hizpide jeltzaleek Elcoro Decoletaje enpresara eguaztenean eginiko bisitan. Enpresako arduradunekin batera lan-bilera egin zuten Elgetako alkategai Iker Lakak, Mikel Larrea zerrendako kideak, eta baita ere Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako foru diputatu Jabier Larrañagak eta Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane



EAJko ordezkariak, Elcoro Decoletaje enpresa atarian, hango arduradunekin. E. A.

Oiarbidek ere. "Lurralde industrial da gurea, eta ekonomia indartsua edukitzeak garrantzi handia du etorkizunean ere ongizateari eusteko", esan zuen Larrañagak. "Elgetan 40 enpresa eta 600 bat langile ditugu, eta hori, zalantza barik, aberastasuna sortzea da". Alde horretatik, Iker Laka alkategaiak funtsezkotzat jotzen du enpresekin harremana berrartzea. Jeltzaleen iritziak, EH Bilduren Udal Gobernuak ez du harremanik udal-erriko enpresekin.

Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbidek, berriz, konpromisoa hartu du irisgarritasuna hobetzeko, eta esan du dagoeneko esleituta daudela Kanpanzar eta Elgeta arteko errepidea zabaltzeko lanak. "Au-

rerrapauso garrantzitsua izango da elgetarrentzat eta urrats inportantea industriarentzat; izan ere, Elgetatik kamioi asko pasatzen dira".

### Landa-eremuko premiak

Nekazaritzako eta Lurralde Ore-kako zuzendari Xabier Arruti, Mendietako eta Natura Ingurune-ko zuzendari Arantxa Ariztimuño eta Landa Udalerrien Garapenerako zuzendari Jon Ander Azpiroz Elgetan izan dira egunotan. EAJko ordezkariak elkartu dira. "Dedikazio ezberdinarekin, baina lehen sektoreko 180 ustiategi daude herrian. Landa-lurren digitalizazioa garrantzitsua da eta Udalak jarra-ri aktiboagoa izan behar du", esan du alkategaiak.

## Elgetako jaiek badute kartela

Lili Arantzabal Larrañagaren *Jaietan jai* kartelak iragarriko ditu Ferixa Nagusiko jaiak. Lau proposamen jaso ziren kartel lehiaketarako, eta herritarrek zazpi egun izan dituzte gustukoena aukeratzeko. Jai Batzordeak eguaztenean eman zuen aditzera *Jaietan jai* kartelak jaso dituela boto gehien: emandako 78 botoetatik 34 -%44,2-.



I.A.A.



## 853 elgetar daude domekan botoa ematera deituarik

Hauteskundeetan ohi den moduan, udaletxeko beheko solairuan jarriko dituzte hautetontziak elgetarrek botoa eman dezaten. Herrian 853 biztanle daude deituta udal hauteskundeotan parte hartzera. Batzar Nagusietako ordezkariak hautatzeko hauteskundeak ere izan-

go dira. Mahai bakarra egongo da hauteslekuan, eta, legeak horrela ezarrita, 09:00etatik 20:00etara bitartean egongo da zabalik.

Udal hauteskundeei dagokienez, hiru zerrendaren artean hautatu ahal izango dute elgetarrek: EH Bildu, EAJ eta PSE-EE. Gaur egun, EH Bilduko sei ordezkari eta EAJko hiruk osatzen dute udalbatza. PSE-EEK ez du ordezkariarik.



EH Bilduko eta EAJko zinegotziak talde-argazkia atera zuten osoko bilkuraren amaieran; PSE-EEko Alberto Alonso ez zen egon. J.B.L.

## Euskara lehen planoan datozen lau urteetan ere

2019-2023ko agintaldiko azken osoko bilkuran aho batez onartu dute 2023tik 2027ra arteko Udalaren Euskara Plana; udal frontoia birgaitzeko Next Generation dirulaguntza heldu ez denez, 780.000 euroko kreditu aldaketa bat ere onartu dute, "behar berrietarako"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Agintaldiko azken ohiko osoko bilkura izan zen astelehenekoa, eta, beraz, azken bilkura izan zen zinegotzi batzuentzat; amaieran, agurtzeko esker on hitzak eta besarkadak izan ziren eta talde-argazkia atera zuten.

Hainbat gai landu zituen udalbatzak, eta bozkatu ziren puntu gehienak onartu ziren, aho batez. Adibidez, Narbaiza jauregiaren erabilera Diputazioari ematea; emakumeek herriari eta gizarteari egindako ekarpenak ikertzea eta zabaltzea helburu duen Goruetan ikerketa beka ateratzea; Bergarako Udala Berener kooperatibako bazkide laguntzailea izatea, Erraldoi Taldearekin hitzarmena berritzea eta 2023tik 2027ra arteko Bergarako Udalaren Euskararen Erabilera Plana.

### 2023-2027: Euskara Plana

Hain zuzen ere, datozen lau urteetarako Euskara Planak badu berezitasun bat, EH Bilduko ele-dun Nagore Iñurrategiren ara-

bera: "Lau urtean egin beharreko plan estrategiko horrek badu berezitasun bat. Metodologia berri bat ezarri nahi dute eta hautatuetako bat izan da Bergarako Udala. Praktika onagatik aukeratu gaituzte, eredu gara, eta horretan jarraituko dugu. Urteetako lanaren ondorioz, eredu da Bergarako Udala euskararen normalizazioan".

### Frontoirako laguntzarik ez

Puntu gehienak aho batez onartu arren, EAJk abstentziora ere jo zuen puntu batzuetan; 780.000 euro inguruko kreditu aldaketa proposamena, kasu. Udal pilotalekua birgaitzeko Europako Next Generation dirulaguntza jaso ez izanak eragin du kreditu aldaketa hori. Jeltzaleek azpimarratu zuten birritan ez dela

dirulaguntza lerro hori lortu: "Udalak Next Generationeko bi dirulaguntza eskatu ditu eta biak bota dizkiote atzera. Ikusten ari gara nola Oñatin aurrea doan laguntza lerro hori, edo Arrasaten, edo Sorraluzen... Baina Bergaran ez. Uste dugu hori ere badela kudeaketarik ezaren adierazgarri [...]. Dirulaguntzarik ez lortu arren, akaso, frontoiko proiektuari buelta bat eman behar zaio eta prest utzi Aldundiak edo Jaurlaritzak lerro berri bat ateratzen duenerako; batzordean bizirik mantendu beharreko proiektua da".

EH Bilduk, frontoiko proiektua hobetzen jarraitzeko asmoa agertzeaz gain, aurreikusitako kopuru hori nora bideratu den azaldu zuen. "Ez denez dirulaguntza hori etorri, tokatzen da proiektu horri berriz heldu eta hobetzea; beharra ez da-eta desagertu. Aurreikusitako kopuru hori behar berrietara bideratu da", esan zuen Iñurrategik.

**'Geuretik Sortuak' ere, aurrera** Jeltzaleen abstentzioarekin onartu zen beste puntu bat izan zen Udalbiltzaren *Geuretik Sortuak* beste beka bat ateratzea. EH Bilduk eta EAJk ez dute ikuspegi bera 37.500 euroko beka horren bueltan. EH Bilduko Nagore Iñurrategik honako irakurketa hau egin zuen: "Euskara, nazio erakuntza eta herria egiten dugu halako ekimenekin, eta ezin da ahaztu Bergarako sortzaileek ere eman ahal dutela izena. Gainera, beka horretatik sortzen dena Bergarara etorriko da bueltan". EAJko Maite Agirrek ez du iritzia bera: "Duela bi urte ere abstentitu egin ginen. Alderdi politiko baten laguntza da; diru asko da, eta Bergarako sortzaileei bideratu beharko litzaieke".

## Ikastola Eguna ekainaren 3an San Martzialgo zelaian

Aranzadik eta Ikastolen Elkaratek garai baten ospatzen zen Ikastola Eguna berreskuratu dute ekainaren 3rako, San Martzialen. 10:00etan igoko dira, trikitilarien laguntzarekin; 11:00etan, olinpiadak, jolas kooperatiboak, tailerrak eta aurpegi-margotzea izango dituzte; 13:00etan, gurasoen erronkaren txanda izango da; 14:00etan, bazkaria; 14:30ean, Laino Beltzak taldearen kontzertua; 15:30ean, olinpiaden finalak jokatuko dituzte; eta, amaitzeko, 17:00etan, kalejiran hartuko dute beheranzko bidea. Bestalde, Aranzadik ekainaren 23an ospatuko du ikasturte amaierako festa, udal pilotalekuan eta Seminarioko patioan.

## Skate jaia egingo dute ekainaren 2an Labegaraletan

Egun osoko egitaraua antolatu dute ekainaren 2an Labegaraletan egingo den skate jairako: 11:30etik 13:00etara, hasiberriendako saioak egongo dira; 14:00etan, parrillada egingo dute; 15:00etan, skate librerako tartea izango dute; 17:00etan, txapelketa hasiko da; eta, amaitzeko, zuzeneko musika: Azkaiter Pelox eta KPO-Blindo9.

## OHARRAK

### Odola emateko deia

Hurrengo ateratzea ekainaren 7an da, osasun zentroan, 16:30etik 20:30era. Berezik, gazteei egin diete dei odola emateko: 747 42 99 20 (Dulce).

### Xake txapelketa

16 urtetik beherako bergararrei zuzenduta dago eta ekainaren 10ean elkartuko dira Zabalotegi dorrean (10:00). Izena eman behar da ekainaren 8rako: 699 52 90 04.

### Kontzertua Gorlan

Urretxuko Hiri Galduak musika taldeak ekainaren 2an joko du kantuan (19:30). Hi Exekutibo taldearen ondoren, Hiri Galduak proiektua jarri zuen martxan Josu Calvok.

## Larramendiko Arnasakoak, galdezka

Larramendiko Arnasak EH Bilduri eta EAJri galdetu zien hurrengo agintaldian Udal Gobernuan egongo balira gaia nola bideratuko luketen. EAJ ez zen eztabaidan sartu eta adierazi zuen "tamalez" gaia epaitegietan dagoela. EH Bilduk "argi" dauka aho batez onartutako Plan Orokorraz ez duela baimentzen eta hori defendatuko duela egungo prozesu judizialean eta beste instantzia batzuetan.



Larramendiko Arnasa taldekoek galdera eta eskaeren tartea baliatu zuten. J.B.L.



Bergarako EH Bilduren ekitaldia San Martin plazan. L.Z.L.

## "Kanpainan zehar jende asko etorri zait babesa eskaintzera"

EH Bilduren alkategai Gorka Artolak eskerrak eman dizkie egunotan lanean aritu diren boluntario guztiei

**Larraitz Zeberio Lekuona** BERGARA Kanpaina-itxiera jaia eginda agurtu du Bergarako EH Bilduk hauteskunde-kanpaina. Atzo egin zuten, eta, hain zuzen, Gorka Artola alkategaiak eskerrak eman zituen. "Esker oneko hitzak besterik ez dut", esan zuen. "Jende pila bat ibili da kanpaina aurrera ateratzeko boluntario lanean, eta benetan eskertzen diet egindako lana. Komunitate sendoa osatzen dugun seinale ere bada. Bestalde, kanpaina zehar jende asko etorri zait babesa eskaintzera. Politik izaten ari dira egun hauek".

Domekako hauteskunde egunera begira Artolak gogorarazi du "gehiengo zabala" behar duela EH Bilduk. "Herri ekintzailea eta bizia izan da historikoki Bergara, dinamika handikoa bai ekonomia arloan, kulturaren, arlo sozialean edota herrigintzan ere. Orain dela urte batzuk, baina,

distira galduta izan du, eta 2019an alkatetzara heldu ginenean oso argi geratu zitzaigun: Bergara grisa jaso genuen. Azken lau urte hauetan, baina, biziberritzen hasi da. Eta horretan jarraituko dugu. Berriro ere herri bizi eta koloredun bihurtuko dugu Bergara", esan zuen Artolak.

### Proiektu nagusiak

Arrizuriaga kultura sorkuntza-aren eta emakumeen espazio moduan ikusten du Bergarako EH Bilduk. Labegaraietako kanta estaltzea agindu du, eta baita ere zaintza modu komunitarioan lantzea, etxebizitzarako sarbidea erraztea, energia burujabetzara urratsak egiten jarraitzea, Miguel Altunaren eraikin zaharra herriarentzat berreskuratzea eta herri biziagoa izatearen alde lan egitea, besteak beste, Herria Antolatzeako Plan Orokor (HAPO) berria eginez.



Bergarako EAJko kideak Mikel Lete alkategaiarekin. BERGARAKO EAJ

## Gazteendako lan aukerak eta alokairurako dirulaguntzak

Gazteen kezkak entzuteko eta zalantzak argitzeko gazte bulego bat zabaltzeko asmoa dute Bergarako jeltzaleek

**Larraitz Zeberio Lekuona** BERGARA Mikel Lete buru duen lantaldeak ezinbestekotzat jotzen du gazteek euren bizitza proiektua Bergaran garatzeko aukera izatea, eta horretarako ere lan egingo dutela azaldu dute jeltzaleek. "Gazteek baliabideak behar dituzte eta etxebizitza, lana eta formakuntza ezinbestekoak dituzte horretarako", esan du alkategaiak. Jeltzaleek agindu dute alkatetzara heltzen badira babes ofizialeko etxebizitzak sustatu eta formakuntzarako zein alokairurako dirulaguntza berriak eskainiko dituztela. "Entzute ariketan hainbat eta hainbat gazterekin egoteko aukera izan dugu eta argi geratu zaigu herri honen bizi-kalitatea hobetzeko gogoia eta konpromisoa dutela. Arlo askotariko elkarteetan eta lantaldeetan hartzen dute parte eta ekarpen handia egiten diote gure herriari. Horregatik, guztioi

eragiten diguten erabakietan parte hartzeko aukera eskaini nahi diegu".

### Gazte bulego berria

Gazteen errealitatea ezagutzeko espazioa izango den gazte bulego bat zabalduko dutela iragarri dute jeltzaleek; "Informazio iturri zuzena eta zabala bideratzeko lagungarria izango da". Horrekin batera eta gazteendako lan aukerak bermatzeko Bergarara enpresa berriak erakartzeko eta bertan daudenak mantentzeko eta indartzeko programak sustatuko dituztela esan du Letek. "Herriko merkataritza, ostalaritza, enpresa eta autonomo txikiek sortzen dute gure herriko aberastasuna eta ezinbestekoak dira gazteei lan aukera berriak eskaintzeko. Guztiak babesteko neurriak hartuko ditugu, besteak beste, dirulaguntza berriak zabalduz".



## Botoa ematera joateko deia 11.311 herritarri

Pandemia aurreko ohiko egoerara itzuliko da botoa emateko lekuen kokapena Bergaran

L.Z.L. BERGARA

Bost hautesleku izango dira domekan Bergaran eta guztira hamazazpi mahai botoa ematera deituta dauden 11.311 herritarrek botoa eman dezaten.

Pandemia aurreko ohiko egoerara itzuliko da botoa emateko lekuen banaketa; izan ere, pandemia garaian izandako hauteskundeetan udal pilotalekuko hautesleku batzuk Seminarixoa aretora pasatu zituzten, segurtasun protokoloek horrela aginduta. Hala, hauteslekuen kokapena eta banaketa honakoa izango da domekan; udal pilotalekuan zortzi mahai, Matxiategi Eskolan (San Martin) lau mahai, Martokoan hiru mahai, eta mahai bana Ibarra-Labegaraietan zein Osintxun. Mahaiaik 09:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik.

### Bost zerrenda aukeran

Hauteskundeak deitu dituzte Udaleko zein batzar nagusietako ordezkariak hautatzeko. Udal hauteskundeotan bost zerrendaren artean aukeratu ahal izango dute bergararrek; EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Elkarrekin Bergara eta PP.



## Sozialisten kale agerraldia

Alderdi sozialistako kideak astelehen izan ziren Bergaran. Deba-Urolako Batzar Nagusietarako hautagai Alberto Albistegi eta Donostialdeko zerrendaburu Susana Garcia egon ziren, besteak beste. Arrosak banatu eta herritarrekin ideiak eta proposamenak partekatu zituzten.



MIREIA BIKUNA

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
 Horma-armairuak  
 Altzariak neurri  
 Ateak · Eskailerak ·  
 Leihoak · Tarimak ·  
 Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugarteuroztegia.com

Enpresa Registrada N°90/025



**Manso Optika**

Ondo ibili jaietan!

WWW.OPTICAMANSO.COM • 943 76 27 86  
IRIZAR PASEALEKUA 2, BERGARA



**ZARE**  
FRUTA-DENDA

Jai zoriontsuak guztioi!

IRIZAR PASEALEKUA 3 / TEL.: 943 76 38 83



**ALMACENES LASCAR**

GASOIL BANAKETA • OLIOAK (REPSOL) • AD BLUE •  
OLIO ALDAKETAK • PNEUMATIKOAK ETA GARBIKETAK

Jai zoriontsuak guztioi!

a.laskar@laskar.es • www.laskar.es  
Amilaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11



**Alberdi Asesoreak**

Fiskala, laborala,  
kontablea,  
autonomoak, errenta  
aitorpenak, etab.

**Alberdi Asesoreak**

943 76 90 83

Matxiategi 36, behea - 20570 BERGARA

Jai zoriontsuak bergarar guztioi!



Suziria botatzeaz arduratuko den emakumeen ordezkaritza, Bitorianatxorekin. B.U.

# Zaintzari aitortza festak hasteko

Gaur hasi eta hilaren 30era arte jaietan egongo da Bergara; Udalak eta Jai Batzordeak zaintzan diharduten emakumeak lehen planora ekarri eta haiei eman diete suziria botatzeko ardura: "Batzuk jai egiteko beste batzuek zaintza lanak egitea ezinbestekoa da"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Heldu da eguna, gaur hasiko dira Pentekosteak. Suziria bota eta Bitorianatxo udaletxeko balkoira heltzearekin batera egingo du eztanda festak, eta maiatzaren 30era arte bergararrek eta bisitariak ez dute aspertzeko astirik izango, Udalak eta Jai Batzordeak adin eta gustu guztiak asetzeko moduko egitaraua prestatu dute eta.

Egitarauan badira hainbat nobedade, eta horietako bat festaren hasieran bertan izango da; izan ere, Musika Banda izaten da urtero jaien hasierako eragile protagonistetako bat, Miguel Gonzalez Bastidaren *Pobres y alegres* martxa ezagunarekin. Bada, aurtan, Pentekosteak heldu dira iragartzen duen martxa horren ostean, Xaxauren martxa ere joko dute, jai herrikoien konpartsak hamabost urte bete

dituela ospatzeko. Bandako zuzendari Enrike Txurrukak konposatutako pieza da, eta hasierako kalejiraren ostean plazara itzuliko dira, Xaxauren pieza sortu berria jotzeko. Xaxau aipatuta, gogora ekarri beharra dago Zubieta eta Masterreka kaleak berritzeko lanak amaitu ostean ohiko Bideberriko gunera itzuliko dela txosnagunea; atzo arratsaldean hasi ziren muntaketa lanekin eta martitzenera bitartean jaietako "ezinbesteko gune askea" izango da.

Bestalde, plazako txosna Mugimendu Sozialistak kudeatuko

**ZAINITZA "BERE DIMENTSIO OSOAN" ULERTUTA, LAN HORIEK AITORTU NAHI IZAN DITUZTE**

du, eta egitarau propio atera dute (Ikus 42. orria).

**Zaintza, "herri erronka bat"**

Jaiak, baina, ez dira suziri jaurtiketa barik hasten. Zaintza lanetan ari diren pertsona eta, bereziki, emakumeei, haiek aritzen dira-eta lan horietan, aitortza egin nahi izan diete Udalak eta Jai Batzordeak aurtengo jaietan. Hain zuzen ere, zaintza lanen ordezkaritza bat izango da gaur jaiei hasiera emateko ekitaldian suziria jaurtiko dutenak. Udal Gobernu lantzen ari den zaintza planarekin ere badu lotura erabakiak, azaldu dutenez. Planak zazpi "helburu estrategiko" jasotzen ditu, eta horietatik lehenak honela dio: "Zaintza bere dimentsio osoan ulertzea, lan horiek merezi duten aitortza egin eta ikusaraztea". Aitortza



eta ikustarazte hori hainbat formatutan egitea aurreikusida, eta jaietako hori izango da horietako bat. Testuinguru horretan, ekitaldi horren aurretik harrera egin zieten martitzen arratsaldean ordezkariak horri Gorka Artola alkateak eta Ainhoa Lete zinegotziak, udaltxean –argazkian–.

Gorka Artola alkateak azaldu zien bertaratutako emakumei zergatik arduratuko diren jaietako hasiera emateaz: "Pentekoste jaien testuinguruan egiten ari gara lehen aitortza hau, eta ez da kasualitatea. Jai Batzordeak eta Udalak bitarteko hori baliatu nahi dute egiten duzuen lan ezinbesteko hori aitortzen hasteko. Bai, zaintza ere jaiaren protagonista egin nahi dugu. Beste alderdi batetik protagonista ere badelako; izan ere, batzuek jai egin dezagun beste batzuek zaintza lanak egitea ezinbestekoa da. Artolak gaineratu zuen herri eta gizarte bezala dagoen erronka bat dela zaintzarena gaur egun: "Herri erronka bat den heinean, erantzukizuna eremu pribatutik eremu komunitarioa atera behar dugu. Horregatik, babes egitura komunitarioak sendotu behar ditugu. Eta uste dugu hortik jo behar dugula, eta zaintza ekosistema oso bat eratu".

Horretarako pertsona erdigunean jarri behar dela uste du alkateak: "Gaur egungo ereduari, oso erraz bihurtzen da pertsona erabiltzailea menpeko, eta horrek ez luke horrela izan behar. Pertsona horiek, zaintza behar izanagatik ere, pertsona izaten jarraitzen dute, proiektuak dituzte, zaletasunak, beharrak... Eta zaintzaileak ere zaindu behar ditugu. Uste dugu zentralitatearen eman behar dizuegula zaintzaileei, eta hori egiten hasteko borondate irmoa daukagu".

**Bandak ezingo du frontoian jo** Zaintzaileez gain, bandak protagonismo berezia izango du jaiaren hasieran. Horrez gain, jaietako domekan eman ohi duten kontzertu bereziak ere ez du hutsik egingo; hori bai, ez

**ERASOEN AURKAKO PROTOKOLOAZ GAIN, ARRETA GUNEA JARRIKO DUTE IRIZAR JAUREGIAN**

dute udal pilotalekuan joko, udal eta foru hauteskundeetarako herriko hautesleku nagusia delako. "Hasiera baten, Espoioan izango da kontzertua, eta, eguraldi txarra egiten badu, Boluko frontoi estalian joko dugu", aurreratu du bandako zuzendari Enrike Txurrukak. Honako hau izango da kontzertuko egitaraua: J.R. Pascual Vilaplanaren *Encuentros* "pasodoble argi eta dotorea"; G. Rossiniren *Tancredi* "irekiera bizia eta arina"; T. Susatok sortu eta M. Mellaerts-ek

bandarako moldatutako *The Danserye* pieza; T. Hashimotoren *Omisoka*, urteberriko ospakizunetarako konposatutako obra "distiratsua"; I. Urkizuren *Jaialdia* pieza, 1970eko 1980eko hamarkadetako euskal kanta batzuk jasotzen dituen; eta, amaitzeko, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Bergarako ereserkia*.



Egitarau eta informazio osorako, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



Udaleko eta Martxantera taldeko ordezkariak, kanpainaren berri ematen. B.U.

## Erasoen aurrean, "zaintza kolektiboa"

Jai-espazioak "inklusiboak eta indarkeriarik gabekoak" izan daitezkeen neurriak hartu dituzte Udalak eta Martxantera talde feministak Pentekosteetarako. Hala, prebentzio lanak egitearekin batera eraso egoerak kudeatzeko bitartekoak eskaini eta arretagunea jarriko dute, eta ekintza feministek ere izango dute lekua egitarauan. Ekintza feminista horien artean dago, esaterako, Martxantere antolatutako Guateke more ibiltaria; maiatzaren 27an egingo dute, Bideberriko txosnagunetik abiatuta (19:30). Musika jartzaileak kamioi baten joango dira eta herriko kaleetan zehar dantzaldi eta jai ibiltaria egingo dute.

**Txosnaguneko protokoloa eta arreta-gunea Irizar jauregian** Txosnaguneko eraso matxisten protokoloa egongo da eta hain lanean arituko direnek formakuntza jasoko dute Martxanteren eskutik. Tabernariei ere, hala beharko balute, eraso egoerak kudeatzen laguntzeko aholku sorta jasotzen duen kartela banatuko zaiela azaldu dute Udaletik.

*Jaietan ere ez dugu inongo erasorik onartuko!* lelopean, erasoen edo erasotzaileen konplize ez izatera dei egiten duten kartelak jarriko dituzte eta zaintza kolektiborako gonbidapena ere egingo dute. Horrez gain, arreta-gunearen inguruko informazioa eta telefonoak ere jasotzen dira han. Izan ere, aurtun adituen arreta puntua egongo da jaietan, eta helburua izango da edozein intentsitateko eraso matxistei aurrez aurreko nahiz telefono bidezko arreta, bide laguntza, informazio egokia eta aholkularitza eskaintzea. Jaietako hainbat egunetan egongo da zabalik arreta-gune hori: maiatzaren 26an, 27an eta 29an, 22:00etatik 06:00etara, Irizar jauregian. Telefono-zenbaki bat ere badago, arreta-gunearen ordutegian egongo dena erabilgarri: 747 44 84 56. Gainera, beti dago aukera larrialdietara (112), Udaltzaingora (092) edo Jaurilaritzaren Satevi (900 84 01 11) zerbitzura deitzeko.

**LimpiaDög**  
Maskoten autogarbitza

8 minutu **5€**  
Garbitzea eta xaboitzea

6 minutu **3€**  
Lehortzea

**Garbitu zure maskota eroso!**

Jarrai gaitzazu:  
Bolu 16, behea | 681 97 05 53 | limpiadog\_bergara

*Ondo ibili jaietan!*

**IGARZA**

Irala 5 - Bergara  
Tel.: 943 76 24 88

*Gora Bergarako jaiak!*

**Gogoratu!**  
**IRTEERAK BERGARATIK ETA ARRASATETIK:**

- Cataros eta Perigord sanjuanetan  
- Islandia irailean  
- Namibia azaroan  
- Maroko abenduan

*Jai zehentzuak gustici!*

Informazio gehiago:  
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara  
943 03 27 42  
bergara3302@halconviajes.com

**Halcon** bidaiak

RPS: 89/20

**Felsinee**  
www.felsinee.net

*Ondo pasa Pentekoste jaiak!*

IBARGARAI ETORBIDEA 17, BEHEA • 20570 BERGARA  
• Tel.: 943 53 44 53

**Sastreria Mujika**  
Gizon eta gazte moda  
Osagarriak  
Ezkontza-trajeetan  
espezializatuak

*Ondo pasatu  
Bergarako jaiak!!!*

Barrenkale, 1 • 943 76 29 91  
instagram @sastrieramujika



**Izzar  
estetika**

Matxiategi 32, behea, Bergara  
943 28 52 80 • 649 94 36 11

*Ondo ibili jaietan!*



**ecenarro**  
cold forming specialists  
www.ecenarro.com

*Ondo ibili jaietan!*



**laskurain**  
ITURGINTZA\_FONTANERIA

Erreformak - Zoru erradiatzaileak  
Elbarritasun egokitzapenak - Galdara aldaketak  
Gremioen koordinazioa eta aholkularitza

*Jai zoriontsuak bergararrei!*

Barrenkalea 44 • 20570 BERGARA Gipuzkoa  
943 76 24 89 - 610 20 54 99

# Bergara Hiriko finalak jaietako astelehenerako

Bergara Hiria pilota txapelketako finalak jokatuko dira maiatzaren 29an udal pilotalekuan (18:30) emakumezkoen eta gizonezkoen promes eta senior mailetan; hilaren 30eko jaialdi profesionalan Laso-Albisu eta Ezkurdia-Rezusta bikoteen artekoa izango da lehia nagusia


**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Pilota menua ere oso beteta dator jaietako azken bi egunetarako. Batetik, maiatzaren 29an, Bergara Hiria txapelketako finalak jokatuko dira udal pilotalekuan (18:30). Bestetik, maiatzaren 30ean, profesionalen jaialdia izango dute pilotazaleek.

**Bergara Hiria astelehenean** Eguaztenean jokatuko ziren Bergara Hiria txapelketako bigarren finalerdiak, emakumezkoetan, gizonezkoen promes mailan eta gizonezkoen senior mailan. Emakumezkoen finalerdian, Garaik eta Gamindek 22-14 irabazi zieten Arrizabalagari eta Bergarari. Irabazleek pilota gutxiago galdu zituzten, eta hor egon zen gakoa. Gizonezkoen promes mailan, berriz, Tolosako taldearekin

jokatzen duten Amianok eta Gabirondok 22-20 irabazi zieten Lizeagari eta Peñalverri. Partidu azkarra eta bizia izan zen. Eta, amaitzeko, gizonezkoen senior mailan Azketak eta Lizeagak 22-15 irabazi zieten Murrari eta Apezetxeari. Azken finalerdi hori izan zen maila handieneko partidua; hasieratik alde hartu zuten Azketak eta Lizeagak, eta alde horri eusten joan ziren partidua osoan. Bigarren finalerdi haien ostean, honako hau izango da Pentekoste-astelehenean jokatuko den final handiko kartelera: emakumezkoetan, Aldai-Galeano bikotea Garai-Gaminde bikotearen aurka lehiatuko da; gizonezkoen promes mailan Aranbarri-Loza bikoteak Amiano-Gabirondo bikotearen aurka

neurtuko ditu indarrak; eta, gizonezkoen senior mailan, bukatzeko, Murua-Aldave eta Azketa-Lizeaga artean erabakiko da txapela –Muruak Oskozen ordezkari jokatuko du–. BKEko pilota saileko presidente Julen Aranburuk dei egin die herriarrei finalez gozatzeko frontoira joan daitezten.

**Rezustak etxean jokatuko du** Martitzeneko pilotari profesionalen kartelera honako hau izango da: Dario-Erostarbe eta Alberdi II.a-Ugartemendia bikoteen arteko partidua irekiko du jaialdia eta lehia nagusia izango da Laso-Albisu eta Ezkurdia-Rezusta bikoteen artekoa. Jaialdia 17:00etan hasiko da; sarrerak salgai daude [www.aspepilotas.com](http://www.aspepilotas.com) webgunean.



Azketa eta Lizeaga –urdinez–, finalera; Murrari –gorriz, eskuinean– Oskoz ordezkari du. BKE

## Mugimendu Sozialistak kudeatuko du San Martin plazako txosna

Deba Bailarako Mugimendu Sozialista osatzen duten eragileen ardura izango da San Martin plazako txosnaren kudeaketa. Maiatzaren 26rako, 27rako eta 30erako egitaraua antolatu dute. Hilaren 26an 20:00etan irekiko dute txosna, Hiriart, K-PO eta Blind artisten zuzeneko musikarekin, eta, ondoren –han afaltzeko aukera egongo

da–, Rodeo taldeak eta DJ Guti eta Felixinek girotuko dute gaua. Zapatuan, hilak 27, bazkaria egingo dute, 15:00etan, eta, ondoren, txaranga izango dute; egun horretan ere egongo da hango txosnan afaltzeko aukera, eta, gero, 00:30ean, musika elektronikoa izango da protagonista: DJ RU2, ZE Txiquia, B2B, Keep a eta DJ Ruda. Azkenik, hilaren 30ean, Iago Magoren ikuskizuna eta umeendako jolasak izango dira, 17:00etan hasita.

## Herri kirolen erakustaldia jaien azken egunerako

Maiatzaren 30ean herri kirolak izango dira protagonista San Martin plazan, 12:00etan hasita. Aizkolariak izango dira Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Xabier Zaldúa. Harria jasotzen Paulo Azpiazu bergararra eta Ainitze Zumeta arituko dira. Amaitzeko, Iparraldeko jokoetan Karlos Aretxabaleta ibiliko da.

# Bergararen historiara igaroko den belaunaldia

Balentria egin du Bergarako gazte mailako taldeak. Denboraldi borobila osatu ostean, Liga Nazionalerako igoera lortu dute mahoneroek, eta Gipuzkoako eta Euskadiko talde onenek eta harrobi indartsuek bisitatuko dute Agorrosin datorren denboraldian

**Iñigo Barrena Kortabarria** BERGARA  
Joan den astean, ametsa erreallitate bihurtzea lortu zuten Bergarako gazte mailakoek. Iaz, Euskal Ligara igotzea lortu zuten, eta aurten, denboraldi aparta burutu ondoren, Liga Nazionalera igotzea lortu dute. Hain zuzen, klubak lehenengoz izango du ordezkari talde gazteen maila gorenean.

Iñaki Mardarasi aginduetara denboraldi aparta burutu dute mahoneroek. Hogeita hamalau jardunaldi izan ditu denboraldiak, eta hemeretzi garaietan pilatu dituzte; %55 garaietan izan dira. Hori gutxi ez, eta berrogeita hamazazpi gol sartu dituzte; eta, aldiz, hogeita lau gol gutxiago jaso dituzte (33). Emaizta sekulakoa izan da, denboraldi hasieran inork espero ez zuen igoera bat. Sentsazio onak izan dituzte, gazteen Euskal Ligara igo berriak izan arren, eta mahoneroak urte osoan mantendu dira goiko postuetan.

## Denboraldi hasieratik baikor

Alde horretatik, Iñaki Mardaras entrenatzaileak dio hasieratik izan dituztela sentsazio onak: "Hasieratik oso sentsazio onak izan ditugu, eta, oker ez banabil, denboraldi guztia daroagu lehen hiruren artean sailkatuta. Ez



Gazte mailako taldea igoera ospatzen. IMANOL SORIANO

nuen zalantzarik belaunaldi berezi honekin zerbait handia egin genezakeela". Arrakastaren gakoak, Mardarasi ustez, aste barruan egin duten "lana" izan da; igoeraren sekretu handiena: "Oso erregularrak izan gara denboraldi osoan, eta kluba harrobian lan ona egiten ari da".

## Klubaren lan ona, funtsezkoa

Igoera lortzeko beste gakoetako bat Bergarako Kirol Elkarteak orain dela bi urte entrenatzeko eta funtzionatzeko ezarritako metodologia berria izan dela

nabarmendu du prestatzaile bergararrak. Belaunaldi berezi baten aurrean daudela ere nabarmendu du, eta epe motzean Maila Nazionalera igotzea lortu duten jokalarien multzoa lehen taldera iritsiko dela azpimarratu du. Hasiera batean, etxekoekin, Maila Nazionalen Euskal Herriko talde onenen aurka arituko da Bergara. Klub garrantzitsuetako harrobiek bisitatuko dute Agorrosin, eta haien aurka lehiatzeko proiektu "sendoa" sortu beharko dutela nabarmendu du Mardarasek.



Begarako Orfeoien mendeurrenako kontzertuaren une bat GOIENA

## Ehun urte musika egiten eta musikarekin gozarazten

San Pedro elizan egindako kontzertuarekin ekin zieten Bergarako Orfeoien mendeurrenako ospakizunei

**I.B.K.** BERGARA

Mendeurrenako ospakizunei hasiera arrakastatsua eman die Bergarako Orfoiak. San Pedro eliza txiki gelditu zen lehen kontzertuan: 180 pertsona oholtzan eta ia 800 ikusleen artean. Nola ez, orfeoiko ordezkariak gustura azaldu dira emaitzarekin. "Sekulako lana egin genuen eta oso pozik gaude emaitzarekin. Eliza beteko ez zen beldur puntu bat ere bagenuen, baina erantzuna ere oso ona izan zen. Oraindik ere kalean ikusten egon zirenen aldetik zorion-mezuak jasotzen ari gara", dio Eva Agirrek, orfeoiko zuzendaritzako kideak.

## Gonbidatu bereziak

100 urteak ospatzeko, Mozarten *Requiem* obra interpretatu zuten, gonbidatu berezien laguntzarekin. Alde batetik, Arrasateko Goikobalu abesbatza egon zen. Hain zuzen, 2000. urtean Goiko

balu abesbatzarekin batera Lau-sardi Koru Sinfonikoa sortu zuten; horregatik, zapatuko ospakizunean gonbidatu bereziak izan ziren arrasatearrak. Bes-tetik, EHUko Abesbatza eta Aequus Ensemble taldekoak ere izan ziren eszenatokian laguntzen. "Konbinazio paregabean", zuzendaritzako kideen ustetan. "Duela denbora asko hasi ginen gu abesten, eta jendeak esaten zigun lehengo orfeoien kontzertuetara bueltatzea bezala izan zela; emaitza bikaina, du-darik gabe", dio Agirrek.

## 100 urte kantuan

Mendeurrenako bigarren zita garrantzitsuenak datorren azaroaren 11n egingo dute, udal pilotalekuan. Orfeoiko kide ohiek, Bergarako Musika Bandak, Arizteta abesbatzak eta Musika Eskolak hartuko dute parte, besteak beste.



**IÑAKI MARDARAS** GAZTE MAILAKO ENTRENATZAILEA

"Printzipioz, etxeko jendearekin jokatu dugu, burua galdu gabe. Ez gara datorren denboraldia zehazten hasi, baina asmoa da bertakoekin egitea".



**IBAI ARABAOLAZA** GAZTE MAILAKO JOKALARIA

"Urte osoan ez dugu entrenamendu txarrik izan, eta hor ikusten da egin dugun lana. Ikaragarriko taldea gara, eta orain, ospatzea tokatzen da".



**IOSU ELORZA** BKE-KO PRESIDENTEA

"Klubarentzat oso handia da egin dutena; izan ere, azken finean, Gipuzkoako eta Euskadiko talde onenekin lehiatzea ikaragarria da".

## 100 urte argazkitan bilduta

Aurretik aipaturiko bi kontzertuez gain, orfeoien mendeurrenako ospakizunekin jarraitzeko erakusketa bat antolatu dute Bergarako Aroztegi aretoan. Erakusketa atzo arratsaldean zabaldu zuten eta ekainaren 11ra arte egongo da bisitatzeko aukera. "Urte hauetako guztietako 400 argazki inguru ditugu jarrita erakusketan, eta audioak ere badaude. Batez ere, ikusteko erakusketa bat da", dio Eva Agirrek.

Erakusketara bisita egin nahi duenak egun eta ordutegi hauek izango ditu eskura: asteartetik ostiralera, 18:30etik 20:00etara; zapatuetan, eguerdian 12:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldeetan, berriz, 18:00etatik 20:30ak arte; eta domeketan eta jaiegunetan, aldiz, 12:00etatik 14:00etara.



Elba Ruiz eta Zahira Montalvo aktoreak *Ovolucionando* antzezlanean. KANCANEO TEATRO

# Menstruazioari buruzkoak, umorez

Santa Anan egingo duten hilekoari buruzko antzezlari dibertigarri eta didaktiko batekin bukatuko dute Jabetzeta Eskolako ikasturtea. Hamabi tailer, bost hitzaldi eta beste bost ikuskizun eskaini dituzte eta 400 bat lagunek hartu dute parte

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

19:00etan Santa Anan eskainiko duten *Ovolucionando* antzezlariarekin emango diote amaiera Jabetze Eskolako ikasturteari. Valentziako Kancaneo Teatro taldearen obra da eta hilekoa du ardatz.

## Dibertigarria eta didaktikoa

Umetokian dauden bi obulu interpretatuko dituzte Elba Ruiz eta Zahira Montalvo aktoreek: "Menstruazioaren laugarren fasean kokatzen da antzezlana eta euren arteko gorabeherak, istorioak, kontatuko dituzte umetoki barruan dauden bi obulak. Umerez, umore onez, kontatuko dituzte euren bizipenak, eta ikusleengan barrea eragiteko gai izango dira. Hilekoa zikina, ezkutuan eraman beharrekoa, izan da ikuspegi patriarkalitik, eta horri buelta emateko ahalegina da antzezlari hau".

Bi aktore, bi obulu, egongo dira eszenatoki gainean, eta apenas egongo da beste elemen-

turik; soilik odola irudikatuko duen iruditegi bat eta musika eta *off-ean* entzungo den ahots bat. "Iruditzen zaigu antzezlari kutuna dela, maitekorra, eta, batez ere, dibertigarria. Baita didaktikoa ere. Orain arte egingo dako emanaldietan jende asko etorri zaigu esanez lehen baino gehiago dakitela orain menstruazioaz, eta pozgarria da hori. Hilekoa duten, izan duten edo izango duten guztiendako antzezlana da".

## Matrikula kopurua bikoiztu

Zinegoak jaialdiko filmen proiektioarekin eta gaurko antzerkiarekin bukatuko da Jabetze Eskolaren ikasturtea; bi urte gorabeheratsuren ondoren,

**JASOTAKO EKARPENEGIN HASIKO DIRA HURRENGO KURTSOKO ESKAINTZA PRESTATZEN**

osorik normaltasunez burutu den lehendabizikoa. Proposatutako hemezortzi ikastaroetatik hamabik egin dute aurrera, eta egin dira bi programatan jasotako gizonen taldeak ere. Ikastaroez gain, bost hitzaldi eta bost ikuskizun egin dituzte.

Aurreko matrikula kopurua bikoiztu egin da ikasturte honetan eta urterik onenak eskaintako balioak baino handiagoak eman ditu, Udalaren Berdintasun Sailak aditzera eman duenez. 219 matrikulazio jaso dira eta 153 pertsonak hartu dute parte: hamazazpi gizon eta 136 emakume. Hitzaldi eta ikuskizunetako parte hartzearekin, 400 pertsona inguru ibili dira. "Jabetze Eskola bere lekua egiten ari den sententzioarekin amaitzen dugu ikasturtea, eta hori da helburua. Emakumeen ahaldunderako erreferentziak espazio bilakatea eta bakoitzak dakartzen beharren arabera eskaintza egin ahal izatea".



Txanda Merkatarien Elkarte kideak. IÑIGO BARRENA

## Txanda Merkatarien Elkarteak beste kanpaina bat aurkeztu du

Eguaztenean hasi zen kanpaina, eta 'Zaindu Maitte Duzun Hori' leloa aukeratu dute kanpainarako

## I.B.K. OÑATI

Oñatiko Txanda Merkatarien Elkarteak beste kanpaina bat aurkeztu du. Oraingo honetan, *Zaindu Maitte Duzun Hori* leloa erabili dute kanpainarako. Bezeroei esker ona adierazi die eta haien arretari eta zerbitzuaren bikaintasunari eskainitako "dedikazioa" nabarmendu nahi izan dute. Online bidezko erosketak gora egiten ari diren honetan, gonbita egin die etxeari errotari etxean eros dezaten: "Gonbita egiten dizuegu dendetara etorri, denbora hartu gustukoa duzuen begiratzeko,

prozesuaz gozatzeko eta bezero bakoitzari eskaintzen diogun arreta pertsonalizatuaz eta hurbilaz gozatzeko", dio Dorleta Fernandezek, Txanda elkarte kideak.

## Bonboiak eta opariak

Hain zuzen ere, elkarte osatzen duten 46 dende kanpainaren leloa daramaten poltsekin eta loreekin apainduko dituzte erakusleihoak. Horrez gain, bezeroei sentibiltasun mezua dituzten bonboiak eta kanpainaren leloa daramaten poltsa berrerabilgarriak jasoko dituzte.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

## Eguraldia eta politika

Zutabe hau hauteskunde bezperatan argitaratu behar denez, argi neukan horri buruz idatzi behar nuela. Ideiak ere bat baino gehiago buruan, baino nahaspila horretatik ezin ideia garbi bat zehaztu. Politika baztertu eta gai neutroa hartu dut, askotan zer esan ez dakigunean egiten dugun bezala. Eguraldia aipatuko dut. Asko hitz egiten dugu eguraldiaz, baina gai hau ez da erabat neutroa, badauka politikarekin lotura. "Gu lehortearekin hainbestean, baina beste leku batzuetan bai dabilzala gaizki". Sarri entzun dut esaldi hori lehorte garai honetan.

"Beste leku" horiek zein ote diren galdetu izan diot neure buruari, Araba edo Nafarroako hegoaldeaz ari ote diren, edo, agian, Afrikan edo Hego Amerikan gertatzen ari diren lehortei buruz. Baina ez, zehazten hasita, Espainiako Estatuko lurraldeak dira "beste leku" horiek.

Eguraldiaren informazioa ematerakoan jartzen den mapak argi erakusten du informazioa ematen duenak onesten duen marko politikoa. Ikusi dut eguraldi kontuetan ere Espainia dugula erreferente nagusia.



**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI  
Ekitaldi ibiltaria baliatu du EH Bilduk azken urteotan burututako proiektuen berri emateko eta datozen urteetarako dituen hainbat egitasmo azaltzeko. Berdura azoka parean hasi eta San Martineraingo, hainbat gelditu eginga eman ditu azalpenak.

**Herri mugimenduak garrantzia**  
Azokan, esaterako, azoka biziberritzeko asmoa dutela esan zuten, eta herri programan ere jasota dutela elikadura burujabetzarako bidean urratsak egitea. Tokiko ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zubi lan, distribuzio eta kontzientziazioan eragingo duen erreferentziazko gune finko batek garrantzia duela ere uste du EH Bilduk.

## Azoka biziberritzea, EH Bilduren asmoetako bat

Zubikoan, Erremerteri plazan, Ramon Irizarren, Martzelino Zelaian eta San Martinen egindako beste geldituenean proiektu hauen gainerako argibideak eman zituzten, besteak beste: Kirolegia eraberritu ondoren, kirolean balio hezitzaileak sustatuz "kirol eredu berri baterantz egitea"; Onaro energia plana eta energia berriztagarrien merkaturatzailea sortzeko egitasmoa; herri mugimenduen garrantzia berretsi eta ondare kulturalaren



EH Bilduk zapatuan egin zuen ekitaldi ibiltariko argazkia. OÑATIKO EH BILDU

zaintza eta transmisioa azpimarratzea; herri gune nahiz landa auzoetan espazioak irisgarri bihurtzeko asmoak; zaintza plan integralaren egitasmoan, zainduei ez ezik zaintzaileei ere arreta eskaintzea, "herriar guttien aukera berdintasuna eta inklusioa" ardatz hartuta; etxebizitzaren erabilera soziala sustatzea; gazteen eta nerabeen osasun mentalaz arduratzea eta unibertsitate zaharrean ikasketak gelak prestatzea. Amaieran, Izaro Elorza alkateak eta alkategaiak adierazi zuen badutela oñatiarrendako programa, baita hori gauzatzeko taldea ere.

Gaur, egubakoitza, 20:15ean plazan egingo duten ekitaldiarekin amaituko du kanpaina EH Bilduk.



## Korriuenean egin nahi du kanpoko igerilekua EAJk

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI  
Herri programan jasotakoak zehaztu gura ditu EAJk, eta herriko ekipamenduei buruzko apustuak zehaztu ditu: musika eskola eta kanpoko igerilekua izango duen kirol eremua, zehazki. Herrian dagoen "gabezia bati erantzuten" dioten bi proiektu, Amaia Erostarbe alkategai jeltzalearen iritziz.

Kulturari dagokionez, musika eskola Olaiturrin egitea proposatzen dute, eraikin berria "Oña-



Korriuen eremua. OÑATIKO EAJ

tiko erdigunean" egongo dela esanez eta "degradatzen hastear dagoen eremuari" irtenbide "egokia" emango diola gaineratuz. Jeltzaleek musika eskola berri horretan batu gura dituzte herriko musikazaleak eta hainbat kultura eragile, besteak beste: txistulariak, musika banda, Ganbara Faktoria...

Kirolari buruz, berriz, Korriuenean egin gura du EAJk kanpoko igerilekua. Gune horretan leudeke beste hainbat kirol ekipamendu ere: "Besteak beste, padel pistak, futbol zelaia eta *pump-track*-a izango dituen espazioa izango da".

**Tokiko merkataritza indartu**  
Jeltzaleen esanetan, herriko denda, taberna zein jatetxeak

dira herriari bizia ematen diotenak, eta dio horiek indarberritzean jarriko duela arreta. *Oñatiko erosketen pasaportea* ekimena eta merkataritza eta ostalaritzaren gida osatzea dira, adibidez, jeltzaleek egindako proposamen batzuk. Industriari buruz, lur industrial erreserba bermatzeko lana egingo dutela aurreratu dute.

Lehen sektorearen zaintza eta sustapena "ezinbestekoak" direla ere badiote jeltzaleek, eta basogintzari lotuta, adibidez, Oñatiko basoen zaintza Gipuzkoako Foru Aldundiaren Basotik Fundazioaren bitartez indartzea ere proposatzen du. Gaineratu dute landa-azuloak eta baserriak zainduko dituztela, "bertako beharrei erantzunez".

## 8.794 lagunek eman ahal izango dute domekan botoa Oñatin

Hamabost mahai egongo dira: Zubikoan zazpi, Elkar Hezin lau, bi Olakuako dorrean eta bi Txiki Txokon

**O.E.G.** OÑATI


Domekan egingo diren udal eta foru hauteskundeetarako hauteslekuak prestatzen gaur gauean hasiko dira. Gaurtik bihar bitartean jarriko dituzte hautesleketan mahaiak, aulkiak eta

behar diren gainerako elementuak. 09:00etatik 20:00etara bitartean egongo dira zabalik domekan.

Hamabost hauteskunde-mahai egongo dira, guztira, Oñatin, dagoeneko ohikoak diren lau

guneetan: Zubikoa kiroldegiko kantxa urdinean zazpi egongo dira, Santa Marina plazan dagoen Elkar Hezi ikastetxean lau, Olakuako dorrean bi eta Txiki Txoko haur eskolan bi. Udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea herrian erroldatutako 8.794 lagunek izango dute, duela lau urte baino 83 gutxiagok. Lau alkategai aurkeztu dira: Izaro Elorza (EH Bildu), Amaia Erostarbe (EAJ), Aitziber Fernandez (PSE-EE) eta Ricardo Guisado (PP).

**AZKEN BELAUNALDIKO PILA ALKALINOETARAKO MANGANESO DIOXIDO ELEKTROLITIKO EKOIZPENA.**



Antton Telleria, Maialen Sorzabalbere, Mikel Irazusta, Beñat Iturbe eta Ana Goitia izango dira bakarriketariak. GOIENA

## Barre egiteko menu aparta izango da Oñatin

Komedia Jardunaldiak izango dira ekainaren 2an eta 3an. Ostiralean, 'Altza komedia' bakarriketa saioa Antixena gaztetxean, gaueko hamarretan hasita; zapatuan, berriz, gaztelekuan Barrexerka umore taldearen 'Hor esketxa dago!' emanaldia 19:30ean

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI  
Oñati umorearen erdigune izango da ekaineko lehenengo aste-buruan. Zarramarrak antolatuta, Komedia Jardunaldiak izango dira ekainaren 2an eta 3an. Ostiralean, *Altza komedia* bakarriketa saioa egongo da Antixena gaztetxean, gaueko hamarretan hasita. Zapatuan, eguerdian (12:30) mahai-inguruak eta arratsaldean (19:30) Barrexerka umore taldearen emanaldiak osatuko dituzte umore jardunaldiak.

Ostiraleko emanaldiari dagokionez, bost umorista izango dira bakarriketetan: Beñat Iturbe, Ana Goitia, Maialen Sorzabalbere, Mikel Irazusta eta Antton Telleria.

Antton Telleria hasia da motorrak berotzen, eta, umore ukitua emanez, dio Oñatikoa emanaldi berezia izango dela: "Oñati aitzindari izan da kulturgintzan eta euskalgintzan. Lehenengo Korrika eta lehenengo unibertsitatea bertakoak dira.

Baina harreman afektiboan alorrean ere aitzindariak dira, oñatiarrek erakutsi digutelako bi pertsonak familia bat sortu dezaketela, eurak senitartekoak izanik ere". Era berean, euskal *stand up* (bakarriketak) "loraldia" izaten ari dela dio, eta, horregatik, Oñati plaza "ezin hobe" izango dela.

### Zapatuan zita bikoitza

Ostiralean barre nahikoa egin ez duenak zita bikoitza izango du hurrengo egunean Komedia Jardunaldien barruko menuan. 12:30erako mahai-ingurua antolatuta dute gaztelekuan Euskal Herriko umorista eta sortzaileekin. Kasu horretan, sarrera doakoa izango da, baina behin

**BAKARRIKETAK ETA MAHAI-INGURUA GAZTETXEAN; BARREXERKA, BERRIZ, GAZTELEKUAN**

edukiera betez gero ezingo da jende gehiago sartu.

Komedia Jardunaldiak borbiltzeko, Barrexerka umore taldearen *Hor esketxa dago!* emanaldiarekin gozatzeko eta barre egiteko aukera izango dute gaztelekura joaten diren ikusleek. Hain zuzen, ostiraleko bakarriketa egingo duten Maialen Sorzabalbere eta Mikel Irazusta Barrexerka taldeko kideak dira. Donostia eta inguru-tako kideek osatutako taldea da Barrexerka eta umorezko esketxak antzeztan dituzte, ohol-tzan zein Internetera igotzen dituzten bideoetan; baina sare sozialetan jartzen dutenez, hoberena emanaldietarako "gordetzen" dute. Egubakoitzeko sarrerak dagoeneko eskuragarri daude Aker eta Arrano tabernetan. Langileek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta langabeek, berriz, 3 euro; zapatuko emanaldietarako sarrerak, aldiz, Txokolateixan eta Udalararen webgunean daude, 5 euroren truke.



Arantzazu Murua, Aitor Biain eta Aitor Garitano. GANBARA ABESBATZA

## Bazkideentzako kontzertua bihar arratsaldean Santa Anan

Arratsaldeko zazpitan izango da emanaldia eta Ganbara Faktoriako talde guztiek hartuko dute parte

### I.B.K. OÑATI

Duela hamar urte egin zuen Ganbarak bazkideentzako lehen kontzertua, eta zapatuan, hilak 27, arratsaldeko zazpitan egingo du aurtengoa, Santa Ana antzokian. *Hitzek esan* izenburua du eta Ganbara Faktoriako talde guztiek hartuko dute parte. Bazkideei banatu dizkiete dagoeneko gonbidapenak, baina ikustera joan nahi duten herritar guztientzat zabalik izango da, eta sarrerak salgai daude Oñatiko Udalararen webgunean eta Txokolateixan, zortzi euroren truke.

### 2023rako proiektuak

Adibidez, Debagoieneko Haur eta Gazteen II. Topaketa egingo dute Oñatin ekainaren 3an; 17an, *Oñatiko iturriak* izeneko ikuskizuna egingo dute Bidaurretan; eta 18an, emanaldia egingo du Aequus Ensemble orkestrak San Migel parrokian. Ganbara abesbatzak Zinemaldian hartuko du parte lehendabiziko aldiz; Hots abesbatza nazioarteko lehiaketa batean arituko da lehenengoz. 2024an, berriz, urteurrenak izango dira nagusi; Ganbara Abesbatzak 30 urte beteko ditu eta Kantu Eskolak, 20.

## Eskola kirolaren azken jaia egingo dute arratsaldean

Eskola kirolari amaiera emateko ueña iritsi zaio, eta hori gaur arratsaldean egingo duten azken festarekin borobilduko dute. Aurten, guztira, LH-1 eta LH-2 mailetak 171 neska-mutil aritu dira; LH-3, LH-4, LH-5 eta LH-6 mailetakook, berriz, 454 izan dira. Lehen bietakoak Zuazolako gimnasioan elkartuko dira 17:00etatik 18:30ak arte eta *Gorputzak hitz egiten* izeneko ekin-tza burutuko dute. LH-3 eta LH-4 mailek Elkar Hezin dute hitzordua 17:00etatik 18:00ak arte, eta kirol eta sentsibilizazio festa izango dute. LH-5eko eta LH-6ko ikasleek *Altxorraren bila* jolasa egingo dute, Santa Anan, Urgainen eta San Martinen.

## Eskubaloiko gazte mailako taldeak txapelketa du bihar

Gipuzkoako gazte mailako eskubaloiko txapelketako kopako finalak jokatu dira bihar arratsaldean, 15:00etan hasita, Zubikoa kiroldegian. Kopan sei multzotan banatuta egon dira taldeak, eta talde bakoitzeko txapeldunak iritsi dira biharko finalera. Sei taldek hartuko dute parte eta hiru taldeko bi multzotan banatuko dira. Alde batetik, Aloña Mendi, Tolosa eta Bidasoa Irun taldeak arituko dira nor baino nor gehiago Aizkorri kopan. Bestalde, Txindoki kopa jokatu duten taldeak Eibar Eskubaloia, Usurbil eta Bera Bera izango dira. Bi multzo ezberdin direnez, bi txapeldun irtengo dira bihar.



# HAUTESKUNDEAK 2023 GOIENAN

## DOMEKAN JARRAITU GOIENAKO HEDABIDEAK

### GOIENA TELEBISTAN:

19:45ETIK AURRERA ZUZENeko SAIOA, GOIATZ ARANAK ETA TXOMIN MADINAK ZUZENDUTA ETA ELENA LAKAREN ANALISIEKIN. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK, ZUZENeko KONEXIOAK, ELKARRIZKETAK PROTAGONISTEKIN...

### GOIENA.EUS:

GRAFIKAK, ZINEGOTZIEN TAULAK, BALORAZIOAK...

### SARE SOZIALAK:

TWITTER, INSTAGRAM ETA FACEBOOK

### ETA HURRENGO EGUNEAN

#### GOIENA ALDIZKARIA BEREZIA

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK, UDALBATZA BERRIAK, BALORAZIOAK, ANALISIAK...

EGUNKARI SALTOKIETAN, TABERNA ETA KAFETEGIETAN... LEHEN ORDUAN, DOANI  
ETA GOIENAKIDEEI, ETXEAN.



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA



**goiena**

Zu hemen zaude.

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE

Zapatuko Mondraren eta Aloña Mendiren arteko derbia tristea izango dela barneratuta daukate bi taldeetako entrenatzaileek (16:30, Mojategi). Bai David Muñozek eta baita Aritz Garmendiak ere. "Guri futbola gustatzen zaigu, baina baita lehiatzea ere; futbola lehiaketa moduan ulertzen dugu. Eta ligako azken derbi honetan ez dugu lehiatzeko motibo handirik, bi taldeok dagoeneko galdu dugu-eta maila", dio Garmendiak. Muñozek ere aitortu du denboraldia luzea egin zaiela; Arrasatekoek urte osoa eman dute zuloan, nahi eta ezin, eta hori nekagarria da.

**Zer egin dute txarto?**

Bi entrenatzaileak denboraldi erdian iritsi ziren Mondrara eta Aloña Mendira: Muñozen kasuan, Cristian Matias ordezkatzera, eta Garmendiak Garikoitz Nuñezen lekua hartu zuen. Suhiltzaile lanak egitera etorri ziren, edo, beste modu batera esanda, soluzio bila jo zuten eurengana. Baina ez dute halakorik aurkitu, hori da egia. Biek nabarmendu dute inplikazio handiko taldeekin egin dutela topo, konpromisoa erakutsi duten jokalariekin –agur esan zuten entrenatzaileek ere ez zuten berba txarrik esan–, baina futboleko inplikazioa baino gehiago behar da, eta baita zorte apur bat aldeko izatea ere, bereziki bi taldeetan eragin handia izan duten lesioekin.

Taldean jarraitzeko asmoa ote duten galdetuta, Garmendiak ezetz erantzun du. Eta entrenatzaile oñatiarrarekin batera jakinekora da Gaizka Zelaiak, Unai Gilek, Martxel Aiastuiek eta Kevin Martinek ere utziko dutela futbola. Mondrako entrenatzaile David Muñozek, berriz, lehenago denboraldia amaitu behar dutela dio. "Oraingoz, esan dezakedan gauza bakarra da Arrasaten oso gustura egon naizela, baina, lehenago, amaitu dezagun liga, eta aurrerago etorriko da erabakiak hartzeko unea". Hala, Arrasateko taldean ez ditu baja kopuru garrantzitsuak aurreikusten, eta horrek lasaitu egiten duela gaineratu du.

**Bergarak gaur esango du agur**

Bergarak kontrario gogorra izango du aurrean gaur, egu-



Mondraren eta Aloña Mendiren arteko iazko derbiaren une bat, Mojategin. GOIENA

# Adiorik ez, gero arte baizik

**FUTBOLA** Dagoeneko kategoria galdu duten Mondrak eta Aloña Mendik elkarren kontra jokatu agurtuko dute liga. Ez da arrangura edo aienerik egongo, biek ala biek barneratuta daukate-eta lehenbailehen itzultzeko lan egitea tokatzen dela

bakoitza (20:15, Rezola), bigarren postuan dagoen Añorga. "Partidu zaila izango da, etxeko zaleen aurrean jokatu dute eta urtea ondo amaitu gurako dute. Baina dagoeneko mailaz igo dira eta guk ere ez dugu presiorik. Partidua egubakoitzean jokatzea lortu dugu, eta hori gure alde, Bergarako jaiak lasaitasunez ospatu ahal izango ditugulako. Eta garaipen batekin bada, askoz hobeto", adierazi du Iker Ruiz de Larramendi entrenatzaileak.

Mahoneroek txarto hasi zuten liga, lehen zazpi jardunaldietan bi puntu baino ez zituzten lortu eta Gabonetan maila galduko zuten hautagaietako bat zen Bergara. Baina ez. "Taldearen erreakzioa etorri zen hor, jokalariek erakutsi zuten badutela hor jokatzeke maila, eta, gainera, lanerako konpromisoa zutela

erakutsi zuten, ez zuten amorerik eman. Egia da pena apur bat ere ematen duela, bigarren itzuli ona ikusita badirudielako gauzak hasieran ondo egingo bagenitu gorago egon gintezkeela, baina errealistak ere izan behar dugu: Añorga eta Eibar taldeek erakutsi dute oso maila oneko jokalariek dituztela, eta sendotasun handia".

**UDAk onenei irabazi die**

Aretxabaletak Mutrikuren kontra tramiteko partidua jokatu du zapatuan (17:30, Ibarra), bi taldeetako inork ez dauka-eta ezer jokoan. Hala, Unai Calzonen ustez, denboraldia ondo agurtzea da jokoan dagoena: "Liga zapo-re onarekin amaitu nahi dugu".

Urteari erreposoa eginda, deigarria da Aretxabaletak zenbait partidutan erakutsi duen maila, bigarren itzulian

kategoriako oilarre irabazteko kapaz izan da eta. "Eibarri euren etxean irabazi egin genion [2-3], Añorgari sei gol egiteko gauza izan ginen [6-0], Oiartzuni ere irabazi egin genion [2-0]. Horrek erakusten du, tarteka bada ere, taldeak ze maila izan duen, baina erregularitasuna falta izan zaigu, eta, neurri handian, hasiera txarrak denboraldia baldintzatu du". Hala, agurren partidua ere izango da zapatukoa: Julen Zaitegik, Aitor Perezek, Jon Unanuek eta Mikel Ezeizak futbola utziko dute.

## MONDRA ETA ALOÑA MENDI MAILA GALDUTA IRITSI DIRA LIGAKO AZKEN JARDUNALDIRA

**Ondoko bizilagunen hutsunea**

UDAKo eta Bergarako entrenatzaileei ez zaie oharkabeen pasa Mondrak eta Aloña Mendik egin duten urte txarra; izan ere, denboraldi hasieran eurak ere ez ziren hobeto egon. Eta aitortu dute datorren urtean talde horien hutsunea igarri egingo dutela. Biak bat datoz: Debagoieneko taldeen arteko derbiak bereziak direla diote. "Egutegian gorritz markatuta egoten diren partidua dira", dio Calzonek. Eta, neurri handian, onartzen dute etxeko jokalariekin soilik jokatzearen aldeko apustuak badituela bere arriskuak. Dena dela, Bergarako gazteek erakutsi berri dute harrobian lan ona egiten bada emaitzak lehenago edo geroago iritsi egiten direla: "Liga nazionalera igo duten gazteek protagonismoa kendu diote lehenengo taldeari, eta gu oso pozik gaude. Talde horretan ere laguntzen ibili naiz eta harro gaude egin duten lanarekin, belauldi ona du hor Bergarak".

**Etzekoen aldeko apustua**

Gaur egun Debagoieneko talde guztiek dihardute harrobiko jokalariekin jokatzen. Agorroren, Azkoagainen, Ibarren, Mojategin edota Eztalan hazitako jokalariekin osatu dute taldeak ehuneko handiena, eta zuzendaritzek barneratuta dute posible dela tarteka denboraldi txarrak izatea. Duela urte batzuk egoera erabat bestelakoa zen, maila oneko lauzpabost jokalaria on "fitzatzeko" gaitasuna izaten zutelako talde gehienek, baina garai haiek amaitu ziren. "Dena dela, nik ez dakit zale asko horretaz konturatu den", dio Unai Calzonek. "UDA erreferentziazko taldea izan da Ohorezko Erregional Mailan, inguruko jokalarionak erakartzeko gaitasuna izan du eta azken hamarkadan pasatxoan taldea birritan igo da Hirugarren Mailara. Azken urteotan, baina, zuzendaritzatik etxeko jokalariekin jokatzeke erabakia hartu da, eta nik bat egiten dut horrekin. Baina, gure kasuan, eta bereziki lehenengo itzuli txar baten ondoren, zuzendaritzaren babesa izan genuen baino kalean kritika asko sumatu nuen. Eta halakoetan behar dira animoak. Taldekideon artean aurkitu genuen babes hori, eta zorionez egoera zuzendu ahal izan dugu".




## Denboraldiaren balorazioa egin dute lau entrenatzaileek:




**DAVID MUÑOZ** MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Bistan da kategoria galdu badugu lana ondo egin ez dugun seinale dela, zerbaitetan huts egin dugula. Taldeak liga hasiera txarra izan zuen eta klubera etorri nintzenezan ikusi nuena izan zen lana egiteko prest zegoen talde bat neukala. Aste barruko entrenamendu saioetan 22, 23, 24... jokalariz osatutako taldearekin egin dut topo, eta lana ona izan da, benetan. Baina zenbakiak beste zerbait erakusten dute, kontziente gara. Uste dut aurrera begira Mondrak baduela oinarria. Hazia hor dago".



**IKER RUIZ DE LARRAMENDI** BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Aurten, iaz gertatu zitzaigun antzeko zerbait gertatu zaigu; alegia, oso txarto hasi ginela eta bigarren itzulian egoerari buelta emateko kapaz izan gara. Horrek gauza positibo asko ditu, baina, bi urtez gauza bera gertatu bazaigu, hausnartu ere egin beharko dugu, datorren urtean liga hasiera hobea egiteko. Eta egia da Aloñaren zelaian derbia irabazi genuenean erlaxatu egin ginela; mailari eusteko behar genituen puntuak eskuratu genituen eta azken asteotan beste intentsitate batekin ibili gara".



**ARITZ GARMENDIA** ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA

"Taldeak ondo hasi zuen liga, baina, ondoren, lesio mordoa izan genituen, eta uste dut galdu samar ibili ginela. Eta gero, Vasconiaren eta Tolosaren kontra jokaturako partiduek ere eragin handia izan zuten. Atzealdeko postuetan ginen, Vasconiaren zelaian galdu egin genuen [2-0], eta, ondoren, Tolosaren kontra etxean puntu bakarra eskuratu genuen [3-3]. Orduan, kontrario zuzenek aurrerapausoa eman zuten, eta uste dut hor benetan ikusi genuela maila galtzeko aukera handiak genituela".



**UNAI CALZON** UDAKO ENTRENATZAILEA

"Lehenengo itzulia oso luzea egin zitzaidan, emaitzak ez zirelako batere onak izan. Ikusten nuen aste barruan taldekideak zelan ari zirenean, entrenamendu saio oso txukunak egiten genituela, eta, ondoren, partidu askotan ikusten nuen berdegunean ere ondo geundela, baina emaitzek ez zuten hori erakusten. Gure akatsengatik, detaile txikiengatik, puntu askok ihes egin ziguten. Zorionez, bigarren itzulian egoera horri buelta eman genion, eta urtea larritasun barik amaitu ahal izan dugu".



Aste barruan Bergaran egindako aurkezpen ekitaldia. MIKEL ZUMALDE

# Espainiako txapelketa Bergaran ekainean

**PATIN HOCKEYA** Burdinolak ekainaren 2rako, 3rako eta 4rako antolatu du infantil mailako torneo. Bereziki, bi helburu izango ditu: hockeya Debagoienean ezagutaraztea eta kirolean berdintasuna sustatzea, txapelketa talde mistoek jokatu dute eta

## X.U. BERGARA

Bigarren urtez antolatuko du Burdinola taldeak Espainiako Txapelketa Bergaran, eta talde mistoekin jokatu dute. Hala, torneoak Espainiako puntako zazpi talde batuko ditu -tartean egongo dira CPC Vila-real, Tres Cantos PC, CPL Valladolid eta CHL Aranda de Duero taldeak-, eta eurekin batera lehiatuko da hitzorduaren antolatzaile den Burdinola. "Uste dut lana ondo egiten badugu txapelketako final-laurdenetara iritsi gaitzkeela; ea podiumean egoteko kapaz garen, baina maila oso oneko kontrarioak egongo dira eta lan handia egin beharko dugu", adierazi zuen eguaz-

teneko prentsaurrekoan taldeko jokalaririk Julen de Borjak. Eta bergararrek aitortu dute kontrario batzuk ezagutzen dituztela, baina beste talde batzuen kontra ez dutela inoiz jokatu.

Torneoko lehenengo faseko partiduak egubakoitzean hasiko dituzte, ekainaren 2an (09:00), eta aurreikuspena da finala domeka eguerdian (12:45) jokatzea. Bada, guztira, hogeitatu partidu jokatu dituzte hiru egunean eta 115 gazte inguruk jardungo dute hockeyan.

## Hamasei jokalaririk gertu

Burdinolak gertu ditu txapelketan taldea ordezkatzeko duten



hamasei jokalaririk. Gizonezkoak dira zortzi, eta beste zortzi emakumezkoak. "Hain zuzen, hori da txapelketa horren helburuetako bat; alegia, kirolean genero berdinketa sustatzea", adierazi zuen Burdinolako Agustin Oyangurennek.

Hala, txapelketa Labegaraian jokatzeko hainbat baldintza bete behar dituzte, eta garrantzitsuena da lurzoruak sintetikoak izan behar duela. Guztira, 24.000 euro pasatxoko aurrekontua aurreikusi dute torneo antolatzeko, eta diru-partidarik handiena iaz Burdinolak erosi zuen lurzoru berezi hori finantzatzeko izango da -14.000 euro-.

## Gabilondo txapeldun

**ZIKLISMOA** Larrinben (Amurrio) jokaturako Euskadiko txapelketan, elite mailan, Zatika taldeko Olatz Gabilondo gailendu zen. Lasterketa esprintean erabaki zuten eta elite mailan Bergarako izan zen onena: "Taldea estrategiarekin saiatu ginen jendea atzean uzten, baina zirkuituan malda gutxi zegoen eta ezinezkoa izan zen azken taldetxo gehiago txikitzea".





Hirugaren Señora sariketako finalean izango diren bertsolariak. BERTSOZALE ELKARTEA

## "Lehiatik harago" doan Señora sariketaren finala

Bihar, zapatua, sei bertsolari izango dira gaztelekuan arratsaldeko bostetan hasita jokatu duten hirugarren Señora sariketako finalean, eta haien artean izango da Maider Arregi oñatiarra; aurrealmentan sarrera guztiak agortu egin dira

### Aitziber Aranburuzabala Juldain

#### OÑATI

Aurreko bi aldietan moduan, bi kanporaketatan banatuta –Bilbon maiatzaren 6an eta Erratzun maiatzaren 13an izan dira aurren–, hamabi bertsolari hartu dute parte aurtengo sariketan eta haietatik seik lortu dute bihar, zapatua, Oñatin jokatu duten hirugarren sariketako finalerako txartela: Iruri Altxe-rrekak; Jainire Arrizabalagak; Eli Pagolak; Maddi Ane Txopere-nak; Eli Zalduak; eta Maider Arregi oñatiarrak.

### Arregi, eskualdeko ordezkaria

Antolatzaile lanetan eta entzule moduan hartu zuen parte Oñatiko bertsolariak aurreko bi edizioetan, eta taularen gainean izan da azkenekoan. "Bilboko kanporaketan izan nintzen ni, eta, urduri samar egon nintzen arren, oso gustura abestu nuen. Aurreko bi sariketetan asko gozatu nuen entzule moduan, eta banuen maila hori mantentzeko edo gonorazko saioa egiteko eta publikoak gozatzeko modukoa egiteko ardura, baina sentsazio oso ona eduki nuen saioan. Taberna be-

teta zegoen, eta giro oso beroa. Informala baina bertsoarekiko errespetuzkoa, eta antolakuntzatik ere oso zainduta egon ginen", dio Arregik.

Finalerako prestaketa lanei buruz galdetuta, oñatiarrak "gustura" jardun duela dio, irabazlea nor izango den kinielarik egiten ausartzen ez dela gaineratuta: "Señora sariketako ariketak egiten jardun dugu asteon bertso eskolan, eta oso aberasgarria izan da. Adibidez, bakarkako kolaboratiboak probatzen ibili gara eta oso dibertigarria

izan da bakarkakoa moduko ariketa solemne bat egiteko beste modu batzuk topatzea. Ez naiz ausartzen irabazlea nor izango den esatera, egia esan; festaz gozatzera joango naiz bihar, eta bigarren planoan izango dut lehia apur bat".

### Sei bertsolari taularen gainean

Bihar, zapatua, 17:00etan hasita, izango den señora Sariketako hirugarren finalerako agertoki gainean alboan izango dituen bertso-kideei buruz zera gaineratu du etxean jokatu duen bertsolariak: "Bertsolari batzuk aurrez ezagutzen nituen eta beste batzuekin lehenengo aldiz abestu dut sariketa honetan. Orokorrean, oso desberdinak garelako esango nuke, bertsoakera desberdinak ditugula, baina gure artean giro ona egongo delakoan nago eta elkarrekin saio polita egingo dugula uste dut. Bakoitzak duen egunaren arabera edozeinek irabazi dezakeela uste dut, eta, gainera, edozeinek irabazita ere poztu egingo naiz. Sariketa honen ederra hori da, edozeinek irabazita guk ere irabazi dugula sentitzen dugula, modu baten esanda, mugimendu beraren parte garelako".

### Sarrerak, agortuta

Taularen gainean izan diren bertsolarietako eta, orokorrean, bertsozaleentzako ere sariketa "berezia eta estimatua" da; horren erakusle da aurrealmentan agortu egin direla sarrera guztiak. "Bukatu dira sarrera guztiak; beraz, bihar, gaztelekuko leihatilan ez da erosteko aukerarik izango. Online erosi dituztenek leihatilan izango dituzte erreserbatutako sarrerak eskuragarri", azaldu dute sariketaren antolatzaileek.

## Potx eta Lotx pailazoak bihar Amaia antzokian

'Aireportuan' ikuskizuna egingo dute, 17:00etan; bost eurotan daude sarrerak eskuragarri

### A.A.J. ARRASATE

Azaroan argitaratu zuten Oñatiko Potx eta Lotx pailazoen liburuxka itxura zuen *Aireportuan* izeneko "diskorik bako" kantu bilduma, eta, harrezkero, aretoz areto ari dira lan horretan oinarritutako ikuskizuna eskaintzen. Bi pailazoen txikitatik duten ametsa bete guran, Los Angelesera bidaiatzeko asmoa dute, baina, zoritxarrez, gauzak ez zaizkie espero moduan joango eta Los Angelesera beharrez Gasteizera bidaiatuko dute, azkenean. Hala ere, triste jarri beharrez irribarre batekin aurrera egitea lortuko dute pailazoen, publikoak barrez eta dantzaz jarrita.

### Kuadrilla taularen gainean

Josu Zubiak eta Itziar Arkauzek gorputzen dituzten *Potx* eta *Lotx* pailazoen gainera, bestelako pertsonaiak ere izango dira: Danel Teranen eskutik, *Izaskun* eta *Joserra polizia* eta Ander Murillok antzeztzen dituen *Susi azafata*, *Txolo polizia* eta *Gartxot pilotua*, besteak beste.

Ordubete eta hamar minutu irauten du eta "bere buruari barre egiteko prest dagoen edonori" dago zuzenduta. Sarrera bost euro da.

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?  
Zatoz **batu-banatu!**

**Banaketa aukera ezberdinak**

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

**batu-banatu**

www.batubanatu.eus  
943 08 10 50 / 688 69 00 07  
banaketak@batubanatu.eus

# "Bakardadeaz dihardut, preso baten azaletik"

**KEPA ERRASTI GORROÑO** AKTOREA

'Posdatarik gabeko gutunak' izeneko "bakarrizketa-lagundua" estreinatuko du Aretxabaletako aktoreak gaur, egubakoitza, Tolosako Leidor antzokian, 20:00etan

**Aitziber Aranburuzbala Juldain**  
ARETXABALETA

Xake Produzekzioen laugarren ikuskizuna bakardadeari buruzkoa da eta Kepa Aretxabaletako aktorea da protagonista nagusia.

**Gaur estreinatuko duzu Posdatarik gabeko gutunak. Zer moduz zaude?**

Urduri samar, baina ondo gaude, etxeko-lanak ondo egin ditugu eta jendaurrean erakusteko gogotsu gaude.

**Zure-zurea da antzezlana, zuk idatzitakoa eta kide zaren Xake Produzekzioen eskutik datorrena.**

Nik idatzi nuen bakarrizketa batetik abiatutako istorioa jasotzen du Iñigo Legorbururekin batera idatzi dudana gidioiak.

Antzezlanean gutun batzuk agertzen dira, eta, nire enkarguz, gutun horiek Legorburuk idatzi ditu.

Askotariko gutunen artean aukeraketa egin dugu eta horietako baten aipatu zuen *bakarrizketa-lagundu* terminoa asko gustatu zitzaidan; izan ere, aspaldiko erronka nuen bakarrizketa luze bat idaztea eta taularen gainera eramatea, baina ez te-

lebistako *Barre libre*a saioan egin izan ditudan modukoak, baizik eta istorio garatuagoa zuena, eta bakardaderi buruzko bakarrizketa idaztea pentsatu nuen.

**Baina taularen gainean bi lagun zarete; zer dela eta?**

Beldurra eman zidan aretoz areto teknikariekin batera bakarrik ibiliko nintzela irudikatzeak, eta, bakarrizketa horretan lagun bat izateak lagunduko zidala pentsatuta, alegiazko lagun bat asmatu genuen, eta hala sortu zen Bakarne pertsonaia, Charlot pertsonaiaren itxura duen piano-jole mutua. Ez du berbarik egiten, baina protagonistak adierazten ez dituen gauza asko adieraziko ditu Nerea Ariznabarretak gorpuzten duen Bakarne pertsonaia.

**Dena kontatu barik, laburbildu egiguzu istorioa.**

Bost urtez preso egon ondoren, kartzelatik ordubete barru aterako den Mikel naiz ni. Azkeneko urteetan zehar hilero gutun bat jaso du Mikelek; ez daki nor den igorlea, eta gutun horiek komunean dute posdatarik eta sinadurarik ez dutela. Igorlea nor den ez jakiteak sortzen dion ezinegonari aurre egiteko, kartzelan egongo den azken ordu-betea gutunen idazleari eskaintzea erabakiko du, eta hori izango da haren bizitzari buruzko pasarteak kontatzeko aitzakia. Bukaeran deskubrituko du gutunen atzean nor ezkututzen den, Bakarnek bultzatuta, azken gutuna irakurrita.

**Gutunak istorioaren osagai nagusia badira ere, musikak ere pisu handia dauka, ezta?**

Hala da, bai. Nereak dio ez dela musikaria, pianoa jotzen dakien arren; hortaz, Nerearendako



Kepa Errasti Aretxabaletako aktorea. MIKEL MARTINEZ PHOTO.

## "BI LAGUNEN ARTEAN ANTZEZTEN DUGUN BAKARRIZKETA-LAGUNDU BAT DA ANTZEZLAN BERRIA"

erronka izan da berak jotako piezekin istorioa osatzea. Sekulako lana egin du; esker oneko pertsonaia da eta arnasa eman dio istorioari. 80ko hamarkada bukaeran eta 90ko hasieran Euskal Herrian asko entzuten ziren Nikaraguako musikarien kantuak entzungo dira obran zehar; esaterako: Pablo Milanesenak eta Silvio Rodriguezenak. Antzezlanean zehar kontatuko duen moduan, erbestean jaio zen Mikel, eta, 8 urte zituela, Euskal Herrira bizitzera etorri zen amarekin, aita deportatu zutenean.

**Dekoratua ere nahiko itogarriak direla diozue.**

Espetxe baten kokatuta dago, eta idazketa prozesuan ari nintzela oso argi nuen bi pertsonaia oso eremu mugatuan mugitu izan da hori lortzea ere.

**Tolosan estreinatuko duzue gaur; Debagoienean izango da ikusteko aukerarik?**

Ez dugu oraindik ezer lotuta, baina oso gustuko dut nire eskualdean nire lanak erakustea, gertuko lagun eta familiaren aurrean. Aahaleginak egingo ditugu hala izan dadin.

erronka izan da berak jotako piezekin istorioa osatzea. Sekulako lana egin du; esker oneko pertsonaia da eta arnasa eman dio istorioari. 80ko hamarkada bukaeran eta 90ko hasieran Euskal Herrian asko entzuten ziren Nikaraguako musikarien kantuak entzungo dira obran zehar; esaterako: Pablo Milanesenak eta Silvio Rodriguezenak. Antzezlanean zehar kontatuko duen moduan, erbestean jaio zen Mikel, eta, 8 urte zituela, Euskal Herrira bizitzera etorri zen amarekin, aita deportatu zutenean.

**Dekoratua ere nahiko itogarriak direla diozue.**

Espetxe baten kokatuta dago, eta idazketa prozesuan ari nintzela oso argi nuen bi pertsonaia oso eremu mugatuan mugitu izan da hori lortzea ere.

**Tolosan estreinatuko duzue gaur; Debagoienean izango da ikusteko aukerarik?**

Ez dugu oraindik ezer lotuta, baina oso gustuko dut nire eskualdean nire lanak erakustea, gertuko lagun eta familiaren aurrean. Aahaleginak egingo ditugu hala izan dadin.

Goienakideen txokoa

**MAIATZEKO SARIAK**

**Errigorako saskia**

Parte hartzeko sariaren izena: saskia

**ERRIGORA**



**Sarrerak**

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**  
OSTIKO DAK

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezo Merkataritzako produktuak

**Otarrea**

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**

Posta elektronikoz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Indarren dapan 07/23/0300 legearen arabera, jirarekin dugu zuzendutako txostenak Goiena Foruakoa Tebaturaren

foruak ezin izan dira baten aurkakoak. Datu biltzei haren helburu bakarra da indarren dapan zuzendutako txostenak.

Estalidun gogotsu dardatuena bala, hekurazentak adierazteko helburu baten dardatu. [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

Realaren eta Sevillaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Real-Sevilla norgehiagokara beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratzeko beste lagun batek. Real Arena futbol zelaiko premium gune-tik. Partida ekainaren 4an, 19:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: maiatzaren 29a.

**Irabazi bi lagunendako otordua**

**ITURRIETA JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu partel! Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 30

☎ 943 25 05 05

✉ [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📞 GOIENAKIDE Jotetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



**GOIENAKIDE KUOTA: 65€**  
Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

**goiena**  
**kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



## HILDAKOAK

**Jose Luis Aranzabal Gallastegi.** Bergaran, hilaren 4an. 75 urte.  
**Juanita Fundazuri Lariz.** Arrasaten, maiatzaren 5ean. 87 urte.  
**Francisca Tabares Alcaraz.** Bergaran, maiatzaren 5ean. 74 urte.  
**Provi Perez Pinto.** Arrasaten, maiatzaren 6an. 87 urte.  
**Maria Aranzazu Urcelay Ayastuy.** Oñatin, maiatzaren 6an. 89 urte.  
**Andres Parra Lajas.** Arrasaten, maiatzaren 8an. 77 urte.  
**Emilio Garro Gallastegi.** Arrasaten, maiatzaren 8an. 87 urte.  
**Julian Diaz Leon.** Oñatin, maiatzaren 8an. 67 urte.  
**Jose Luis Astigarraga Galfarsoro.** Oñatin, maiatzaren 8an. 83 urte.  
**Pedro Uribe-Etxebarria Saez de Adana.** Eskoriatzan, hilaren 9an. 93 urte.  
**Manuel Balbas Salas.** Eskoriatzan, maiatzaren 9an. 85 urte.  
**Iosu Moncayola Beain.** Bergaran, maiatzaren 9an. 62 urte.  
**Javier Lazpiur Ibarra.** Bergaran, maiatzaren 9an. 87 urte.  
**Maria Angeles Marin Manchon.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 80 urte.  
**Jose Lopez Sainz.** Bergaran, maiatzaren 11n. 75 urte.  
**Joaquin Pablo Ortuzar Calle.** Arrasaten, maiatzaren 12an. 86 urte.  
**Lide Ortiz de Zarate Gallastegi.** Bergaran, maiatzaren 12an. 88 urte.  
**Josune Ugarte Telleria.** Bergaran, maiatzaren 13an. 93 urte.  
**Maria Gomez Agustin.** Arrasaten, maiatzaren 14an. 91 urte.  
**Edurne Vitoria Basauri.** Arrasaten, maiatzaren 14an. 88 urte.  
**Sabina Altuna Arana.** Arrasaten, maiatzaren 17an. 93 urte.  
**Juana Maria Azurmendi Izagirre.** Arrasaten, maiatzaren 17an. 91 urte.  
**Luis Madariaga Isas-Isasmendi.** Bergaran, maiatzaren 17an. 92 urte.  
**Cecilia Agirre Sirena.** Bergaran, maiatzaren 18an. 95 urte.  
**Antonio De la Torre Vieco.** Arrasaten, maiatzaren 21ean. 70 urte.  
**Floren Garaitonandia Portilla.** Aramaion, maiatzaren 22an. 83 urte.  
**Eladia Nevado Gomez.** Aretxabaletan, maiatzaren 22an. 84 urte.  
**Javier Guridi Guridi.** Oñatin, maiatzaren 22an. 86 urte.  
**Kontxi Rodrigo Castillejo.** Arrasaten, maiatzaren 23an. 82 urte.  
**Eusebio Okina Bengoa.** Arrasaten, maiatzaren 23an. 93 urte.  
**Santos Perez Blanco.** Arrasaten, maiatzaren 25ean. 76 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 26 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39  
 Zapatua, 27 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30  
 Domeka, 28 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 79 15 15  
 Astelehena, 29 JUNCAI: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99  
 Martitzena, 30 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26  
 Eguaztena, 31 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39  
 Eguena, 1 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

### BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 26 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74  
 Zapatua, 27 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87  
 Domeka, 28 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87  
 Astelehena, 29 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05  
 Martitzena, 30 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63  
 Eguaztena, 31 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15  
 Eguena, 1 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

### OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 26 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22  
 Zapatua, 27 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22  
 Domeka, 28 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22  
 Astelehena, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Martitzena, 30 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Eguaztena, 31 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28  
 Eguena, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

### ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)  
 2023 osoan: JUNCAI: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

### BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)  
 2023 osoan: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

### URTEURRENA

## Jabier Uribarren Leturiaga



2022ko maiatzaren 31n hil zen, 82 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 28an, 12:00etan, Aramaioko San Martin parrokian.

*Etxekook ez zaitugu ahazten.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aramaion, 2023ko maiatzaren 26an.

### OROIGARRIA

## Ion Murguzur Orueta



2017ko maiatzaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

*Zure hutsunearen ezin beteaz iritsi da seigarrena, baina sekula ez dugu ahaztuko gugan utzi zenuena.*

Zure kuadrillia.  
 Oñatin, 2023ko maiatzaren 26an.

### ESKER ONA

## Kontxi Rodrigo Castillejo



2023ko maiatzaren 23an hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, Unamuno eta Rodrigo familien izenean.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 26an.

## Oroilore

Maitasunez bizi,  
 maitasunez agurtu

*Gari deitsa zuzenean edo, nahizgo baskone, jakinarazi zuen asaguru-kospainari gurekin nahi duzela agurtu naitu dezuzena.*

*Marioen, Ibanen eta Maribren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordetu zuzentzeko, gure beharra duzuzenerako.*

**Mario, Iban eta Maribi**

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
 Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BADESLEA



## BERRI-ZAKUA



**97ko kintoak**  
 Urte hartako kinto arrasatearrak lepoko arrosarekin batu ziren aurreko zapatuan, egun osoko ospakizuna egiteko. Ederto ibili ziren, poteoan eta bazkarian.



### Gurutze Gorriaren ate irekiak

Herritarrei instalazioak eta baliabideak erakusten ibili ziren aurrekoan Elorregiko boluntarioak. Anbulantziak barrutik nolakoak diren eta bihotz-biriketako bizkortzea nola egiten den ikusteko aukera izan zuten herritarrek.



### Futbola utzi dute

Leintz Arizmendiko Ainhoa Iturriotz eta Lide Zubiaga arrasatearrek, Lore Etxeandia aretxabaletarrak eta June Ugarte oñatiarrak denboraldiko eta euren futbol ibilbideak azken partidua jokatu zuten Mutrikan.

## ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**BITORIANTXAROREN JAITSIERA**

Bergarako Pentekoste jaien hasiera zuzenean emango dute Goiena telebistan, Goiatz Aranak aurkeztuta.

'Bereziak' Egubakoitza, 19:30

**HAUTESKUNDE GAUA**


Udal eta foru hauteskundearen gaineko saio berezia, gonbidatuekin, Txomin Madinak eta Goiatz Aranak gidatuta.

'Bereziak' Domeka, 19:45

**KUADRILLEN ARTEKO JOLASAK**

Pentekoste jaietako ekitaldi koloretsuenetako bat emango dute zuzenean, zezen-plazatik.

'Bereziak' Astelehena, 12:00

**HAUTESKUNDE BIHARAMUNA**

Hauteskundearen gaineko emaitzen erreposoa egingo dute herriz herri eta hainbat protagonistarekin platoon.

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**PENTEKOSTE JAIEN LABURPENA**

Bergarako jaiak emandakoaren erreposo zabala, Aitor Agirianok eta Andrea Gonzalezek aurkeztuta.

'Jaiak' Eguaztena, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 26****ESKORIATZA Hiruko saskibaloitxapelketa**

2014tik aurrera jaietako neska-mutikoendako.

Luis Ezeizan, 17:00etan.

**ARETXABALETA Ecstatic Dance saioa**

Dantza Astearen baitan, Oskar Estanga DJak gidatuta.

Ibarra kiroldegian, 18:00etan.

**ARRASATE Dantzaldia**

Portaloi Elkartearen eskutik, dantzazale guztiendako.

Kulturoloan, 18:30etan.

**BERGARA Pentekoste jaiak**

Egitarau osoa, 41. orriko QR-an. Bergaran.

**ZAPATUA 27****ARETXABALETA 'Ikusezinaren dantza' ikastaroa**

Ainhoa Alberdi aktorearekin, gaur eta bihar.

Kuartelean, 10:00etan.

**ARRASATE Arte azoka**

Arrasateko Margo Taldekoen 17 lan egongo dira ikusgai.

Seber Altuben, 10:00etan.

**ESKORIATZA Eskola kiroleko ikasturte bukaerako jaiak**

Joko-jolasen topaketa eta opariaren zozketa.

Fernando Eskoriatza plazan, 10:45etan.

**BERGARA Pentekoste jaiak: zapatua**

Egitarau osoa, 41. orriko QR-an. Bergaran.

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**

11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz. Aurrez eman behar zen izena.

Herriko Plazan.

**ANTZUOLA Iralako kronoigoera**

Aiastui txirindulari elkartearen eskutik.

Antzuolan, 12:00etan.

**ESKORIATZA Eskoriatza Kirol Elkartearen eguna**

12:00etan, Ad Libitum txaranga; 12:30etan, bigarren eskuko azoka; 14:45etan, paella-jana; 16:00etan, saskibaloitxapelketa; 18:00etan, areto futbol txapelketa; eta parrillada.

Fernando Eskoriatza plazan.

**ARETXABALETA Txakolin Eguna**

Getariako Txakolina jatorriko sei upategik parte hartuko dute.

Mitarte kalean, 12:30etan.

**ARRASATE Lore Gazteak taldeko beteranoen emanaldia**

Hainbat eskualdetako hamar dantza eskainiko dituzte, txistularien eta gaitarien laguntzarekin.

Herriko Plazan, 13:00etan.

**ANTZUOLA Ramon Aldasoro I. trial memoriala**

Euskadiko trial txapelketarako puntuagarria.

Antzuolan, 15:00etan.

**ELGETA Ginkana**

Gazteendako.

Ludotekatik abiatuta, 16:00etan.

**OÑATI Mitologiari buruzko ipuin kontaketa**

Marimundukorekin. Sarrerak, bost euro. Izena: 943-78 28 94.

Parketxean, 16:30etan.

**OÑATI Señora sariketako finala**

Iruri Altzerreka, Maider Arregi, Janire Arrizabalaga, Eli Pagola, Maddi Ane Txoperena eta Eli Zaldun bertsoetan. Sarrerak, hamar euro.

Gaztelekuan, 17:00etan.

**ARRASATE 'Aireportuan' ikuskizuna**

Potx eta Lotx pailazoekin. Sarrerak, bost euro.

Amaia antzokian, 17:00etan.

**ARRASATE Pelikula emanaldia**

Gazteendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

**ARRASATE Telleri eta Goikobalu abesbatzak**

Elkartruke kontzertua egingo dute. Arrasatearrak azaroan joango dira.

San Frantzisko elizan, 19:30etan.

**ARAMAIO Eguzkierripa rock jaialdia**

Rebel Noise, No Somos Cicatriz, 112 eta Roder taldeak.

Andramarin, 21:00etan.

**DOMEKA 28****BERGARA Pentekoste jaiak: domeka**

Egitarau osoa, 41. orriko QR-an. Bergaran.

**ELGETA Bisita gidatua**

lubakietara

Izena: 943-79 64 63 edo [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).

Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

**ARETXABALETA Haur Dantzarien Eguna**

Oñatiko, Arrasateko, Sorluzeko, Antzuolako eta herriko dantzariak. Kaleetan, 10:00etan.

**ARRASATE Familia-meza**

Familia guztiendako.

Parrokian, 11:00etan.

**ESKORIATZA Magia tailerra**

Niala magoarekin.

Ibarraundin, 17:30etan.

**ARRASATE Ziorlako begiratokira irteera**

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

**ARAMAIO 'Elvis' filma**

Musika Astearen baitan.

Kultura etxean, 18:30etan.

**ASTELEHENA 29****BERGARA Pentekoste jaiak**

Egitarau osoa, 41. orriko QR-an. Bergaran.

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

Foruen plazan, 12:00etan.





AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Noraezean

Joan den astean, Kataluniako prentsan Carles Puigdemont albiste izan da. Egunkari gehienetan, gainera, lehen orrialdean agertu da. Hala ere, euskal hedabideetan oihartzun eskasa izan du.

Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordeak beste behin zigortu du Espainiako Estatua Kataluniako independentzia prozesuaren baitan. Oraingoan, Puigdemonten eskubide politikoak urratzea egotzi dio.

Batek baino gehiagok ahaztuko zuen lurralde hartako presidentek erbestean jarraitzen duela eta independentistak egon badaudela. Ez da arraroa ahaztea. Izan ere, gailendu den errelatoak bilatzen duena da burujabetzarako ekimenak alboratzea –prozedura demokratikoak badira ere–. Nolabait, hau da mezua: "Argi ibili; hortik doanak jasan beharko du erbestea, kartzela, zigor ekonomikoa, biolentzia...". Ideia hori gure artean ere nonahi hedatu da.

Bere momentuan, katalanen konfrontazioaren aurrean, "euskal bidea" aipatzen zen. Baina, ikusitakoak ikusita, badirudi jokamolde hori autonomiaren kudeaketa besterik ez dela. "Kataluniar bideak" Tourmalet bazuen jomuga, "euskal bidea" bizikleta estatikoa zen. Eta da.

## BUKATZEKO



Manu Chao, ohiko keinu bat egiten. GOIENA

# Manu Chao, Arrasaten, 32 urte igaro eta gero

Hiru hamarkada pasatu dira Manu Chao Arrasaten izan zenetik, eta 7 urte Euskal Herria azkenekoz zapaldu zuenetik. Uztailaren 9an kontzertu akustikoa egingo du Monterronen; maiatzaren 30ean jarriko dira sarrerak salgai, 'entzunproducciones.com'-en, 22 eurotan

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE 32 urte pasatu dira Manu Chao Arrasaten egon zen azken alditik; eta uztailaren 9an, Mondra&Roll jaialdiko baliabideak aprobetxatuz, Monterronen izango da: kontzertu akustikoa eskainiko du. 17:30ean atea ireki eta gero, 18:00etan Burutik eta EIRE taldeen saioekin hasiko da ekitaldia. Sarrerak maia-

tzaren 30ean *entzunproducciones.com* webgunean jarriko ditute salgai, 22 eurotan –kudeaketa gastuak aparte–.

### 'Sarri sarri'

Ez da Arrasate zapalduko duen lehenengo aldia izango, baina bai bakarlarri moduan egongo den lehena: Mano Negra taldearekin 1991n egin zuen Espai-

niako biran Arrasaten izan zen, martxoaren 3an, eta, Lakuntzan egin zuten kontzertuarekin batera, Euskal Herrian eman zuten ikuskizun bakarrak izan ziren. Urte berean atera zuten Negu Gorriak taldearekin batera *Gora herria!* abestia. Bakarlarri bezala 2016an egon zen azkenekoz Euskal Herrian; Lizarran, hain zuzen.

Familia errepublikano bateko senide, ama bilbotarra, aita galiziarra eta aitona Frantziar erbesteratutako errepublikanoa izanik, Parisen jaio zen, 1961ean. Influentzia nagusi aitona zuelarik, ideal politikoengatik eta hainbat arrazoi sozial babestegatik da ezaguna Manu Chao, eta hala adierazi zion Peter *Culshaw* idazleari: "Influentzia handia izan zen niretzat, bidegakeriaren aurkako borrokalaria, haren idealak defendatu zituen amaierara arte".

Beti izan du Euskal Herriarekiko lotura zuzena, eta sarritan aritu da eszenatoki gainean euskal artistekin. Fermin Muguruza eta Xabi Solano izan dira musikari horietako bi; Belgikan ospatzen den Esperanzah Festivalen Manu Chao gonbidatu berezi bezala izan zituen 2015ean, eta horren ezaguna den *Sarri sarri* abestia interpretatu zuten.

### "Desagertuta"

Musikariak hamarkada bat baino gehiago darama diskoak editatu gabe eta lehen lerrotik oso urrun. 25 urte pasa dira bakarlarri bezala haren lehen lana kaleratu zuenetik –*Clan destino*–. 1994 eta 1997 bitartean "desagertu" egin zela eta "Parisko euskal nomada" bihurtu zela adierazi zuen Josh Kun idazleak.

Mano Negrako taldeburua pandemian zehar sare sozialen bidez bueltatu zen lehen lerrora. Hainbat abestiren bideoak igo zituen, beste hainbat artistak bezala, etxean konfinatuta zeuden herritarrei konfinamendua atseginago egiteko helburuarekin. 2016a ezkereraren haren gabe, orain Euskal Herria bueltatuko da berriz.

**Komunikazio Campusa 2023**

ANTOLATZAILEAK: **goiena** KOMUNIKAZIO TALDEA

**M** Mondragon Unibertsitatea  
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**Bideo-podcasta**  
Sorkuntza eta zabalkundera sare sozialetan

**Anima zaitetz eta eman izena!**